Artículo 69*

Al mayor de dieciocho años y menor de veintiuno que cometa un hecho delictivo, podrán aplicársele las disposiciones de la ley que regule la responsabilidad penal del menor en los casos y con los requisitos que ésta disponga.

69. artikulua*

Hemezortzi urtekoa baino nagusiagoa eta hogeita bat urtekoa baino gazteagoa denari, egitatea gauzatuz gero, aplikatu ahal izango zaizkio adingabearen erantzukizun penala arautzen duen legearen xedapenak, lege horretan ezarritako kasuetan eta beraren betekizunei jarraituz.

Artículo 70

1. La pena superior o inferior en grado a la prevista por la Ley para cualquier delito tendrá la extensión resultante de la aplicación de las siguientes reglas:

1.ª La pena superior en grado se formará partiendo de la cifra máxima señalada por la Ley para el delito de que se trate y aumentando a ésta la mitad de su cuantía, constituyendo la suma resultante su límite máximo.

2.ª La pena inferior en grado se formará partiendo de la cifra mínima señalada por la Ley para el delito de que se trate y deduciendo de ésta la mitad de su cuantía, constituyendo el resultado de tal deducción su límite mínimo.

70. artikulua

1. Legeak edozein delitutarako ezarritako zigorra baino gradu bat gehiagoko edo gutxiagoko zigorraren hedadura hurrengo erregelen aplikazioak zehaztuko du:

1.) Gradu bat gehiagoko zigorra eratzeko legeak delitu bakoitzari ezarri gehieneko zenbakiari beraren zenbatekoaren erdia gehituko zaio, eta hortik ateratzen den batura goiko graduko zigorraren gehieneko muga izango da.

2.) Gradu bat gutxiagoko zigorra eratzeko legeak delitu bakoitzari ezarri gutxieneko zenbakiari beraren zenbatekoaren erdia kenduko zaio, eta hortik ateratzen den kendura beheko graduko zigorraren gutxieneko muga izango da.

---

* Con arreglo a la disposición transitoria única de la Ley Orgánica 9/2000, de 22 de diciembre, sobre medidas urgentes para la agilización de la Administración de Justicia, la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, reguladora de la responsabilidad penal de menores, de momento no entra en vigor para los infractores de entre 18 y 21 años. Dicha ley ha entrado en vigor, con carácter general, el 13 de enero de 2001, pero habrá que esperar dos años desde la citada fecha, para que, en su caso, pueda aplicarse a los infractores de entre 18 y 21 años el régimen jurídico de menores antedicho.

* Abenduaren 22ko 9/2000 Lege Organikoak Justizia Administrazioa bizkortzeko presazko neurriak arautu ditu. Lege horren xedapen iragankor bakarraren arabera, 18 eta 21 urte bitartekoentzat ez da indarrean jarriko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, Adingabeen Erantzukizun Penala Arautu duena. Lege hori, orokorrean, indarrean jarri da 2001eko urtarrilaren 13an. Data horrez geroztik, bi urte itxaron beharko dira, 18 eta 21 urte bitarteko gazteei, hala dagokienean, adingabeen araubide hura ezarri ahal izateko.

2. Cuando, en la aplicación de la regla establecida en el subapartado 1.º del apartado 1 de este artículo, la pena superior en grado exceda de los límites máximos fijados a cada pena en este Código, se considerarán como inmediatamente superiores:

1.º Si la pena determinada fuera la de prisión, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de treinta años.

2.º Si fuera la de inhabilitación absoluta o especial, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de veinticinco años.

3.º Tratándose de privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores y del derecho a la tenencia y porte de armas, las mismas penas, con la cláusula de que su duración máxima será de quince años.

4.º Si fuera de multa, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de treinta meses.

5.º En el arresto de fin de semana, el mismo arresto, con la cláusula de que su duración máxima será de treinta y seis fines de semana.

Artículo 71

1. En la determinación de la pena inferior en grado, los Jueces o Tribunales no quedarán limitados por las cuantías mínimas señaladas en la Ley

2. Artikulu honen 1. paragrafoko 1. zenbakian ezarri erregela aplikatuz, gradu bat gehiagoko zigorrak gainditzen baditu kode honetako zigor bakoitzari ezarri zaizkion gehieneko mugak, orduan, zigor hauek izango dira haiek baino handiagoxeak:

1.) Zehazturiko zigorra espetxealdikoa bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena hogeita hamar urtekoa izango delako klausularekin.

2.) Zehazturiko zigorra erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezia bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena hogeita bost urtekoa izango delako klausularekin.

3.) Zehazturiko zigorrak ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko edo armak edukitzeko eta erameteko eskubideaz gabetzen badu, zigor berberak handiagoxetzat hartuko dira, beraien iraupena hamabost urtekoa izango delako klausularekin.

4.) Zehazturiko zigorra isuna bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena hogeita hamar hilabetekoa izango delako klausularekin.

5.) Zehazturiko zigorra asteburuko atzipenaldia bada, atzipenaldi bera, beraren gehieneko iraupena hogeita hamasei asteburukoa izango delako klausularekin.

71. artikulua

1. Delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa zehaztean, epaile edo auzitegientzat ez dira muga izango legeak zigor-mota bakoi-

a cada clase de pena, sino que podrán reducirlas en la forma que resulte de la aplicación de la regla correspondiente.

2. No obstante, cuando por aplicación de las reglas anteriores proceda imponer una pena de prisión inferior a seis meses, ésta será en todo caso sustituida conforme a lo dispuesto en la sección 2.ª del capítulo III de este Título, sin perjuicio de la suspensión de la ejecución de la pena en los casos en que proceda.

Artículo 72

Cuando la pena señalada en la Ley no tenga una de las formas previstas especialmente en este Título, se individualizará y aplicará, en cada caso, haciendo uso analógico de las reglas anteriores.

SECCIÓN II

Reglas especiales para la aplicación de las penas

Artículo 73

Al responsable de dos o más delitos o faltas se le impondrán todas las penas correspondientes a las diversas infracciones para su cumplimiento simultáneo, si fuera posible, por la naturaleza y efectos de las mismas.

Artículo 74

1. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el que, en ejecución de un plan preconcebido o aprovechando idéntica ocasión, realice una plu-

tzari ezartzen dizkion gutxieneko zenbatekoak. Alabaina, epaile eta auzitegiek zigor horiek laburtu ahal izango dituzte, erregela egokiaren aplikazioak zehazten duen eran.

2. Dena den, aurreko erregelen aplikazioa dela eta, sei hilabete baino gutxiagoko espetxealdi-zigorra ezarri behar denean, zigor hori titulu honen III. kapituluko 2. atalean xedatutakoaren arabera ordeztuko da; horrek ez dio kalterik egingo zigorraren betearazpena eteteari, bidezko gertatzen den kasuetan.

72. artikulua

Legeak ezarri zigorrak titulu honetan beren beregi agindutako era bat ez duenean, zigorra bakoiztu eta kasuan-kasuan ezarriko da, aurreko erregelak analogiaz erabilita.

II. ATALA

Zigorrak ezartzeko erregela bereziak

73. artikulua

Delitu nahiz falta bi edo gehiagoren erantzuleari ezarriko zaizkio beraren arau-hausteei dagozkien zigor guztiak, batera bete ditzan, baldin eta batera bete badaitezke, zigor horien izaera eta ondoreak direla eta.

74. artikulua

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, aldez aurretik pentsatutako plan bat betez edo aukera bera aprobetxatuz, subjektu baten edo batzuen aur-

ralidad de acciones u omisiones que ofendan a uno o varios sujetos e infrinjan el mismo precepto penal o preceptos de igual o semejante naturaleza, será castigado, como autor de un delito o falta continuados, con la pena señalada para la infracción más grave, que se impondrá en su mitad superior.

2. Si se tratare de infracciones contra el patrimonio, se impondrá la pena teniendo en cuenta el perjuicio total causado. En estas infracciones el Juez o Tribunal impondrá, motivadamente, la pena superior en uno o dos grados, en la extensión que estime conveniente, si el hecho revistiere notoria gravedad y hubiere perjudicado a una generalidad de personas.

3. Quedan exceptuadas de lo establecido en los apartados anteriores las ofensas a bienes eminentemente personales, salvo las constitutivas de acciones contra el honor y la libertad sexual; en tales casos se atenderá a la naturaleza del hecho y del precepto infringido para aplicar o no la continuidad delictiva.

kako egite edo ez-egite batzuk gauzatzen dituenari, astunena den arau-hausteari dagokion zigorra ezarriko zaio, goiko erdian, delitu edo falta jarraitu baten egile gisa, baldin eta egite edo ez-egite horiek zigor-manu bera nahiz izaera bereko edo antzeko manuak hausten badituzte.

2. Arau-hausteak ondarearen aurkakoak badira, zigorra ezartzeko, eragindako kalte osoa hartuko da kontuan. Epaile edo auzitegiak, zioak emanez eta egoki uste duen hainbatean, delituari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi handiagoa ezarriko du, baldin eta egitateak larritasun nabaria badu eta pertsona askori egiten badie kalte.

3. Aurreko paragrafoetan ezartzen denetik salbuetsita geratzen dira pertsonaren bere-berezkoak diren ondasunen aurkako ofentsak, ohore eta sexu-askatasunaren aurkakoak izan ezik; kasu horietan, delituan jarraituari buruzko xedapenak ezartzeko edo ez ezartzeko, egitatearen eta hautsitako manuaren izaerak hartuko dira kontuan.

Artículo 75

Cuando todas o algunas de las penas correspondientes a las diversas infracciones no puedan ser cumplidas simultáneamente por el condenado, se seguirá el orden de su respectiva gravedad para su cumplimiento sucesivo, en cuanto sea posible.

75. artikulua

Kondenatuak arau-hausteei dagozkien zigor guztiak edo zigor batzuk ezin dituenean batera bete, ahal den neurrian, bata bestearen ondoren beteko ditu beraien astuntasunaren hurrenkeraren arabera.

Artículo 76

1. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el máximo de cumpli-

76. artikulua

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, errudunak benetan beteko

miento efectivo de la condena del culpable no podrá exceder del triple del tiempo por el que se le imponga la más grave de las penas en que haya incurrido, declarando extinguidas las que procedan desde que las ya impuestas cubran dicho máximo, que no podrá exceder de veinte años. Excepcionalmente, este límite máximo será:

a) De veinticinco años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos y alguno de ellos esté castigado por la Ley con pena de prisión de hasta veinte años.

b) De treinta años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos y alguno de ellos esté castigado por la Ley con pena de prisión superior a veinte años.

2. La limitación se aplicará aunque las penas se hayan impuesto en distintos procesos si los hechos, por su conexión, pudieran haberse enjuiciado en uno solo.

Artículo 77

1. Lo dispuesto en los dos artículos anteriores, no es aplicable en el caso de que un solo hecho constituya dos o más infracciones, o cuando una de ellas sea medio necesario para cometer la otra.

2. En estos casos se aplicará en su mitad superior la pena prevista para la infracción más grave, sin que pueda exceder de la que represente la suma de

duen kondenaren gehieneko iraupenak ezin du gainditu errudunari ezarri zaizkion zigorretatik astunenak dirauen denbora baino hiru halakoa. Horrela, jadanik ezarritako zigorrak gehieneko muga horretaraino iristen direnetik, bete beharreko beste guztiak azkendutzat hartuko dira. Dena den, muga hori ezin izango da hogei urte baino gehiagokoa izan. Salbuespen gisa, gehieneko muga hurrengoa izango da:

a) Hogeita bost urtekoa, baldin eta subjektuari delitu bi edo gehiago egiteagatik ezarri bazaio kondena, eta, horrezaz gain, legeak delitu horietatik bati hogei urte arteko espetxealdi-zigorra ezartzen badio.

b) Hogeita hamar urtekoa, baldin eta subjektuari delitu bi edo gehiago egiteagatik ezarri bazaio kondena, eta, horrezaz gain, legeak delitu horietatik bati hogei urte baino gehiagoko espetxealdi-zigorra ezartzen badio.

2. Aurreko muga aplikatuko da, nahiz eta zigorrak prozesu ezberdinetan ezarri, baldin eta egitateak, beraien loturarengatik, prozesu bakarrean epaitu ahal izan balira.

77. artikulua

1. Aurreko bi artikuluetan ezarritakoa ez da aplikatuko, egitate bakarra arau-hauste bi edo gehiago denean, edo arau-hauste horietako bat bestea egiteko beharrezko bidea denean.

2. Kasu horietan arau-hauste astunenari ezarri zigorra goiko erdian ezarriko da. Zigor horrek ezin du gainditu, arau-hausteak banaturik zigortuz gero

las que correspondería aplicar si se penaran separadamente las infracciones.

3. Cuando la pena así computada exceda de este límite, se sancionarán las infracciones por separado.

Artículo 78

Si a consecuencia de las limitaciones establecidas en el artículo 76 la pena a cumplir resultase inferior a la mitad de la suma total de las impuestas, el Juez o Tribunal, atendida la peligrosidad criminal del penado, podrá acordar motivadamente que los beneficios penitenciarios y el cómputo de tiempo para la libertad condicional se refieran a la totalidad de las penas impuestas en las sentencias, sin perjuicio de lo que, a la vista del tratamiento, pueda resultar procedente.

En este último caso, el Juez de Vigilancia Penitenciaria, valorando, en su caso, las circunstancias personales del reo, la evolución del tratamiento reeducador y el pronóstico de reinserción social, podrá acordar razonadamente, oído el Ministerio Fiscal, la aplicación del régimen general de cumplimiento.

Artículo 79

Siempre que los Jueces o Tribunales impongan una pena que lleve consigo otras accesorias condenaran también expresamente al reo a estas últimas.

ezarri beharreko zigorren baturak dakarren zigorra.

3. Horrela zenbatutako zigorrak muga hori gainditzen duenean, arauhausteak banaturik zigortuko dira.

78. artikulua

76. artikuluan ezarri mugen ondorioz, bete behar den zigorra guztira ezarritako zigor-baturaren erdia baino txikiagoa bada, epaile edo auzitegiak, zigortuaren arriskutsutasun kriminala kontuan izanik, eta horretarako zioak emanez, erabaki dezake espetxe-onurak eta baldintzapeko askatasunerako denboraren zenbaketa epaietan ezarritako zigor guztien baturaren arabera kalkulatzea; horrek ez dio kalterik egingo tratamenduaren arabera bidezko gerta litekeenari.

Azken kasu horretan, espetxe-zaintzarako epaileak, behar denean, erruduna-ren beraren inguruabarrak, berrezibidearen bilakaera eta gizartean birsartzeko pronostikoa balioetsiko ditu, eta, horretarako arrazoiak emanez, zigorra betetzeari buruzko eraentza orokorra ezartzea erabaki dezake, Fiskaltzak esan beharrekoak entzun eta gero.

79. artikulua

Epaile edo auzitegiek ezartzen dutenean zigor erantsiak barneratzen dituen zigorra, erruduna kondenatuko dute, beren beregi, zigor erantsiak betetzera.

CAPÍTULO III

De las formas sustitutivas de la ejecución de las penas privativas de libertad

SECCIÓN I

De la suspensión de la ejecución de las penas privativas de libertad

Artículo 80

1. Los Jueces o Tribunales podrán dejar en suspenso la ejecución de las penas privativas de libertad inferiores a dos años mediante resolución motivada, atendiendo fundamentalmente a la peligrosidad criminal del sujeto.

2. El plazo de suspensión será de dos a cinco años para las penas privativas de libertad inferiores a dos años, y de tres meses a un año para las penas leves y se fijará por los Jueces o Tribunales, previa audiencia de las partes, atendidas las circunstancias personales del delincuente, las características del hecho y la duración de la pena.

3. La suspensión de la ejecución de la pena no será extensiva a la responsabilidad civil derivada del delito o falta penados.

4. Los Jueces y Tribunales sentenciadores podrán otorgar la suspensión de cualquier pena impuesta sin sujeción a requisito alguno en el caso de que el penado esté aquejado de una enfermedad muy grave con padecimientos incurables, salvo que en el momento de la comisión del delito tuviera ya otra pena suspendida por el mismo motivo.

III. KAPITULUA

Zigor askatasun-gabetzaileak betearazteko ordezko erak

I. ATALA

Zigor askatasun-gabetzaileen betearazpena etetea

80. artikulua

1. Epaile edo auzitegiek, ziodun ebazpenaren bitartez, eten dezakete bi urte baino denbora laburragorako zigor askatasun-gabetzaileen betearazpena, gehienbat subjektuaren arriskutsutasun kriminala kontuan hartuz.

2. Bi urte baino denbora laburragorako zigor askatasun-gabetzaileen kasuan, etendura-epea bi urtetik bost artekoa izango da, eta hiru hilabetetik urtebete artekoa zigor arinen kasuan. Epaile edo auzitegiek ezarriko dute etendura-epea, alderdiek esan beharrekoa entzun eta gero, delitugilearen beraren inguruabarrak, egitatearen berezitasunak eta zigorraren iraupena kontuan izanik.

3. Zigorraren betearazpena eteten denean, etendura hori ez da zabalduko delitu edo falta zigortuaren ondoriozko erantzukizun zibilera.

4. Epaile eta auzitegi epai-emaileek inolako betekizunik gabe erabaki dezakete ezarrita dauden zigorretatik edozein etetea, baldin eta zigortuak gaixotasun oso larria badu, sendaezinezko jasankizunekin, salbu eta delitu egitean beste zigor bat arrazoi berberagatik duenean etenda.

Artículo 81

Serán condiciones necesarias para dejar en suspenso la ejecución de la pena, las siguientes:

1.ª Que el condenado haya delinquido por primera vez. A tal efecto no se tendrán en cuenta las anteriores condenas por delitos imprudentes ni los antecedentes penales que hayan sido cancelados, o debieran serlo, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 136 de este Código.

2.ª Que la pena impuesta, o la suma de las impuestas en una misma sentencia, no sea superior a los dos años de privación de libertad.

3.ª Que se hayan satisfecho las responsabilidades civiles que se hubieren originado, salvo que el Juez o Tribunal sentenciador, después de oír a los interesados y al Ministerio , declare la imposibilidad total o parcial de que el condenado haga frente a las mismas.

81. artikulua

Zigorraren betearazpena eteteko, beharrezko baldintzak izango dira honako hauek:

1.) Kondenatuak delitu egin duen lehenengo aldia izatea. Ondore horretarako, ez dira kontuan hartuko zuhurtziagabekeriazko delituen ondorioz aurretik ezarrita dauden kondenak ezta, kode honen 136. artikuluaren arabera, ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen zigor-aurrekariak ere.

2.) Ezarritako zigorrak, edo epai berean ezarritako zigorren baturak, bi urte baino denbora luzeagorako askatasunaz ez gabetzea.

3.) Sortarazitako erantzukizun zibilak ordainduta egotea, salbu eta epaile edo auzitegi epai-emaileak, interesdunek eta Fiskaltzak esan beharrekoak entzun eta gero, adierazten duenean kondenatuak ezin diola aurre egin erantzukizun zibil osoari edo erantzukizun zibil horren zati bati.

Artículo 82

Declarada la firmeza de la sentencia y acreditados los requisitos establecidos en el artículo anterior, los Jueces o Tribunales se pronunciarán con la mayor urgencia sobre la concesión o no de la suspensión de la ejecución de la pena. Mientras tanto, no comunicarán ningún antecedente al Registro Central de Penados y Rebeldes.

Si el Juez o Tribunal acordara la suspensión de la ejecución de la pena, la inscripción de la pena suspendida se llevará a cabo en una Sección especial, separada y reservada de dicho Regis-

82. artikulua

Epaiaren irmotasuna adierazi eta aurreko artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatu eta gero, epaile edo auzitegiek ahalik eta arinen erabakiko dute zigorraren betearazpena etetea baimentzen duten ala ez. Bitartean, Zigortu eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiari ez diote inolako aurrekarien berririk emango.

Epaile edo auzitegiak zigorraren betearazpena etetea erabakitzen badu, eteten duen zigorraren inskripzioa erregistro horren atal berezi, banatu eta isilpekoan egingo da. Epaile eta auzite-

tro, a la que sólo podrán pedir antecedentes los Jueces o Tribunales.

Artículo 83

1. La suspensión de la ejecución de la pena quedará siempre condicionada a que el reo no delinca en el plazo fijado por el Juez o Tribunal conforme al artículo 80.2 de este Código. En el caso de que la pena suspendida fuese de prisión, el Juez o Tribunal sentenciador, si lo estima necesario, podrá también condicionar la suspensión al cumplimiento de las obligaciones o deberes que le haya fijado de entre las siguientes:

1.º Prohibición de acudir a determinados lugares.

1.º bis. Prohibición de aproximarse a la víctima, o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal, o de comunicarse con ellos.

2.º Prohibición de ausentarse sin autorización del Juez o Tribunal del lugar donde resida.

3.º Comparecer personalmente ante el Juzgado o Tribunal, o servicio de la Administración que éstos señalen, para informar de sus actividades y justificarlas.

4.º Participar en programas formativos, laborales, culturales, de educación vial, sexual y otros similares.

5.º Cumplir los demás deberes que el Juez o Tribunal estime convenientes para la rehabilitación social del penado, previa conformidad de éste, siem-

giak dira atal horri aurrekariak eska diezazkioketen bakarrak.

83. artikulua

1. Zigorraren betearazpenaren etendura beti egongo da errudunak deliturik ez egiteko baldintzapean, epaile edo auzitegiak kode honen 80.2 artikuluaren arabera ezarritako epean. Horrezaz gain, eteten den zigorra espetxealdikoa bada eta epaile edo auzitegi epai-emaileak beharrezko baderitzo, errudunari jarraian zerrendatuko diren betebehar eta eginbeharren artean ezarritakoak betetzea galdatu ahal izango dio, zigorraren betearazpena eteteko baldintza gisa:

1.) Leku jakin batzuetara joateko debekua.

1. bis) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren senide edo beste pertsonengana hurbiltzeko edo horiekin komunikatzeko debekua.

2.) Bizilekua duen tokitik irteteko debekua, epaile edo auzitegiaren baimenik izan gabe.

3.) Epaitegira edo auzitegira edo horiek adierazten duten Administraziozerbitzura bere buruz agertzea, bere jardueren berri emateko eta jarduera horiek frogatzeko.

4.) Heziketa, lan, kultura, bide-hezkuntza zein sexu-hezkuntzako programetan eta horien antzekoetan parte hartzea.

5.) Zigortua gizartean birgaitzeko, epaile edo auzitegiak egoki deritzen beste eginbeharrak betetzea, baldin eta zigortua ados badago eta eginbehar ho-

pre que no atenten contra su dignidad como persona.

2. Los servicios correspondientes de la Administración competente informarán al Juez o Tribunal sentenciador, al menos cada tres meses, sobre la observancia de las reglas de conducta impuestas.

Artículo 84

1. Si el sujeto delinquiera durante el plazo de suspensión fijado, el Juez o Tribunal revocará la suspensión de la ejecución de la pena.

2. Si el sujeto infringiera durante el plazo de suspensión las obligaciones o deberes impuestos, el Juez o Tribunal podrá, previa audiencia de las partes, según los casos:

a) Sustituir la regla de conducta impuesta por otra distinta.

b) Prorrogar el plazo de suspensión, sin que en ningún caso pueda exceder de cinco años.

c) Revocar la suspensión de la ejecución de la pena, si el incumplimiento fuera reiterado.

Artículo 85

1. Revocada la suspensión, se ordenará la ejecución de la pena, así como la inscripción de la misma en el Registro Central de Penados y Rebeldes.

2. Transcurrido el plazo de suspensión fijado sin haber delinquido el sujeto, y cumplidas, en su caso, las reglas de conducta fijadas por el Juez o Tribunal, éste acordará la remisión de la pena, ordenando la cancelación de la inscripción hecha en la Sección especial

riek ez badira zigortuak pertsona gisa duen duintasunaren aurkakoak.

2. Eskudun Administrazioaren zerbitzuek, gutxienez hiru hilabetean behin, ezarritako jokarauak betetzen diren ala ez esango diote epaia eman duen epaile edo auzitegiari.

84. artikulua

1. Ezarritako etendura-epean zehar subjektuak delitu egiten badu, epaile edo auzitegiak zigorraren betearazpena etetea ezeztatuko du.

2. Subjektuak hausten baditu etendura-epean zehar ezarritako betebehar edo eginbeharrak, orduan, epaile edo auzitegiak, alderdiek esan beharrekoa entzun eta gero, kasuan-kasuan, hurrengoa egin ahal izango du:

a) Ezarritako jokarauaren ordez beste bat ezartzea.

b) Etendura-epea luzatzea, baina inoiz ere ez bost urte baino gehiagorako.

c) Zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatzea, behin eta berriz eginbehar eta betebeharrak urratzen badira.

85. artikulua

1. Etendura ezeztatu eta gero, zigorra betearaztea aginduko da, bai eta Zigortu eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusian inskribatzea ere.

2. Behin etendura-epea amaituta subjektuak deliturik egin gabe, eta epaile edo auzitegiak ezar ditzakeen jokarauak betetzen baditu, epaile edo auzitegi horrek zigorra kentzea erabakiko du. Era berean, Zigortu eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiko atal

del Registro Central de Penados y Rebeldes. Este antecedente penal no se tendrá en cuenta a ningún efecto.

berezian egindako inskripzioa ezereztea aginduko du. Zigor-aurrekari hori ez da inongo ondoretarako ere kontuan hartuko.

Artículo 86

En los delitos que sólo pueden ser perseguidos previa denuncia o querella del ofendido, los Jueces y Tribunales oirán a éste y, en su caso, a quien le represente, antes de conceder los beneficios de la suspensión de la ejecución de la pena.

86. artikulua

Delitua pertsegitzeko bide bakarra ofendituaren salaketa edo kereila denean, epaile edo auzitegiek, zigorraren betearazpena eteteak dituen onurak eman baino lehenago, ofendituak eta, hala denean, beraren ordezkariak ere esan beharrekoa entzungo dute.

Artículo 87

1. Aun cuando no concurran las condiciones 1.ª y 2.ª previstas en el artículo 81, el Juez o Tribunal, con audiencia de las partes, podrá acordar la suspensión de la ejecución de las penas privativas de libertad no superiores a tres años de los penados que hubiesen cometido el hecho delictivo a causa de su dependencia de las sustancias señaladas en el número 2.º del artículo 20, siempre que se den las siguientes circunstancias:

1.ª Que se certifique suficientemente, por centro o servicio público o privado debidamente acreditado u homologado, que el condenado se encuentra deshabituado o sometido a tratamiento para tal fin en el momento de decidir sobre la suspensión.

2.ª Que no se trate de reos habituales.

2. En el supuesto de que el condenado sea reincidente, el Juez o Tribunal valorará, por resolución motivada, la oportunidad de conceder o no el beneficio de la suspensión de la ejecu-

87. artikulua

1. Zigortuak delitu egiten badu, 20. artikuluko 2. zenbakian adierazten diren gaiekiko mendekotasunak eraginda, epaile edo auzitegiak, alderdiei entzunaldia emanda, hiru urte baino luzeagoak ez diren zigor askatasungabetzaileen betearazpena etetea erabaki dezake, 81. artikuluan ezarritako 1 eta 2. baldintzak gertatzen ez badira ere, baldin eta inguruabar hauek betetzen badira:

1.) Behar bezala egiaztatua edo homologatua den zentro edo zerbitzu publiko edo pribatuak behar beste ziurtatzea, etetea erabakitzen den unean, kondenatuak mendekotasuna gainditu duela edo mendekotasuna gainditzeko sendabidean dagoela.

2.) Ohiko errudunak ez izatea.

2. Kondenatua berrerorlea denean, epaile edo auzitegiak, egitatearen eta egilearen inguruabarrak kontuan izanik, ziodun ebazpenaren bidez balioetsiko du zigorraren betearazpena ete-

ción de la pena, atendidas las circunstancias del hecho y del autor.

3. La suspensión de la ejecución de la pena quedará siempre condicionada a que el reo no delinca en el período que se señale, que será de tres a cinco años.

4. En el caso de que el condenado se halle sometido a tratamiento de deshabituación, también se condicionará la suspensión de la ejecución de la pena a que no abandone el tratamiento hasta su finalización. Los centros o servicios responsables del tratamiento estarán obligados a facilitar al Juez o Tribunal sentenciador, en los plazos que señale, la información precisa para comprobar el comienzo de aquél, así como para conocer periódicamente su evolución, las modificaciones que haya de experimentar así como su finalización.

5. El Juez o Tribunal revocará la suspensión de la ejecución de la pena si el penado incumpliere cualquiera de las condiciones establecidas.

Transcurrido el plazo de suspensión sin haber delinquido el sujeto, el Juez o Tribunal acordará la remisión de la pena si se ha acreditado la deshabituación o la continuidad del tratamiento del reo. De lo contrario, ordenará su cumplimiento, salvo que, oídos los informes correspondientes, estime necesaria la continuación del tratamiento; en tal caso podrá conceder razonadamente una prórroga del plazo de suspensión por tiempo no superior a dos años.

teak dakarren onura ematea egokia denentz.

3. Zigorraren betearazpena eteteko baldintza da beti errudunak deliturik ez egitea adierazten den epealdian. Epealdi hori hiru urtetik bost artekoa izango da.

4. Kondenatua bere mendekotasuna gainditzeko sendabidean dagoenean, zigorraren betearazpena eteteko beste baldintza bat izango da sendabidea amaitu arte ez uztea. Sendabidearen arduradunak diren zentro edo zerbitzuek beharrezko informazioa eman behar diote epaile edo auzitegi epaiemaileari. Informazioa epaile edo auzitegi horrek zehazturiko epeetan eman behar da, sendabidea noiz hasten den egiaztatzeko, eta sendabideak aldian-aldian duen bilakaera, jasan behar dituen aldarazpenak eta beraren amaiera jakiteko.

5. Epaile edo auzitegiak zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatuko du, zigortuak betetzen ez badu ezarritako baldintzetatik edozein.

Behin etendura-epea amaituta, subjektuak deliturik egin gabe, epaile edo auzitegiak zigorra kentzea erabakiko du, baldin eta egiaztatzen bada errudunak mendekotasuna gainditu duela edo sendabidean dirauela. Osterantzean, epaile edo auzitegiak zigorra betetzeko aginduko du, txostenak entzun eta gero, sendabidean irautea beharrezkoa dela uste duenean izan ezik. Kasu horretan, arrazoiak emanez, etendura-epea luza dezake bi urte baino gehiago iraun ezin duen denboran.

SECCIÓN II

De la sustitución de las penas privativas de libertad

Artículo 88

1. Los Jueces o Tribunales podrán sustituir, previa audiencia de las partes, en la misma sentencia, o posteriormente en auto motivado, antes de dar inicio a su ejecución, las penas de prisión que no excedan de un año por arresto de fin de semana o multa, aunque la Ley no prevea estas penas para el delito de que se trate, cuando las circunstancias personales del reo, la naturaleza del hecho, su conducta y, en particular, el esfuerzo para reparar el daño causado así lo aconsejen, siempre que no se trate de reos habituales. Cada semana de prisión será sustituida por dos arrestos de fin de semana; y cada día de prisión será sustituido por dos cuotas de multa. En estos casos el Juez o Tribunal podrá además imponer al penado la observancia de una o varias de las obligaciones o deberes previstos en el artículo 83 de este Código.

Excepcionalmente podrán los Jueces o Tribunales sustituir las penas de prisión que no excedan de dos años a los reos no habituales cuando de las circunstancias del hecho y del culpable se infiera que el cumplimiento de aquéllas habría de frustrar sus fines de prevención y reinserción social. En estos casos, la sustitución se llevará a cabo con los mismos requisitos y en los mismos términos y módulos de conversión establecidos en el párrafo anterior.

II. ATALA

Zigor askatasun-gabetzaileak ordeztea

88. artikulua

1. Epaile edo auzitegiek, alderdiei entzunaldia eman eta gero, urtebete baino gehiago ez dirauten espetxealdi-zigorren ordez asteburuko atzipenaldia edo isuna ezarri ahal izango dute, nahiz eta legeak deliturako zigor horiek ezarri ez, baldin eta horretara eragiten badute errudunaren beraren inguruabarrek, egitatearen izaerak, errudunaren jokaerak eta, bereziki, eragindako kaltea konpontzeko errudunak egindako ahaleginak, betiere ohiko erruduna ez denean. Ordezpen hori epaian bertan edo geroagoko ziodun auto batean egin dezakete, zigorra betearazi aurretik. Espetxealdiko aste bakoitzaren ordez asteburuko bi atzipenaldi ezarriko dira, eta espetxealdiko egun bakoitzaren ordez isuneko bi kuota. Kasu horietan, epaile edo auzitegiak kode honen 83. artikuluan ezarritako betebehar edo eginbeharretatik bat edo batzuk betetzeko agindu ahal izango dio zigortuari.

Ohikoak ez diren errudunen kasuan, salbuespen gisa, epaile edo auzitegiek, ordeztu ahal izango dituzte bi urte baino gehiago ez dirauten espetxealdi-zigorrak, baldin eta egitatearen eta errudunaren inguruabarretatik antzematen bada zigorrak betetzeak beraiek dituzten aurrezaintzako eta gizartean birsartzeko helburuak zapuztuko dituela. Kasu horietan, ordezpena aurreko lerrokadan ezarritako betekizun berberekin eta bihurtze-modu eta -modulu berberen arabera egingo da.

2. También podrán los Jueces y Tribunales, previa conformidad del reo, sustituir las penas de arresto de fines de semana por multa o trabajos en beneficio de la comunidad. En este caso, cada arresto de fin de semana será sustituido por cuatro cuotas de multa o dos jornadas de trabajo.

3. En el supuesto de quebrantamiento o incumplimiento en todo o en parte de la pena sustitutiva, la pena de prisión o de arresto de fin de semana inicialmente impuesta se ejecutará descontando, en su caso, la parte de tiempo que se haya cumplido, de acuerdo con las reglas de conversión respectivamente establecidas en los apartados precedentes.

4. En ningún caso se podrán sustituir penas que sean sustitutivas de otras.

Artículo 89

1. Las penas privativas de libertad inferiores a seis años impuestas a un extranjero no residente legalmente en España podrán ser sustituidas por su expulsión del territorio nacional. Igualmente, los Jueces o Tribunales, a instancia del Ministerio Fiscal, podrán acordar la expulsión del territorio nacional del extranjero condenado a pena de prisión igual o superior a seis años, siempre que haya cumplido las tres cuartas partes de la condena. En ambos casos será necesario oír previamente al penado.

2. El extranjero no podrá regresar a España en un plazo de tres a diez años contados desde la fecha de su expulsión, atendida la duración de la pena

2. Halaber, epaile eta auzitegiek, erruduna ados egonez gero, asteburuko atzipenaldi-zigorren ordez, isuna edo gizartearentzako lanak ezarri ahal izango dituzte. Kasu horretan asteburuko atzipenaldi bakoitzaren ordez, isuneko lau kuota edo eguneko lansaio bi ezarriko dira.

3. Ordezko zigor osoa edo beraren zati bat urratu edo betetzen ez denean, hasieratik ezarritako espetxealdi-zigorra edo asteburuko atzipenaldi-zigorra betearaziko da eta, hala denean, bete den denbora kenduko da, aurreko paragrafoetan kasuan-kasuan ezarritako bihurtze-erregelen arabera.

4. Ezin izango dira inoiz ere ordeztu beste zigorren ordezkoak diren zigorrak.

89. artikulua

1. Espainian legez bizilekurik ez duen atzerritarra sei urte baino gutxiagorako askatasunaz gabetzen bada, zigor horren ordez, zigortua nazio-lurraldetik kanporatua izan daiteke. Era berean, epaile edo auzitegiek, Fiskaltzak hala eskaturik, sei urteko edo sei urte baino gehiagoko kondena duen atzerritarra nazio-lurraldetik kanporatzea erabaki dezakete, kondenaren hiru laurdenak bete baditu. Bi kasu horietan zigortuak esan beharrekoa entzun beharko da aurretik.

2. Atzerritarra, ezarritako zigorraren iraupena kontuan izanik, ezin izango da Espainiara itzuli hiru urtetik hamar arteko epean, kanporaketa egu-

impuesta. Si regresare antes de dicho término, cumplirá las penas que le hayan sido sustituidas.

3. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, el extranjero que intentara quebrantar una decisión judicial de expulsión con prohibición expresa de regresar al territorio español y fuese sorprendido en la frontera, será expulsado por la autoridad gubernativa.

4. Las disposiciones establecidas en los apartados anteriores no serán de aplicación a los extranjeros que hubieren sido condenados por la comisión de delitos a que se refieren los artículos 312, 318 bis, 515.6ª, 517 y 518 del Código Penal.

netik zenbatuta. Epe-muga hori amaitu baino lehenago itzultzen bada, ordeztu zaizkion zigorrak beteko ditu.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, gobernu-agintaritzak atzerritarra nazio-lurraldetik kanporatuko du, epaileak atzerritar hori kanporatzea erabaki duenean eta Espainiako lurraldera itzultzea beren beregi debekatu dionean, baldin eta atzerritar hori epailearen erabakia urratzen saiatzen bada eta mugan harrapatzen badute.

4. Aurreko paragrafoetan ezarritako xedapenak ez zaizkie atzerritarrei aplikatuko, baldin eta atzerritarrok kondenatuak izan badira, Zigor Kodearen 312, 318 bis, 515.6, 517 eta 518. artikuluetan aipatutako delituak egiteagatik.

SECCIÓN III

De la libertad condicional

Artículo 90

1. Se establece la libertad condicional en las penas privativas de libertad para aquellos sentenciados en quienes concurran las circunstancias siguientes:

1.ª Que se encuentren en el tercer grado de tratamiento penitenciario.

2.ª Que hayan extinguido las tres cuartas partes de la condena impuesta.

3.ª Que hayan observado buena conducta, y exista respecto de los mismos un pronóstico individualizado y favorable de reinserción social, emitido por los expertos que el Juez de Vigilancia estime convenientes.

III. ATALA

Baldintzapeko askatasuna

90. artikulua

1. Zigor askatasun-gabetzaileetan baldintzapeko askatasuna ezartzen da, hurrengo inguruabarrak biltzen dituzten epaituentzat:

1.) Espetxe-zaintzarako hirugarren graduan daudenentzat.

2.) Ezarritako kondenaren hiru laurdenak bete dituztenentzat.

3.) Jokabide ona eta gizartean birsartzeko euren aldeko iragarpen bakoiztua dutenentzat. Pronostiko hori zaintza-epaileak egokiesten dituen adituek emango dute.

2. El Juez de Vigilancia, al decretar la libertad condicional de los penados, podrá imponerles la observancia de una o varias de las reglas de conducta previstas en el artículo 105 del presente Código.

2. Zaintza-epaileak, baldintzapeko askatasuna dekretatzean, kode honen 105. artikuluko jokarau bat edo batzuk bete beharra ezar diezaieke zigortuei.

Artículo 91

Excepcionalmente, cumplidas las circunstancias 1.ª y 3.ª del apartado 1 del artículo anterior, el Juez de Vigilancia Penitenciaria podrá conceder la libertad condicional a los sentenciados a penas privativas de libertad que hayan extinguido las dos terceras partes de su condena, siempre que merezcan dicho beneficio por haber desarrollado continuadamente actividades laborales, culturales u ocupacionales.

91. artikulua

Salbuespen gisa, espetxe-zaintzarako epaileak askatasunaz gabetuak izan direnei baldintzapeko askatasuna eman ahal izango die, baldin eta, aurreko artikuluaren 1. paragrafoaren 1 eta 3. inguruabarrak eta kondenaren bi herenak bete dituztelarik, onura hori merezi badute, lan, kultura eta zereginetako jardueretan etengabe aritzeagatik.

Artículo 92

No obstante lo dispuesto en los artículos anteriores, los sentenciados que hubieran cumplido la edad de setenta años, o la cumplan durante la extinción de la condena, y reúnan los requisitos establecidos, excepto el haber extinguido las tres cuartas partes de aquélla, o, en su caso, las dos terceras podrán obtener la concesión de la libertad condicional.

El mismo criterio se aplicará cuando, según informe médico, se trate de enfermos muy graves, con padecimientos incurables.

92. artikulua

Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, epaituek, hirurogeita hamar urte bete dituztenean edo kondena betetzen ari direla hirurogeita hamar urte betetzen dituztenean, baldintzapeko askatasuna lortu ahal izango dute, nahiz eta kondenaren hiru laurdenak edo, hala badagokio, bi herenak bete ez, baldin eta beste betekizunak biltzen badituzte.

Irizpide bera aplikatuko da, medikuaren txostenaren arabera, oso larri dauden gaixoekin, sendaezinezko jasankizunak badituzte.

Artículo 93

El período de libertad condicional durará todo el tiempo que le falte al sujeto para cumplir su condena. Si en dicho período el reo delinquiere o

93. artikulua

Baldintzapeko askatasunaren epealdia izango da subjektuari kondena betetzeko gelditzen zaion denborakoa. Epealdi horretan errudunak delitu egi-

inobservare las reglas de conducta impuestas, el Juez de Vigilancia Penitenciaria revocará la libertad concedida, y el penado reingresará en prisión en el período o grado penitenciario que corresponda, sin perjuicio del cómputo del tiempo pasado en libertad condicional.

ten badu, edo ezarri zaizkion jokarauak betetzen ez baditu, orduan, espetxe-zaintzarako epaileak emandako askatasuna ezeztatuko du, eta zigortua berriro sartuko da espetxean, dagokion epealdirako edo espetxe-gradu egokian, baldintzapeko askatasunean igarotako denbora zenbatzeari kalterik egin gabe.

SECCIÓN IV
Disposiciones comunes

Artículo 94

A los efectos previstos en las secciones 1.ª y 2.ª de este capítulo se consideran reos habituales los que hubieren cometido tres o más delitos de los comprendidos en un mismo capítulo, en un plazo no superior a cinco años, y hayan sido condenados por ello.

IV. ATALA
Guztietarako xedapenak

94. artikulua

Kapitulu honen 1 eta 2. ataletan ezarritakoaren ondoreetarako, ohiko erruduntzat hartuko dira, kapitulu bereko hiru delitu edo gehiago egin dituztenak, bost urte arteko epean, baldin eta horren ondorioz kondena jaso badute.

TÍTULO IV
DE LAS MEDIDAS DE SEGURIDAD

CAPÍTULO I
De las medidas de seguridad en general

Artículo 95

1. Las medidas de seguridad se aplicarán por el Juez o Tribunal, previos los informes que estime convenientes, a las personas que se encuentren en los supuestos previstos en el capítulo siguiente de este Código, siempre que concurran estas circunstancias:

IV. TITULUA
SEGURTASUN-NEURRIAK

I. KAPITULUA
Segurtasun-neurriak orokorrean

95. artikulua

1. Epaile edo auzitegiak, egokitzat hartzen dituen txostenak eskatu eta gero, kode honen hurrengo kapituluko kasuetan dauden pertsonei segurtasun-neurriak ezarriko dizkie, baldin eta hurrengo inguruabarrak gertatzen badira:

1.ª Que el sujeto haya cometido un hecho previsto como delito.

2.ª Que del hecho y de las circunstancias personales del sujeto pueda deducirse un pronóstico de comportamiento futuro que revele la probabilidad de comisión de nuevos delitos.

2. Cuando la pena que hubiere podido imponerse por el delito cometido no fuere privativa de libertad, el Juez o Tribunal sentenciador sólo podrá acordar alguna o algunas de las medidas previstas en el artículo 105.

Artículo 96

1. Las medidas de seguridad que se pueden imponer con arreglo a este Código son privativas y no privativas de libertad.

2. Son medidas privativas de libertad:

1.ª El internamiento en centro psiquiátrico.

2.ª El internamiento en centro de deshabituación.

3.ª El internamiento en centro educativo especial.

3. Son medidas no privativas de libertad:

1.ª La prohibición de estancia y residencia en determinados lugares.

2.ª La privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores.

3.ª La privación de licencia o del permiso de armas.

4.ª La inhabilitación profesional.

5.ª La expulsión del territorio nacional, de extranjeros no residentes legalmente en España.

1.) Subjektuak, delitu gisa ezarritako egitatea gauzatu izana.

2.) Egitateak eta subjektuaren beraren inguruabarrek ondorioztatu ahal izatea etorkizunean subjektuak delitu berriak egin ditzakeela erakusten duen jokabide-iragarpena.

2. Egindako delituaren ondorioz ezar zitekeen zigorra, zigor askatasun-gabetzailea ez denean, 105. artikuluko neurrietatik bat edo batzuk bakarrik ezarri ahal izango ditu epaile edo auzitegi epai-emaileak.

96. artikulua

1. Kode honen arabera ezar daitezkeen segurtasun-neurriak askatasunaz gabetzen dutenak eta ez dutenak dira.

2. Neurri askatasun-gabetzaileak honako hauek dira:

1.) Pertsona zentro psikiatriko batean barneratzea.

2.) Pertsona mendekotasuna gainditzeko zentroan barneratzea.

3.) Pertsona heziketa bereziko zentroan barneratzea.

3. Askatasunaz gabetzen ez duten neurriak honako hauek dira:

1.) Leku jakin batzuetan egoteko eta bizilekua izateko debekua.

2.) Ibilgailu motordunak eta motorbizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzea.

3.) Armen lizentzia edo baimenaz gabetzea.

4.) Lanbiderako desgaikuntza.

5.) Legez Espainian bizilekurik ez duten atzerritarrak nazio-lurraldetik kanporatzea.

6.ª Las demás previstas en el artículo 105 de este Código.

Artículo 97

Durante la ejecución de la sentencia, el Juez o Tribunal sentenciador podrá, mediante un procedimiento contradictorio, previa propuesta del Juez de Vigilancia Penitenciaria:

a) Decretar el cese de cualquier medida de seguridad impuesta en cuanto desaparezca la peligrosidad criminal del sujeto.

b) Sustituir una medida de seguridad por otra que estime más adecuada, entre las previstas para el supuesto de que se trate. En el caso de que fuera acordada la sustitución y el sujeto evolucionara desfavorablemente, se dejará tal medida sin efecto.

c) Dejar en suspenso la ejecución de la medida en atención al resultado ya obtenido con su aplicación, por un plazo no superior al que reste hasta el máximo señalado en la sentencia que lo impuso. La suspensión quedará condicionada a que el sujeto no delinca durante el plazo fijado, y podrá dejarse sin efecto si nuevamente resultara acreditada cualquiera de las circunstancias previstas en el artículo 95 de este Código.

A estos efectos el Juez de Vigilancia Penitenciaria estará obligado a elevar al menos anualmente una propuesta de mantenimiento, cese, sustitución o suspensión de la medida de seguridad privativa de libertad impuesta.

6.) Kode honen 105. artikuluan ezartzen diren gainerako neurriak.

97. artikulua

Epaia betearazten den bitartean, epaile edo auzitegi epai-emaileak, alderdien aurkakotasuneko prozeduraren bidez, eta espetxe-zaintzarako epaileak proposatu eta gero, hurrengoa egin ahal izango du:

a) Ezarritako segurtasun-neurrietatik edozein buka dadin dekretatzea, subjektuaren arriskutsutasun kriminala desagertu bezain laster.

b) Segurtasun-neurriaren ordez, kasuari ezar dakizkiokeen segurtasun-neurrien artean, egokiagotzat hartzen duen beste bat jartzea. Segurtasun-neurria ordeztea erabakitzen bada eta subjektuak txarrera egiten badu, segurtasun-neurri hori ondorerik gabe utzi beharko da.

c) Segurtasun-neurria ezartzeagatik lortutako emaitza kontuan izanik, neurriaren betearazpena etetea. Etete hori ezin da izan epaiak ezarritako gehieneko epea betetzeko falta den epea baino luzeagoa. Etendura ezarritako epearen barnean subjektuak deliturik ez egitera baldintzatuko da, eta ondore barik utzi ahal izango da, baldin eta kode honen 95. artikuluan ezarritako inguruabarretatik edozein berriro egiaztatzen bada.

Ondore horietarako, espetxe-zaintzarako epaileak aurkeztu beharko du, gutxienez urtean behin, ezarritako segurtasun-neurri askatasun-gabetzaileari eusteko proposamena edo segurtasun-neurri hori bukatu, ordeztu edo eteteko proposamena.

Artículo 98

Para formular la propuesta a que se refiere el artículo anterior el Juez de Vigilancia Penitenciaria deberá valorar los informes emitidos por los facultativos y profesionales que asistan al sometido a medida de seguridad, y, en su caso, el resultado de las demás actuaciones que a este fin ordene.

98. artikulua

Segurtasun-neurriaren menpekoari laguntza ematen dioten aditu eta profesionalen txostenak dira espetxe-zaintzarako epaileak balioetsi beharko dituenak aurreko artikuluaren proposamena egiteko; bai eta, hala denean, horretarako agintzen duen jardunaren emaitza ere.

Artículo 99

En el caso de concurrencia de penas y medidas de seguridad privativas de libertad, el Juez o Tribunal ordenará el cumplimiento de la medida, que se abonará para el de la pena. Una vez alzada la medida de seguridad, el Juez o Tribunal podrá, si con la ejecución de la pena se pusieran en peligro los efectos conseguidos a través de aquélla, suspender el cumplimiento del resto de la pena por un plazo no superior a la duración de la misma, o aplicar alguna de las medidas previstas en el artículo 105.

99. artikulua

Askatasunaz gabetzen duten zigor eta segurtasun-neurriak elkarrekin pilatzen direnean, epaile edo auzitegiak segurtasun-neurria betetzeko aginduko du. Horrela, subjektua segurtasun-neurria betetzen egon den denbora zigorra betetzeko denboratik kenduko da. Segurtasun-neurria bukatu eta gero, horren bidez lorturiko ondoreak zigorraren betearazpenak arriskuan jartzen baditu, epaile edo auzitegiak zigorra betetzeko falta den denbora eten ahal izango du zigorraren iraupena baino luzeagoa ez den eperako, edo 105. artikuluko neurrietatik bat ezarri.

Artículo 100

1. El quebrantamiento de una medida de seguridad de internamiento dará lugar al reingreso del sujeto en el mismo centro del que se hubiese evadido o en otro que corresponda a su estado, sin perjuicio de deducir testimonio por el quebrantamiento de la medida en los casos de los sometidos a ella en virtud del artículo 104 de este Código.

2. Si se tratare de otras medidas, el Juez o Tribunal podrá acordar la sustitución de la quebrantada por la de

100. artikulua

1. Barnealdiko segurtasun-neurria urratzeak ekarriko du, ihes egin duen subjektua zentro berean edo beraren egoerari dagokion zentroan berriro sartzea; horrek ez dio kalterik egingo, hauste horri buruz, lekukotza egiteari, kode honen 104. artikuluaren ondorioz segurtasun-neurriaren menpe daudenen kasuan.

2. Segurtasun-neurriak bestelakoak badira, epaile edo auzitegiak erabaki ahal izango du urratutako segurtasun-

internamiento si ésta estuviese prevista para el supuesto de que se trate y si el quebrantamiento demostrase su necesidad.

neurriaren ordez barnealdiko segurtasun-neurria ezartzea, baldin eta barnealdiko segurtasun-neurria kasu horretarako ezarrita badago, eta hausteak segurtasun-neurri horren premia erakusten badu.

CAPÍTULO II

De la aplicación de las medidas de seguridad

SECCIÓN I

Artículo 137

Las anotaciones de las medidas de seguridad impuestas conforme a lo dis-

2.) Epe hauek igarotzea, errudunak berriro deliturik egin barik: sei hilabete, zigor arinen kasuan; bi urte, hamabi hilabete baino luzeagoak ez diren zigorren kasuan eta zuhurtziagabekeriazko delituengatik ezarritako zigorren kasuan; hiru urte, hain astunak ez diren zigorren kasuan; eta bost urte, zigor astunen kasuan.

3. Epe horiek zigorra azkentzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko dira, baldintzapeko kondena ezeztatzen den kasua horren barne delarik.

4. Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiaren ataletako zigor-aurrekarien inskripzioak ez dira publikoak izango. Inskripzioak indarrean dauden bitartean, ziurtagiriak emango dira erregistroaren arau bereziek ezarritako muga eta bermeekin eta legeak ezarritako kasuetan bakarrik. Edozein kasutan, epaile edo auzitegiek eskatutako ziurtagiriak emango dira, ezereztutako edota ezereztu gabeko inskripzioei buruzkoak badira ere, baina ezereztutako inskripzioa denean inguruabar hori beren beregi agertaraziko da.

5. Interesdunak eskaturik nahiz Justizia eta Barne Arazoetako Ministerioak ofizioz, aurrekariak ezerezteko artikulu honetan ezartzen diren betekizunak gertatzen direnean, ezereztea, ordea, gertatu ez bada, epaile edo auzitegiak aurrekariok ezerezteko aginduko du, inguruabar horiek egiaztatu eta gero, eta ez ditu aurrekari horiek kontuan hartuko.

137. artikulua

Kode honetan edo beste zigor-lege batzuetan xedatutakoaren arabera eza-

puesto en este Código o en otras leyes penales serán canceladas una vez cumplida o prescrita la respectiva medida; mientras tanto, sólo figurarán en las certificaciones que el Registro expida con destino a Jueces o Tribunales o autoridades administrativas, en los casos establecidos por la Ley.

rritako segurtasun-neurrien idatzoharrak ezereztuko dira segurtasun-neurri bakoitza betetzen edo preskripzioa gertatzen denean; bitartean, legeak ezarritako kasuetan, Erregistroak epaile, auzitegi edo Administrazioko agintariei luzatzen dizkien ziurtagirietan bakarrik agertuko dira idatzoharrok.

LIBRO II
DELITOS Y SUS PENAS

II. LIBURUA
DELITUAK ETA HORIEI DAGOZKIEN ZIGORRAK

TÍTULO I
DEL HOMICIDIO Y SUS FORMAS

Artículo 138

El que matare a otro será castigado, como reo de homicidio, con la pena de prisión de diez a quince años.

Artículo 139

Será castigado con la pena de prisión de quince a veinte años, como reo de asesinato, el que matare a otro concurriendo alguna de las circunstancias siguientes:

1.ª Con alevosía.

2.ª Por precio, recompensa o promesa.

3.ª Con ensañamiento, aumentando deliberada e inhumanamente el dolor del ofendido.

Artículo 140

Cuando en un asesinato concurran más de una de las circunstancias previstas en el artículo anterior, se impondrá la pena de prisión de veinte a veinticinco años.

Artículo 141

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos previstos en los tres artículos precedentes, será castigada con la pena inferior en uno o dos grados a la señalada en su caso en los artículos anteriores.

I. TITULUA
GIZA HILKETA ETA GIZA HILKETAREN FORMAK

138. artikulua

Norbaitek beste bat hiltzen badu, giza hilketaren errudun gisa, hamar urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

139. artikulua

Hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio beste bat hiltzen duenari, erailketaren errudun gisa, baldin eta hurrengo inguruabarretatik bat gertatzen bada:

1.) Maltzurkeria.

2.) Prezioa, saria edo hitzematea.

3.) Ankerkeriaren bidez ofendituaren mina nahita eta bihotz-gogorrez handitzea.

140. artikulua

Erailketa batean aurreko artikuluan ezarri inguruabarretatik bat baino gehiago gertatzen denean, hogei urtetik hogeita bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

141. artikulua

Aurreko hiru artikuluetako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

Artículo 142

1. El que por imprudencia grave causare la muerte de otro, será castigado, como reo de homicidio imprudente, con la pena de prisión de uno a cuatro años.

2. Cuando el homicidio imprudente sea cometido utilizando un vehículo a motor, un ciclomotor o un arma de fuego, se impondrá asimismo, y respectivamente, la pena de privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores o la privación del derecho a la tenencia y porte de armas, de uno a seis años.

3. Cuando el homicidio fuere cometido por imprudencia profesional se impondrá además la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión, oficio o cargo por un período de tres a seis años.

Artículo 143

1. El que induzca al suicidio de otro será castigado con la pena de prisión de cuatro a ocho años.

2. Se impondrá la pena de prisión de dos a cinco años al que coopere con actos necesarios al suicidio de una persona.

3. Será castigado con la pena de prisión de seis a diez años si la cooperación llegara hasta el punto de ejecutar la muerte.

4. El que causare o cooperare activamente con actos necesarios y directos a la muerte de otro, por la petición expresa, seria e inequívoca de éste, en

142. artikulua

1. Norbaitek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, beste baten heriotza eragiten badu, zuhurtziagabekeriazko giza hilketaren errudun gisa urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Zuhurtziagabekeriazko giza hilketa ibilgailu motordun, motor-bizikleta edo su-arma erabiliz egiten denean, kasuan-kasuan, ibilgailu motordun eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz edo su-armak edukitzeko edo eramateko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarriko da, urtebetetik sei artekoa.

3. Horrezaz gain, giza hilketa lanbide-zuhurtziagabekeriaren ondorioz egiten denean, lanbide, ogibide edo karguan aritzeko desgaikuntza bereziko zigorra ezarriko da, hiru urtetik sei artekoa.

143. artikulua

1. Norbaitek inor bere buruaz beste egitera induzitzen badu, lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio pertsona batek bere buruaz beste egiteko beharrezko egintzekin laguntzen duenari.

3. Sei urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio pertsona baten heriotza eragin arte laguntzen duenari.

4. Norbaitek beste baten heriotza eragiten badu edo beste hori hil dadin beharrezkoak eta zuzenekoak diren egintzekin modu aktiboan laguntzen badu, eta

el caso de que la víctima sufriera una enfermedad grave que conduciría necesariamente a su muerte, o que produjera graves padecimientos permanentes y difíciles de soportar, será castigado con la pena inferior en uno o dos grados a las señaladas en los números 2 y 3 de este artículo.

biktimak beren beregi, benaz eta zalantzarik gabe hiltzeko laguntza eskatu badio, heriotza eragingo dion gaixotasun larria duelako edo gaixotasun larriaren ondorioz pairamen etengabe eta jasanezinak dituelako, orduan, pertsona horri artikulu honen 2 eta 3. paragrafoetan ezarritako zigorrak baino gradu bat edo bi gutxiagokoak ezarriko zaizkio.

TÍTULO II
DEL ABORTO *

Artículo 144

El que produzca el aborto de una mujer, sin su consentimiento, será castigado con la pena de prisión de cuatro a ocho años e inhabilitación especial para ejercer cualquier profesión sanitaria, o para prestar servicios de toda índole en clínicas, establecimientos o consultorios ginecológicos, públicos o privados, por tiempo de tres a diez años.

Las mismas penas se impondrán al que practique el aborto habiendo obtenido la anuencia de la mujer mediante violencia, amenaza o engaño.

Artículo 145

1. El que produzca el aborto de una mujer, con su consentimiento, fuera de los casos permitidos por la ley, será castigado con la pena de prisión de uno a tres años e inhabilitación especial para

* Veáse en el anexo el artículo 417 bis, así como la disposición derogatoria única del presente Código Penal.

II. TITULUA
ABORTUA *

144. artikulua

Norbaitek andrazko bati, beraren adostasunik gabe, abortua eragiten badio, lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik hamar artekoa, osasun-lanbideetatik edozeinetan aritzeko, edo ginekologiako klinika, gaixotegi edo kontsulta publiko edo pribatuetan mota guztietako zerbitzuak eskaintzeko.

Zigor berberak ezarriko zaizkio abortua andrazkoaren adostasunarekin egiten duenari, adostasuna indarkeria, mehatxu edo engainuaren bidez lortu badu.

145. artikulua

1. Norbaitek andrazko bati, beraren adostasunarekin eta legeak onartzen dituen kasuetatik kanpo, abortua eragiten badio, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta

* Ikus, eranskinean, 417bis artikulua, eta Zigor Kode honen xedapen indargabetzaile bakarra.

ejercer cualquier profesión sanitaria, o para prestar servicios de toda índole en clínicas, establecimientos o consultorios ginecológicos, públicos o privados, por tiempo de uno a seis años.

2. La mujer que produjere su aborto o consintiere que otra persona se lo cause, fuera de los casos permitidos por la ley, será castigada con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de seis a veinticuatro meses.

Artículo 146

El que por imprudencia grave ocasionare un aborto será castigado con pena de arresto de doce a veinticuatro fines de semana.

Cuando el aborto fuere cometido por imprudencia profesional se impondrá asimismo la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión, oficio o cargo por un período de uno a tres años.

La embarazada no será penada a tenor de este precepto.

desgaikuntza berezia ere, urtebetetik sei artekoa, osasun-lanbideetatik edozeinetan aritzeko, edo ginekologiako klinika, gaixotegi edo kontsulta publiko edo pribatuetan mota guztietako zerbitzuak eskaintzeko.

2. Andrazkoak, legeak onartzen dituen kasuetatik kanpo, bere buruari abortua eragiten badio, edo abortua beste pertsona batek eragitea onartzen badu, sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

146. artikulua

Norbaitek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz abortua eragiten badu, hamabi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldi-zigorra ezarriko zaio.

Era berean, abortua lanbide-zuhurtziagabekeriaren ondorioz eragiten denean, lanbide, ogibide edo karguan aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko da, urtebetetik hiru artekoa.

Haurdunari ez zaio zigorrik ezarriko manu honen arabera.

TÍTULO III
DE LAS LESIONES

Artículo 147

1. El que, por cualquier medio o procedimiento, causare a otro una lesión que menoscabe su integridad corporal o su salud física o mental, será castigado como reo del delito de lesiones con la pena de prisión de seis meses a tres años,

III. TITULUA
LESIOAK

147. artikulua

1. Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, beste bati lesioa eragiten badio, gorputz-osotasunean, osasun fisikoan edo buru-osasunean kalte eginez, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra

siempre que la lesión requiera objetivamente para su sanidad, además de una primera asistencia facultativa, tratamiento médico o quirúrgico. La simple vigilancia o seguimiento facultativo del curso de la lesión no se considerará tratamiento médico.

2. No obstante, el hecho descrito en el apartado anterior será castigado con la pena de arresto de siete a veinticuatro fines de semana o multa de tres a doce meses, cuando sea de menor gravedad, atendidos el medio empleado o el resultado producido.

Artículo 148

Las lesiones previstas en el apartado 1 del artículo anterior podrán ser castigadas con la pena de prisión de dos a cinco años, atendiendo al resultado causado o riesgo producido:

1.º Si en la agresión se hubieren utilizado armas, instrumentos, objetos, medios, métodos o formas concretamente peligrosas para la vida o salud, física o psíquica, del lesionado.

2.º Si hubiere mediado ensañamiento.

3.º Si la víctima fuere menor de doce años o incapaz.

Artículo 149

El que causare a otro, por cualquier medio o procedimiento, la pérdida o la inutilidad de un órgano o miembro principal, o de un sentido, la impotencia, la esterilidad, una grave deformidad, o una grave enfermedad somática o psíquica, será castigado con la pena de prisión de seis a doce años.

ezarriko zaio, lesio-delituaren errudun gisa, baldin eta lesio hori objektiboki sendatzeko, medikuntza-sendabidea edo sendabide kirurgikoa behar badu, adituen lehenengo laguntzaz gain. Adituak lesioaren inguruan egiten duen zaintza edo jarraipen hutsa ez da medikuntza-sendabidetzat hartuko.

2. Dena den, aurreko paragrafoan azaldutako egitatea zazpi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldiarekin edo hiru hilabetetik hamabi arteko isunarekin zigortuko da, baldin eta larritasun txikiagokoa bada, erabilitako bidea edo sorturiko emaitza kontuan izanik.

148. artikulua

Aurreko artikuluaren 1. paragrafoan ezarritako lesioak bi urtetik bost arteko zigortu daitezke, eragiten duten emaitza edo sortzen duten arriskua kontuan izanik:

1.) Lesionatuaren bizitzarako edo beraren osasun fisiko edo psikikorako zehazki arriskutsuak diren arma, tresna, gauza, bide, metodo edo erak erabili badira erasoan.

2.) Ankerkeria badago.

3.) Biktimak hamabi urte baino gutxiago baditu, edo gai ez bada.

149. artikulua

Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, beste bati eragiten badio organo nahiz gorputz-adar nagusi edo zentzumen baten galera nahiz gauzaeza, edo inpotentzia, antzutasuna, itxuragabetasun larria, edo gaixotasun psikiko edo somatiko larria, orduan, pertsona horri sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Artículo 150

El que causare a otro la pérdida o la inutilidad de un órgano o miembro no principal, o la deformidad, será castigado con la pena de prisión de tres a seis años.

150. artikulua

Norbaitek beste bati eragiten badio nagusi ez den organo edo gorputz-adar baten galera edo gauzaeza nahiz itxuragabetasuna, orduan, pertsona horri hiru urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Artículo 151

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos previstos en los artículos precedentes de este Título, será castigada con la pena inferior en uno o dos grados a la del delito correspondiente.

151. artikulua

Titulu honen aurreko artikuluetan ezarritako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

Artículo 152

1. El que por imprudencia grave causare alguna de las lesiones previstas en los artículos anteriores será castigado:

1.º Con la pena de arresto de siete a veinticuatro fines de semana si se tratare de las lesiones del artículo 147.1.

2.º Con la pena de prisión de uno a tres años si se tratare de las lesiones del artículo 149.

3.º Con la pena de prisión de seis meses a dos años si se tratare de las lesiones del artículo 150.

2. Cuando los hechos referidos en este artículo se hayan cometido utilizando un vehículo a motor, un ciclomotor o un arma de fuego, se impondrá asimismo, y respectivamente, la pena de privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores o del derecho a la tenencia y porte de armas por término de uno a tres años.

152. artikulua

1. Norbaitek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, aurreko artikuluetan ezarritako lesioetako bat eragiten badu, hurrengo zigorrak ezarriko zaizkio:

1.) Zazpi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldia, 147.1 artikuluko lesioen kasuan.

2.) Urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra, 149. artikuluko lesioen kasuan.

3.) Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra, 150. artikuluko lesioen kasuan.

2. Era berean, artikulu honetan aipatutako egitateak ibilgailu motordun, motor-bizikleta edo su-arma erabiliz gauzatzen direnean, urtebetetik hiru arteko epe-mugan, kasuan-kasuan, ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz, edo armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarriko da.

3. Cuando las lesiones fueren cometidas por imprudencia profesional se impondrá asimismo la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión, oficio o cargo por un período de uno a cuatro años.

3. Era berean, lesioak lanbide-zuhurtziagabekeriaren ondorioz gauzatzen direnean, lanbide, ogibide edo karguan aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko da, urtebetetik lau artekoa.

Artículo 153

El que habitualmente ejerza violencia física o psíquica sobre quien sea o haya sido su cónyuge o sobre persona que esté o haya estado ligada a él de forma estable por análoga relación de afectividad, o sobre los hijos propios o del cónyuge o conviviente, pupilos, ascendientes o incapaces que con él convivan o que se hallen sujetos a la potestad, tutela, curatela o guarda de hecho de uno u otro, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años, sin perjuicio de las penas que pudieran corresponder a los delitos o faltas en que se hubieran concretado los actos de violencia psíquica o física.

Para apreciar la habitualidad a que se refiere el párrafo anterior, se atenderá al número de actos de violencia que resulten acreditados, así como a la proximidad temporal de los mismos, con independencia de que dicha violencia se haya ejercido sobre la misma o diferentes víctimas de las comprendidas en este artículo, y de que los actos violentos hayan sido o no objeto de enjuiciamiento en procesos anteriores.

153. artikulua

Norbaitek ohikotasunez indarkeria fisiko edo psikikoa erabiltzen badu bere ezkontidearen edo bere ezkontidea izan denaren aurka edo antzeko maitasun-harremanen bidez era iraunkorrean lotuta dagoenaren edo egon denaren aurka, edo bere seme-alaben, ezkontidearen seme-alaben edo bizikidearen seme-alaben aurka, edo berarekin bizi diren tutoretzapeko, aurreko edo ezgaien aurka, edo beraren nahiz bizikidearen guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza edo egitezko zaintzaren menpe dauden tutoretzapeko, aurreko edo ezgaien aurka, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdizigorra ezarriko zaio; horrek ez dio kalterik egingo indarkeria psikiko edo fisikozko egintzen ondorioz gertatutako delitu edo faltei dagozkien zigorrak ezartzeari.

Aurreko lerrokadak aipatzen duen ohikotasuna aintzat hartzeko, egiaztatutako indarkeriazko egintzen kopurua eta egintza horien denborazko hurbiltasuna hartuko da kontuan, indarkeria hori artikulu honetara bildutako biktima beraren edo ezberdinen aurka egin bada ere, eta indarkeriazko egintzak aurretik egindako prozesuetan epaitu badira eta ez badira ere.

Artículo 154

Quienes riñeren entre sí, acometiéndose tumultuariamente, y utilizando medios o instrumentos que pongan en peligro la vida o integridad de las personas, serán castigados por su participación en la riña con la pena de prisión de seis meses a un año o multa superior a dos y hasta doce meses.

154. artikulua

Elkarri modu nahasian erasoka liskarretan aritzen direnei, liskarrean parte hartzeagatik, sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo bi hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie, baldin eta pertsonen bizia edo osotasuna arriskuan jartzen duten bideak edo tresnak erabiltzen badituzte.

Artículo 155

En los delitos de lesiones, si ha mediado el consentimiento válida, libre, espontánea y expresamente emitido del ofendido, se impondrá la pena inferior en uno o dos grados.

No será válido el consentimiento otorgado por un menor de edad o un incapaz.

155. artikulua

Lesio-delituetan, ofendituak adostasuna balio osoz, askatasunez, berez eta beren beregi ematen badu, gradu bat edo bitan txikiagoa den zigorra ezarriko da.

Ez da baliozkoa izango adingabe edo ezgaiak emandako adostasuna.

Artículo 156

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el consentimiento válida, libre, consciente y expresamente emitido exime de responsabilidad penal en los supuestos de trasplante de órganos efectuado con arreglo a lo dispuesto en la Ley, esterilizaciones y cirugía transexual realizadas por facultativo, salvo que el consentimiento se haya obtenido viciadamente, o mediante precio o recompensa, o el otorgante sea menor de edad o incapaz; en cuyo caso no será válido el prestado por éstos ni por sus representantes legales.

Sin embargo, no será punible la esterilización de persona incapacitada que adolezca de grave deficiencia psíquica cuando aquélla, tomándose como criterio rector el del mayor interés del

156. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, adostasuna ematen bada balio osoz, askatasunez, kontzientziaz eta beren beregi, erantzukizun penaletik salbuesten du, legearen arabera egindako organo-birlandaketetan eta adituek egindako antzutzeko eta sexualdaketako kirurgiako ebakuntzetan, salbu eta adostasuna akatsen bidez edo prezio nahiz sariaren bidez lortu denean, edo adostasuna eman duena adingabea edo ezgaia denean; kasu horretan, ez da baliozkoa izango adingabeak eta ezgaiak edo euren lege-ordezkariek emandako adostasuna.

Dena den, ez da zigortzekoa izango pertsona ezgaitua antzutzea, pertsona horrek urritasun psikiko larria badu, baldin eta, epaileak, ezgaiari komeni zaiona irizpide artezkari gisa harturik,

incapaz, haya sido autorizada por el Juez, bien en el mismo procedimiento de incapacitación, bien en un expediente de jurisdicción voluntaria, tramitado con posterioridad al mismo, a petición del representante legal del incapaz, oído el dictamen de dos especialistas, el Ministerio Fiscal y previa exploración del incapaz.

antzutze hori baimendu badu, bai ezgaikuntza prozeduran bertan, bai, ezgaiaren lege-ordezkariak eskaturik, ondoren borondatezko jurisdikzio-espedientearen izapideak egiten direnean, bi adituren irizpena eta Fiskaltzak esan beharrekoak entzun eta gero, ezgaia aurretiaz aztertuta.

TÍTULO IV
DE LAS LESIONES AL FETO

Artículo 157

El que, por cualquier medio o procedimiento, causare en un feto una lesión o enfermedad que perjudique gravemente su normal desarrollo, o provoque en el mismo una grave tara física o psíquica, será castigado con pena de prisión de uno a cuatro años e inhabilitación especial para ejercer cualquier profesión sanitaria, o para prestar servicios de toda índole en clínicas, establecimientos o consultorios ginecológicos, públicos o privados, por tiempo de dos a ocho años.

Artículo 158

El que, por imprudencia grave, cometiere los hechos descritos en el artículo anterior, será castigado con la pena de arresto de siete a veinticuatro fines de semana.

Cuando los hechos descritos en el artículo anterior fueren cometidos por

IV. TITULUA
FETUARI ERAGINDAKO LESIOAK

157. artikulua

Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, fetuari lesio edo gaixotasuna eragiten badio, eta lesio nahiz gaixotasun horrek fetuaren beraren ohiko garapenari kalte larria edo fetuari akats fisiko zein psikiko larria eragiten badio, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta desgaikuntza berezia ere, bi urtetik zortzi artekoa, osasun-lanbideetatik edozeinetan aritzeko, edo kliniketan, edo ginekologiako establezimendu edo kontsulta publiko edo pribatuetan mota guztietako zerbitzuak eskaintzeko.

158. artikulua

Norbaitek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, aurreko artikuluan azaldutako egitateak gauzatzen baditu, zazpi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldia ezarriko zaio.

Era berean, aurreko artikuluan azaldutako egitateak lanbide-zuhurtziaga-

imprudencia profesional se impondrá asimismo la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión, oficio o cargo por un período de seis meses a dos años.

La embarazada no será penada a tenor de este precepto.

bekeriaren ondorioz egiten direnean, lanbidean, ogibidean edo karguan aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko da sei hilabetetik bi urte artekoa.

Haurdunari ez zaio zigorrik ezarriko manu honen arabera.

TÍTULO V
DELITOS RELATIVOS A LA MANIPULACIÓN GENÉTICA

Artículo 159

1. Serán castigados con la pena de prisión de dos a seis años e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio de siete a diez años los que, con finalidad distinta a la eliminación o disminución de taras o enfermedades graves, manipulen genes humanos de manera que se altere el genotipo.

2. Si la alteración del genotipo fuere realizada por imprudencia grave, la pena será de multa de seis a quince meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio de uno a tres años.

Artículo 160

La utilización de la ingeniería genética para producir armas biológicas o exterminadoras de la especie humana será castigada con la pena de prisión de tres a siete años e inhabilitación especial para empleo o cargo público

V. TITULUA
MANIPULAZIO GENETIKOARI BURUZKO DELITUAK

159. artikulua

1. Bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, zazpi urtetik hamar artekoa, akats edo gaixotasun larriak kendu edo gutxitu ez beste edozein helbururekin giza geneak genotipoa aldatuz manipulatzen dituztenei.

2. Genotipoaren aldakuntza zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz egiten bada, sei hilabetetik hamabost arteko isuna ezarriko da eta enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru artekoa.

160. artikulua

Genetika-ingeniaritza erabiltzen bada arma biologikoak edo giza espeziea hiltzen dutenak ekoizteko, orduan, erabiltze hori zigortuko da hiru urtetik zazpi arteko espetxealdi-zigorrarekin eta enplegu edo kargu publiko, lanbide edo

profesión u oficio por tiempo de siete a diez años.

Artículo 161

1. Serán castigados con la pena de prisión de uno a cinco años e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio de seis a diez años quienes fecunden óvulos humanos con cualquier fin distinto a la procreación humana.

2. Con la misma pena se castigarán la creación de seres humanos idénticos por clonación u otros procedimientos dirigidos a la selección de la raza.

Artículo 162

1. Quien practicare reproducción asistida en una mujer, sin su consentimiento, será castigado con la pena de prisión de dos a seis años, e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio por tiempo de uno a cuatro años.

2. Para proceder por este delito será precisa denuncia de la persona agraviada o de su representante legal. Cuando aquélla sea menor de edad, incapaz, o una persona desvalida, también podrá denunciar el Ministerio Fiscal.

ogibidean aritzeko hiru urtetik zazpi arteko desgaikuntza bereziarekin.

161. artikulua

1. Urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, sei urtetik hamar artekoa, giza ugalketa ez beste edozein helbururekin giza obuluak ernaltzen dituztenei.

2. Zigor bera ezarriko da, gizaki berdinak egiten badira klonazioaren bidez edo arraza aukeratzeko bideratuta dauden bestelako prozeduren kasuan.

162. artikulua

1. Norbaitek andrazko bati, beraren adostasunik gabe, lagundutako ugalketa egiten badio, orduan, horri bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, urtebetetik lau artekoa.

2. Delitu honen prozedurari hasiera emateko beharrezkoa da laidotuaren edo beraren lege-ordezkariaren salaketa. Laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean, Fiskaltzak ere salaketa egin ahal izango du.

TÍTULO VI
DELITOS CONTRA LA LIBERTAD

CAPÍTULO I
De las detenciones ilegales y secuestros

Artículo 163

1. El particular que encerrare o detuviere a otro, privándole de su libertad, será castigado con la pena de prisión de cuatro a seis años.

2. Si el culpable diera libertad al encerrado o detenido dentro de los tres primeros días de su detención, sin haber logrado el objeto que se había propuesto, se impondrá la pena inferior en grado.

3. Se impondrá la pena de prisión de cinco a ocho años si el encierro o detención ha durado más de quince días.

4. El particular que, fuera de los casos permitidos por las leyes, aprehendiere a una persona para presentarla inmediatamente a la autoridad, será castigado con la pena de multa de tres a seis meses.

Artículo 164

El secuestro de una persona exigiendo alguna condición para ponerla en libertad, será castigado con la pena de prisión de seis a diez años. Si en el secuestro se hubiera dado la circunstancia del artículo 163.3, se impondrá la pena superior en grado, y la inferior en grado si se dieren las condiciones del artículo 163.2.

VI. TITULUA
ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Legearen aurkako atxiloketak eta bahiketak

163. artikulua

1. Norbanako batek beste bat giltzaperatu edo atxilotzen badu, askatasuna kenduta, lau urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Errudunak giltzaperatuari edo atxilotuari askatasuna ematen badio atxiloketaren lehenengo hiru egunetan, helburu gisa zuen objektua lortu barik, orduan, errudunari aurreko idatz-zatian ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

3. Bost urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, itxialdiak edo atxiloketak hamabost egun baino gehiago iraun badu.

4. Norbanakoak, legeak baimentzen dituen kasuetatik kanpo, pertsona bat harrapatzen badu agintaritzari berehala aurkezteko, orduan, norbanakoari hiru hilabetetik sei arteko isun-zigorra ezarriko zaio.

164. artikulua

Pertsona bat bahitu eta pertsona hori askatzeko baldintzetako bat galdatzea zigortuko da sei urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorrarekin. Bahiketan 163.3 artikuluaren inguruabarra gertatzen bada, gradu bat gehiagoko zigorra ezarriko da, eta 163.2 artikuluaren baldintzak gertatzen badira, gradu bat gutxiagoko zigorra.

Artículo 165

Las penas de los artículos anteriores se impondrán en su mitad superior, en los respectivos casos, si la detención ilegal o secuestro se ha ejecutado con simulación de autoridad o función pública, o la víctima fuere menor de edad o incapaz o funcionario público en el ejercicio de sus funciones.

165. artikulua

Aurreko artikuluetako zigorrak, kasuan-kasuan, goiko erdian ezarriko dira, baldin eta legearen aurkako atxiloketa edo bahiketa egiten bada, agintaritza edo funtzio publikoa dela itxura eginez, edo biktima adingabea edo ezgaia edo bere eginkizunak betetzen diharduen funtzionario publikoa bada.

Artículo 166

El reo de detención ilegal o secuestro que no dé razón del paradero de la persona detenida será castigado, según los casos, con las penas superiores en grado a las señaladas en los artículos anteriores de este capítulo, salvo que la haya dejado en libertad.

166. artikulua

Legearen aurkako atxiloketa edo bahiketaren errudunak ez badu esaten atxilotutako pertsona non dagoen, orduan, errudun horri, kasuan-kasuan, kapitulu honen aurreko artikuluetan ezarritako zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko zaizkio, askatu duenean izan ezik.

Artículo 167

La autoridad o funcionario público que, fuera de los casos permitidos por la Ley, y sin mediar causa por delito, cometiere alguno de los hechos descritos en los artículos anteriores será castigado con las penas respectivamente previstas en éstos, en su mitad superior y, además, con la de inhabilitación absoluta por tiempo de ocho a doce años.

167. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, legean baimentzen diren kasuetatik kanpo eta delituaren ondorioz auzirik egon gabe, aurreko artikuluetan azaldutako egitateetako bat gauzatzen badu, orduan, horri, artikuluotan ezarritako zigorrak goiko erdian ezartzeaz gain, erabateko desgaikuntza ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabi artekoa.

Artículo 168

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos previstos en este Capítulo se castigarán con la pena inferior en uno o dos grados a la señalada al delito de que se trate.

168. artikulua

Kapitulu honetan ezarritako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

CAPÍTULO II
De las amenazas

Artículo 169

El que amenazare a otro con causarle a él, a su familia o a otras personas con las que esté íntimamente vinculado un mal que constituya delitos de homicidio, lesiones, aborto, contra la libertad, torturas y contra la integridad moral, la libertad sexual, la intimidad, el honor, el patrimonio y el orden socioeconómico, será castigado:

1.º Con la pena de prisión de uno a cinco años, si se hubiere hecho la amenaza exigiendo una cantidad o imponiendo cualquier otra condición, aunque no sea ilícita, y el culpable hubiere conseguido su propósito. De no conseguirlo, se impondrá la pena de prisión de seis meses a tres años.

Las penas señaladas en el párrafo anterior se impondrán en su mitad superior si las amenazas se hicieren por escrito, por teléfono o por cualquier medio de comunicación o de reproducción, o en nombre de entidades o grupos reales o supuestos.

2.º Con la pena de prisión de seis meses a dos años, cuando la amenaza no haya sido condicional.

Artículo 170

1. Si las amenazas de un mal que constituyere delito fuesen dirigidas a atemorizar a los habitantes de una población, grupo étnico, cultural o reli-

II. KAPITULUA
Mehatxuak

169. artikulua

Norbaitek beste bati mehatxu egiten badio, berari, beraren familiari edo berari estu loturik dauden beste pertsona batzuei kalte egingo diela, eta kalte hori bada giza hilketa, lesio edo abortu delitua, askatasunaren aurkako delitua, tortura-delitua nahiz osotasun moralaren, sexu-askatasunaren, bizitza pribatuaren, ohorearen, ondarearen, eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delitua, orduan, mehatxatzaileari zigor hauek ezarriko zaizkio:

1.) Urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra, baldin eta, bere helburua lortu duelarik, mehatxua ez betetzeko kopuru bat galdatu badu edo beste edozein baldintza ezarri badu, baldintza zilegia bada ere. Helburua lortu ez duenean, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Aurreko paragrafoaren zigorrak goiko erdian ezarriko dira, baldin eta mehatxuak idatziz, telefonoz edo komunikatzeko nahiz kopiatzeko bideetatik edozein erabiliz, edo egiazko zein ustezko erakunde edo taldeen izenean egiten badira.

2.) Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra, mehatxua baldintzapekoa izan ez bada.

170. artikulua

1. Delitua den kaltearekin mehatxatzen bada, mehatxu horiek bideratuta badaude herri baten biztanleak, talde etnikoa edo kultura-, erlijio-, gizarte-

gioso, o colectivo social o profesional, o a cualquier otro grupo de personas y tuvieran la gravedad necesaria para conseguirlo, se impondrán, respectivamente, las penas superiores en grado a las previstas en el artículo anterior.

2. Serán castigados con la pena de arresto de siete a dieciocho fines de semana, o multa de seis a doce meses, los que, con la misma finalidad y gravedad, reclamen públicamente la comisión de acciones violentas por parte de bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas.

Artículo 171

1. Las amenazas de un mal que no constituya delito serán castigadas con pena de prisión de seis meses a dos años o multa de doce a veinticuatro meses, atendidas la gravedad y circunstancia del hecho, cuando la amenaza fuere condicional y la condición no consistiere en una conducta debida. Si el culpable hubiere conseguido su propósito se le impondrá la pena en su mitad superior.

2. Si alguien exigiere de otro una cantidad o recompensa bajo la amenaza de revelar o difundir hechos referentes a su vida privada o relaciones familiares que no sean públicamente conocidos y puedan afectar a su fama, crédito o interés, será castigado con la pena de prisión de dos a cuatro años, si ha conseguido la entrega de todo o parte de lo exigido, y con la de seis meses a dos años, si no lo consiguiere.

nahiz lanbide-taldea edo beste edozein pertsona-talde beldurtzera, eta mehatxu horiek beldurra sortarazteko behar besteko larritasuna badute, orduan, kasuan-kasuan, aurreko artikuluan ezarritako zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira.

2. Zazpi asteburutik hemezortzi arteko atzipenaldi-zigorra edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie, aurretik aipatu helburu eta larritasun berarekin, banda armatu, antolakunde edo talde terroristei indarkeriazko egintzak gauzatzea jendaurrean eskatzen dizkietenei.

171. artikulua

1. Delitua ez den kaltearekin mehatxatzea zigortuko da sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorrarekin edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isunarekin, egitatearen larritasuna eta inguruabarra kontuan harturik, mehatxua baldintzapekoa izan eta baldintza ez bada zor den jokabidea. Errudunak bere helburua lortu badu, aurreko zigorra goiko erdian ezarriko zaio.

2. Norbaitek beste bati diru kopuru bat edo sari bat galdatu badio, beraren bizitza pribatu edo familia-harremanei buruz agerikoak ez diren egitateak agertarazteko edo hedatzeko mehatxupean, eta egitate horiek mehatxatuaren ospea, izena edo interesa uki badezakete, mehatxatzaileari bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, baldin eta galdatutakoa oso-osoan edo zati batean jaso badu, edo sei hilabetetik bi urte artekoa, lortu ez badu.

3. Si el hecho descrito en el apartado anterior consistiere en la amenaza de revelar o denunciar la comisión de algún delito, el Ministerio Fiscal podrá, para facilitar el castigo de la amenaza, abstenerse de acusar por el delito con cuya revelación se hubiere amenazado, salvo que éste estuviere sancionado con pena de prisión superior a dos años. En este último caso, el Juez o Tribunal podrá rebajar la sanción en uno o dos grados.

3. Aurreko paragrafoan azaldutako egitatea delitu bat agertarazteko edo delitu bati buruzko salaketa egiteko mehatxua bada, Fiskaltzak, mehatxua errazago zigortzeko, mehatxuaren objektu den delituarengatik ez akusatzea erabaki dezake, salbu eta delitu horrek ezarrita duen zehapena bi urte baino gehiagoko espetxealdi-zigorra denean. Azken kasu horretan, epaile edo auzitegiak zehapenari gradu bat edo bi jaitsi ahal izango dizkio.

CAPÍTULO III
De las coacciones

Artículo 172

El que sin estar legítimamente autorizado impidiere a otro con violencia hacer lo que la Ley no prohibe, o le compeliere a efectuar lo que no quiere, sea justo o injusto, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años o con multa de seis a veinticuatro meses, según la gravedad de la coacción o de los medios empleados.

Cuando la coacción ejercida tuviera como objeto impedir el ejercicio de un derecho fundamental se impondrán las penas en su mitad superior, salvo que el hecho tuviera señalada mayor pena en otro precepto de este Código.

III. KAPITULUA
Derrigortzeak

172. artikulua

Norbaitek, bidezko baimenik gabe, beste bati, indarkeriaren bidez, legeak debekatzen ez duena egitea eragozten badio edo egin nahi ez duena egitera behartzen badu, zuzena izan zein ez, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, derrigortzearen edo erabilitako bideen larritasunaren arabera.

Egindako derrigortzea oinarrizko eskubide baten egikaritza eragoztean datzanean, orduan, zigorrak goiko erdian ezarriko dira, salbu eta egitateak zigor handiagoa duenean kode honen beste manu batean.

TÍTULO VII
DE LAS TORTURAS Y OTROS DELITOS CONTRA LA INTEGRIDAD MORAL

Artículo 173

El que infligiere a otra persona un trato degradante, menoscabando gravemente su integridad moral, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

Artículo 174

1. Comete tortura la autoridad o funcionario público que, abusando de su cargo, y con el fin de obtener una confesión o información de cualquier persona o de castigarla por cualquier hecho que haya cometido o se sospeche que ha cometido, la sometiere a condiciones o procedimientos que por su naturaleza, duración u otras circunstancias, le supongan sufrimientos físicos o mentales, la supresión o disminución de sus facultades de conocimiento, discernimiento o decisión, o que de cualquier otro modo atenten contra su integridad moral. El culpable de tortura será castigado con la pena de prisión de dos a seis años si el atentado fuera grave, y de prisión de uno a tres años si no lo es. Además de las penas señaladas se impondrá, en todo caso, la pena de inhabilitación absoluta de ocho a doce años.

2. En las mismas penas incurrirán, respectivamente, la autoridad o funcionario de instituciones penitenciarias o de centros de protección o corrección de

VII. TITULUA
TORTURAK ETA OSOTASUN MORALAREN AURKAKO BESTE DELITUAK

173. artikulua

Norbaitek beste pertsona bati, beraren osotasun moralari kalte larria eginez, tratu apalesgarria ematen badio, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

174. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak tortura egiten du, bere karguaz abusatuz, pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko helburuarekin edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik zigortzeko helburuarekin, pertsonari baldintzak edo prozedurak ezartzen dizkionean, beren izaera, iraupena edo bestelako inguruabarren ondorioz, gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragiten dizkiotenak, ezagutu, bereizi edo erabakitzeko ahalmenak ezabatu edo gutxitzen dizkiotenak, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egiten dutenak. Torturaren errudunari bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio atentatua larria bada; bestela, urtebetetik hiru artekoa. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, erabateko desgaikuntza-zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabi artekoa.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, hurrenez hurren, espetxeetako edo adingabeen babes-etxe nahiz zentzatokietako agintari edo funtzionarioari,

menores que cometiere, respecto de detenidos, internos o presos, los actos a que se refiere el apartado anterior.

Artículo 175

La autoridad o funcionario público que, abusando de su cargo y fuera de los casos comprendidos en el artículo anterior, atentare contra la integridad moral de una persona será castigado con la pena de prisión de dos a cuatro años si el atentado fuera grave, y de prisión de seis meses a dos años si no lo es. Se impondrá, en todo caso, al autor, además de las penas señaladas, la de inhabilitación especial para empleo o cargo público de dos a cuatro años.

Artículo 176

Se impondrán las penas respectivamente establecidas en los artículos precedentes a la autoridad o funcionario que, faltando a los deberes de su cargo, permitiere que otras personas ejecuten los hechos previstos en ellos.

Artículo 177

Si en los delitos descritos en los artículos precedentes, además del atentado a la integridad moral, se produjere lesión o daño a la vida, integridad física, salud, libertad sexual o bienes de la víctima o de un tercero, se castigarán los hechos separadamente con la pena que les corresponda por los delitos o faltas cometidos, excepto cuando aquél ya se halle especialmente castigado por la Ley.

aurreko paragrafoan azaldutako egitateak gauzatzen baditu atxilotu, barneratu edo presoen inguruan.

175. artikulua

Agintari edo funtzionarioak, bere karguaz abusatuz eta aurreko artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo, pertsona baten osotasun moralaren aurka atentatu egin badu, orduan, horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, atentatua larria bada, eta ez bada sei hilabetetik bi urte artekoa ezarriko zaio. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, egileari enplegu edo kargu publikoan aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko zaio, bi urtetik lau artekoa.

176. artikulua

Aurreko artikuluetako zigorrak ezarriko zaizkio, hurrenez hurren, agintari edo funtzionarioari, bere karguko eginbeharrak bete barik, beste pertsona batzuei bide ematen badie aurreko artikulu horietan ezarritako egitateak gauzatzeko.

177. artikulua

Aurreko artikuluetan azaldutako delituen kasuan, osotasun moralaren aurkako atentatuaz gain, biktimaren nahiz beste inoren bizitzan, osotasun fisikoan, osasunean, sexu-askatasunean nahiz ondasunetan lesio edo kaltea gertatzen bada, egitateok bananduta zigortuko dira egin diren delitu edo faltei dagokien zigorrarekin, salbu eta legeak atentatua beren beregi zigortzen duenean.

TÍTULO VIII
DELITOS CONTRA LA LIBERTAD E INDEMNIDAD SEXUALES

CAPÍTULO I
De las agresiones sexuales

Artículo 178

El que atentare contra la libertad sexual de otra persona, con violencia o intimidación, será castigado como responsable de agresión sexual con la pena de prisión de uno a cuatro años.

Artículo 179

Cuando la agresión sexual consista en acceso carnal por vía vaginal, anal o bucal, o introducción de objetos por alguna de las dos primeras vías, el responsable será castigado, como reo de violación, con la pena de prisión de seis a doce años.

Artículo 180

Las anteriores conductas serán castigadas con las penas de prisión de cuatro a diez años para las agresiones del artículo 178, y de doce a quince años para las del artículo 179, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

1.ª Cuando la violencia o intimidación ejercidas revistan un carácter particularmente degradante o vejatorio.

2.ª Cuando los hechos se cometan por la actuación conjunta de dos o más personas.

VIII. TITULUA
SEXU-ASKATASUN ETA -UKIGABETASUNAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Sexu-erasoak

178. artikulua

Norbaitek, indarkeriaz edo larderiaz, beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurka atentatu egiten badu, orduan, sexu-erasoaren erantzule gisa, urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

179. artikulua

Sexu-erasoa maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak sartzea denean, erantzuleari, bortxaketaren errudun gisa, sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

180. artikulua

Aurreko jokabideei lau urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie 178. artikuluko erasoak badira, eta hamabi urtetik hamabost artekoa 179. artikulukoak badira, inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

1.) Erabilitako indarkeria edo larderia bereziki apalesgarria edo isekagarria denean.

2.) Egitateak pertsona bik edo gehiagok taldean gauzatzen dituztenean.

3.ª Cuando la víctima sea especialmente vulnerable, por razón de su edad, enfermedad o situación, y, en todo caso, cuando sea menor de trece años.

4.ª Cuando, para la ejecución del delito, el responsable se haya prevalido de una relación de superioridad o parentesco, por ser ascendiente, descendiente o hermano, por naturaleza o adopción, o afines, con la víctima.

5.ª Cuando el autor haga uso de armas u otros medios igualmente peligrosos, susceptibles de producir la muerte o alguna de las lesiones previstas en los artículos 149 y 150 de este Código, sin perjuicio de la pena que pudiera corresponder por la muerte o lesiones causadas.

Si concurrieren dos o más de las anteriores circunstancias, las penas previstas en este artículo se impondrán en su mitad superior.

3.) Biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela eta, bereziki, pertsona ahula denean, eta, edozein kasutan, hamahiru urte baino gutxiago dituenean.

4.) Nagusitasun- edo senidetasun-harremanez baliatzen denean erantzulea delitu egiteko, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko, ondorengo edo neba-arreba izateagatik, edota ezkonsenidetasuna izateagatik.

5.) Egileak armak edo arrisku bereko bideak erabiltzen dituenean, heriotza edo 149 eta 150. artikuluetan ezarritako lesioetatik bat eragin dezaketenetarikoak, eragindako heriotza edo lesioengatik dagokion zigorrari kalterik egin gabe.

Aurreko inguruabarretako bi edo gehiago pilatzen badira, artikulu honetako zigorrak goiko erdian ezarriko dira.

CAPÍTULO II
De los abusos sexuales

Artículo 181

1. El que, sin violencia o intimidación y sin que medie consentimiento, realizare actos que atenten contra la libertad o indemnidad sexual de otra persona, será castigado como responsable de abuso sexual, con la pena de prisión de uno a tres años, o multa de dieciocho a veinticuatro meses.

2. A los efectos del apartado anterior, se consideran abusos sexuales no consentidos los que se ejecuten sobre

II. KAPITULUA
Sexu-abusuak

181. artikulua

1. Norbaitek, indarkeria, larderia eta adostasunik gabe, beste pertsona baten sexu-askatasun edo ukigabetasunaren aurka atentatu egiten duten egitateak gauzatzen baditu, sexu-abusuaren erantzule gisa, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra edo hemezortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, adostu gabeko sexu-abusutzat hartuko da hamahiru urte baino gutxiago

menores de trece años, sobre personas que se hayen privadas de sentido o de cuyo trastorno mental se abusare.

3. La misma pena se impondrá cuando el consentimiento se obtenga prevaliéndose el responsable de una situación de superioridad manifiesta que coarte la libertad de la víctima.

4. Las penas señaladas en este artículo se impondrán en su mitad superior si concurriere la circunstancia 3.ª o la 4.ª de las previstas en el apartado 1 del artículo 180 de este Código.

Artículo 182

1. En todos los casos del artículo anterior, cuando el abuso sexual consista en acceso carnal por vía vaginal, anal o bucal, o introducción de objetos por alguna de las dos primeras vías, el responsable será castigado con la pena de prisión de cuatro a diez años.

2. La pena señalada en el apartado anterior se impondrá en su mitad superior cuando concurra la circunstancia 3.ª o la 4.ª de las previstas en el artículo 180.1 de este Código.

Artículo 183

1. El que, interviniendo engaño, cometiere abuso sexual con persona mayor de trece años y menor de dieciséis, será castigado con la pena de prisión de uno a dos años, o multa de doce a veinticuatro meses.

2. Cuando el abuso consista en acceso carnal por vía vaginal, anal o bucal, o introducción de objetos por alguna de las dos primeras vías, la pena será de prisión de dos a seis años. La pena se impondrá

zuzentzen duena, artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatzen diren zorren inguruan, Zerga Administrazioak jakinarazi aurretik egiaztapen-jarduna hasiko duela, zuzendu behar diren zerga horiek zehazteko. Jardun hori gertatu ezean, pertsona hori erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da, baldin eta zerga-egoera zuzentzen badu, beraren aurka Fiskaltzak, estatuaren abokatuak edo autonomia erkidegoaren, foru aldundiaren edo tokiko administrazioaren ordezkari prozesalak kereila edo salaketa jarri aurretik, edota zerga-egoera zuzentzen badu Fiskaltzak edo instrukzioko epaileak jarduna egin aurretik, betiere jardunak ahalbideratzen dionean eginbideak hasi direla modu formalean jakitea.

Era berean, aurreko lerrokadan bezala, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da subjektu hori, zerga-egoera zuzendu aurretik egindako kontabilitateko irregulartasunengatik edo bestelako faltsutze instrumentalengatik, baldin eta horiek zuzenduko den zerga-zorraren ingurukoak baino ez badira.

Artículo 306

El que por acción u omisión defraude a los presupuestos generales de las Comunidades u otros administrados por éstas, en cuantía superior a cincuenta mil ecus, eludiendo el pago de cantidades que se deban ingresar, o dando a los fondos obtenidos una aplicación distinta de aquella a que estuvieren destinados, será castigado con

306. artikulua

Norbaitek, egitez edo ez-egitez, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrei edo Europako Erkidegoek administratzen dituzten beste aurrekontuei iruzur egiten badie, aurrekontuetan sartu behar diren kopuruei itzuri eginez, edo lortutako funtsak euren helbururako ez beste baterako erabiliz, betiere iruzur horren zenbatekoa berrogeita hamar

la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de la citada cuantía.

Artículo 307

1. El que, por acción u omisión, defraude a la Seguridad Social para eludir el pago de las cuotas de ésta y conceptos de recaudación conjunta, obtener indebidamente devoluciones de las mismas o disfrutar de deducciones por cualquier concepto asimismo de forma indebida y con ánimo fraudulento, siempre que la cuantía de las cuotas defraudadas o de las devoluciones o deducciones indebidas exceda de quince millones de pesetas será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de la citada cuantía.

Las penas señaladas en el párrafo anterior se aplicarán en su mitad superior cuando la defraudación se cometa concurriendo alguna de las circunstancias siguientes:

a) La utilización de persona o personas interpuestas de manera que quede oculta la identidad del verdadero obligado frente a la Seguridad Social.

b) La especial trascendencia y gravedad de la defraudación atendiendo al importe de lo defraudado o a la existencia de una estructura organizativa que afecte o pueda afectar a una pluralidad de obligados frente a la Seguridad Social.

2. A los efectos de determinar la cuantía mencionada en el apartado anterior, se estará a lo defraudado en

mila ecu baino gehiagokoa denean, orduan, pertsona horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, urtebetetik lau artekoa, bai eta isuna ere, berrogeita hamar mila ecutik horren sei halako artekoa.

307. artikulua

1. Norbaitek, egitez edo ez-egitez, Gizarte Segurantzari iruzur egiten badio horren kuoten eta baterako bilketa-kontzeptuen ordainketari itzuri egiteko, kuota horien itzulketak bidegabe lortzeko edota edozein kontzepturengatik kenkariak erdiesteko, bidegabe eta iruzur egiteko asmoz, betiere hamabost milioi baino gehiagokoa denean iruzurpeko kuoten edo bidegabeko itzulketen nahiz kenkarien zenbatekoa, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta zenbateko horretatik horren sei halako arteko isuna.

Aurreko lerrokadan adierazitako zigorrak goiko erdian ezarriko dira, iruzurra egiten denean inguruabar hauetako bat gertatzen delarik:

a) Gizarte Segurantzari begira, beste pertsona bat edo batzuk tartean jartzea, zergapekoa benetan nor den ezkutaturik geratzeko moduan.

b) Iruzurra garrantzi eta larritasun berezikoa izatea, kontuan izanik iruzurpeko zenbatekoa edo Gizarte Segurantzari begira betebeharpeko asko ukitzen dituen edo uki ditzakeen antolaketa-egitura.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa zehazteko, likidazio, itzulketa edo kenkari bakoitzean egin den

cada liquidación, devolución o deducción, refiriéndose al año natural el importe de lo defraudado cuando aquéllas correspondan a un período inferior a doce meses.

3. Quedará exento de responsabilidad penal el que regularice su situación ante la Seguridad Social, en relación con las deudas a que se refiere el apartado primero de este artículo, antes de que se le haya notificado la iniciación de actuaciones inspectoras dirigidas a la determinación de dichas deudas o, en caso de que tales actuaciones no se hubieran producido, antes de que el Ministerio Fiscal o el Letrado de la Seguridad Social interponga querella o denuncia contra aquél dirigida.

La exención de responsabilidad penal contemplada en el párrafo anterior alcanzará igualmente a dicho sujeto por las posibles falsedades instrumentales que, exclusivamente en relación a la deuda objeto de regularización, el mismo pudiera haber cometido con carácter previo a la regularización de su situación.

iruzurra hartuko da kontuan. Likidazio, itzulketa edo kenkari horien epealdia hamabi hilabete baino gutxiagokoa denean, iruzurraren zenbatekoa egutegiko urteari dagokio.

3. Erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da Gizarte Segurantzarekin egoera zuzentzen duena, artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatzen diren zorren inguruan, zorrok zehazteko ikuskapen-jardunaren hasierari buruzko jakinarazpena jaso aurretik, edo, halako jardunik gertatu ezean, beraren aurka Fiskaltzak edo Gizarte Segurantzaren legelariak kereila edo salaketa jarri aurretik.

Era berean, subjektu hori aurreko lerrokadan bezala, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da egoera zuzendu aurretik egindako faltsutze instrumentalengatik, baldin eta horiek zuzenduko den zorraren ingurukoak baino ez badira.

Artículo 308

1. El que obtenga una subvención, desgravación o ayuda de las Administraciones públicas de más de diez millones de pesetas falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de su importe.

308. artikulua

1. Norbaitek herri-administrazioetatik hamar milioi pezeta baino gehiagoko diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntza lortzen badu, hori eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak faltsutuz, edo hori eskuratzea eragozten duten baldintzak ezkutatuz, orduan, pertsona horri ezarriko zaio urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra, bai eta isuna ere, diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntzaren zenbatekotik horren sei halako artekoa.

2. Las mismas penas se impondrán al que en el desarrollo de una actividad subvencionada con fondos de las Administraciones públicas cuyo importe supere los diez millones de pesetas, incumpla las condiciones establecidas alterando sustancialmente los fines para los que la subvención fue concedida.

3. Además de las penas señaladas, se impondrá al responsable la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas y del derecho a gozar de beneficios o incentivos fiscales o de la Seguridad Social durante un período de tres a seis años.

4. Quedará exento de responsabilidad penal, en relación con las subvenciones, desgravaciones o ayudas a que se refieren los apartados primero y segundo de este artículo, el que reintegre las cantidades recibidas, incrementadas en un interés anual equivalente al interés legal del dinero aumentado en dos puntos porcentuales, desde el momento en que las percibió, antes de que se le haya notificado la iniciación de actuaciones de inspección o control en relación con dichas subvenciones, desgravaciones o ayudas o, en el caso de que tales actuaciones no se hubieran producido, antes de que el Ministerio Fiscal, el Abogado del Estado o el representante de la Administración autonómica o local de que se trate interponga querella o denuncia contra aquél dirigida.

La exención de responsabilidad penal contemplada en el párrafo anterior alcanzará igualmente a dicho sujeto por

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio ezarritako baldintzak betetzen ez dituenari, baldin eta, jarduera garatzean, berak funtsez aldatzen baditu diru-laguntzaren oinarri izan ziren helburuak, betiere garatutako jarduerak jaso duenean herri-administrazioen funtsetako diru-laguntza, eta diru-laguntzaren zenbatekoa hamar milioi baino gehiagokoa denean.

3. Adierazitako zigorrez gain, erantzuleari kendu egingo zaio diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera edo zerga-onura, zerga-pizgarriak edota Gizarte Segurantzakoak izateko eskubidea, hiru urtetik sei arteko epean.

4. Erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da, artikulu honen lehenengo eta bigarren paragrafoetan aipatzen diren diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntzen inguruan, jasotako kopuruak, hartu zituen unetik, urteko korrituarekin itzultzen dituena, baldin eta urteko korritu hori diruaren lege-korritua gehi ehuneko bi puntukoa bada, betiere diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntza horien inguruan egiten diren ikuskatze edo kontroleko jardunaren hasierari buruzko jakinarazpena jaso aurretik itzultzen dituenean, edota, jardun hori gertatu ezean, kopuruak itzultzen dituenak, beraren aurka Fiskaltzak, estatuaren abokatuak edo autonomia erkidego nahiz toki-administrazioko ordezkariak kereila edo salaketa jarri aurretik itzultzen dituenean.

Era berean, subjektu hori aurreko lerrokadan bezala, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da egoera zu-

las posibles falsedades instrumentales que, exclusivamente en relación a la deuda objeto de regularización, el mismo pudiera haber cometido con carácter previo a la regularización de su situación.

zendu aurretik egindako faltsutze instrumentalengatik, baldin eta horiek zuzenduko den zorraren ingurukoak baino ez badira.

Artículo 309

El que obtenga indebidamente fondos de los presupuestos generales de las Comunidades u otros administrados por éstas, en cuantía superior a cincuenta mil ecus, falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubieren impedido, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de la citada cuantía.

309. artikulua

Norbaitek Europako Erkidegoen aurrekontu orokorretatik edo Europako Erkidegoek administratzen dituzten bestelako aurrekontuetatik, bidegabe, berrogeita hamar mila ecu baino zenbateko handiagoko funtsak lortzen baditu, hori lortzeko beharrezkoak diren baldintzak faltsutuz edo funtsak lortzen eragozten duten baldintzak ezkutatuz, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta isuna ere, berrogeita hamar mila ecuko zenbatekotik zenbateko horren sei halako artekoa.

Artículo 310

Será castigado con la pena de arresto de siete a quince fines de semana y multa de tres a diez meses el que estando obligado por Ley tributaria a llevar contabilidad mercantil, libros o registros fiscales:

a) Incumpla absolutamente dicha obligación en régimen de estimación directa de bases tributarias.

b) Lleve contabilidades distintas que, referidas a una misma actividad y ejercicio económico, oculten o simulen la verdadera situación de la empresa.

310. artikulua

Zazpi asteburutik hamabost arteko atzipenaldia ezarriko zaio, bai eta hiru hilabetetik hamar arteko isuna ere, zerga-legearen ondorioz merkataritzako kontabilitatea, liburuak edo zerga-erregistroak eramatera behartuta dagoenari:

a) Zerga-oinarrien zuzeneko zenbatespeneko eraentzan aurreko betebehar hori inola ere betetzen ez badu.

b) Jarduera eta ekonomia-ekitaldi berberari buruzko kontabilitate ezberdinak badaramatza, eta kontabilitate horiek enpresaren benetako egoera ezkutatu edo beste bat delako itxura egiten badute.

c) No hubiere anotado en los libros obligatorios negocios, actos, operaciones o, en general, transacciones económicas, o los hubiere anotado con cifras distintas a las verdaderas.

d) Hubiere practicado en los libros obligatorios anotaciones contables ficticias.

La consideración como delito de los supuestos de hecho, a que se refieren las letras c) y d) anteriores, requerirá que se hayan omitido las declaraciones tributarias o que las presentadas fueren reflejo de su falsa contabilidad y que la cuantía, en más o menos, de los cargos o abonos omitidos o falseados exceda, sin compensación aritmética entre ellos, de treinta millones de pesetas por cada ejercicio económico.

c) Nahitaezko liburuetan negozioen, egintzen, eragiketen edo, orokorrean, tratu ekonomikoen idatzoharrak egin ez baditu, edo benetakoak ez diren zenbakiekin egin baditu.

d) Nahitaezko liburuetan kontabilitateko gezurrezko idatzoharrak egin baditu.

Aurreko c) eta d) idatz-zatiek aipatu egitatezko kasuak delitutzat hartzeko, beharrezko da zerga-aitorpenik ez egitea edo aurkeztutako zerga-aitorpenek kontabilitate faltsua agertzea. Horrezaz gain, egin ez diren edo faltsututako kargu edo abonamenduen zenbatekoa, dela gehiagokoa, dela gutxiagokoa, ekonomia-ekitaldi bakoitzeko hogeita hamar milioi baino gehiagokoa izan behar da, euren artean konpentsazio aritmetikorik egiteke.

TÍTULO XV

DE LOS DELITOS CONTRA LOS DERECHOS DE LOS TRABAJADORES

Artículo 311

Serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses:

1.º Los que, mediante engaño o abuso de situación de necesidad impongan a los trabajadores a su servicio condiciones laborales o de Seguridad Social que perjudiquen, supriman o restrinjan los derechos que tengan reconocidos por disposiciones legales,

XV. TITULUA

LANGILEEN ESKUBIDEEN AURKAKO DELITUAK

311. artikulua

Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere:

1.) Zerbitzupeko langileak, engainuaren bidez edo inoren beharrizanegoeraz abusatuz, laneko edo Gizarte Segurantzako baldintza txarretan jartzen dituztenei, baldintzok kalte egiten badiete legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo banakako kontratua-

convenios colectivos o contrato individual.

2.º Los que en el supuesto de transmisión de empresas, con conocimiento de los procedimientos descritos en el apartado anterior, mantengan las referidas condiciones impuestas por otro.

3.º Si las conductas reseñadas en los apartados anteriores se llevaren a cabo con violencia o intimidación se impondrán las penas superiores en grado.

ren bidez langileentzat aintzatetsitako eskubideei, edo eskubideok ezabatu edo murrizten badituzte.

2.) Enpresak eskualdatzen direnetan, aurreko kasuan azaldutako prozedurak zeintzuk diren jakinda, beste batek ezarritako baldintza horiei eusten dietenei.

3.) Aurreko kasuetan aipatutako jokabideak indarkeria edo larderiaren bidez egiten badira, beraiei dagozkienak baino gradu bat gehiagoko zigorrak ezarriko dira.

Artículo 312

1. Serán castigados con las penas de prisión de dos a cinco años y multa de seis a doce meses, los que trafiquen de manera ilegal con mano de obra.

2. En la misma pena incurrirán quienes recluten personas o las determinen a abandonar su puesto de trabajo ofreciendo empleo o condiciones de trabajo engañosas o falsas, y quienes empleen a súbditos extranjeros sin permiso de trabajo en condiciones que perjudiquen, supriman o restrinjan los derechos que tuviesen reconocidos por disposiciones legales, convenios colectivos o contrato individual.

312. artikulua

1. Bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere, legearen aurka lan-indarra trafikagai hartzen dutenei.

2. Zigor berbera ezarriko zaie, enplegua edo engainuzkoak zein faltsuak diren lan-baldintzak eskainiz, pertsonak biltzen dituztenei edo euren lanpostua uztera bultzatzen dituztenei, edota lan-baimenik ez duten atzerritarrak enplegatzen dituztenei, baldin eta enpleguaren baldintzek kalte egiten badiete legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edota banakako kontratuaren bidez pertsona horiek aintzatetsita dituzten eskubideei, edo eskubideok ezabatu edo murrizten badituzte.

Artículo 313

1. El que promoviere o favoreciere por cualquier medio la inmigración clandestina de trabajadores a España, será castigado con la pena prevista en el artículo anterior.

313. artikulua

1. Norbaitek Espainiara langileen inmigrazio klandestinoa sustatzen edo faboratzen badu, edozein bide erabiliz, aurreko artikuluko zigorra ezarriko zaio.

2. Con la misma pena será castigado el que, simulando contrato o colocación, o usando de otro engaño semejante, determinare o favoreciere la emigración de alguna persona a otro país.

2. Zigor berbera ezarriko zaio norbaiten emigrazioa bultzatu edo faboratzen duenari, kontratua edo lanpostua badela itxura eginez, edota horren antzeko beste engainuren bat erabiliz.

Artículo 314

Los que produzcan una grave discriminación en el empleo, público o privado, contra alguna persona por razón de su ideología, religión o creencias, su pertenencia a una etnia, raza o nación, su sexo, orientación sexual, situación familiar, enfermedad o minusvalía, por ostentar la representación legal o sindical de los trabajadores, por el parentesco con otros trabajadores de la empresa o por el uso de alguna de las lenguas oficiales dentro del Estado español, y no restablezcan la situación de igualdad ante la Ley tras requerimiento o sanción administrativa, reparando los daños económicos que se hayan derivado, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a dos años o multa de seis a doce meses.

314. artikulua

Norbaitzuek, enplegu publiko nahiz pribatuan, pertsona baten aurka bereizkeria larria sortarazi eta, administrazio-agindei edo -zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badute, horrek ondorioztatu dituen kalte ekonomikoak konponduz, hain zuzen, bereizkeriaren arrazoi direla pertsonaren ideologia, erlijioa nahiz sinesmenak; edo etnia, arraza nahiz nazio batekoa izatea; edo sexua, sexu-joera, familia-egoera nahiz gaixotasun edo elbarritasunen bat izatea; edo langileen lege-ordezkaria zein ordezkari sindikala izatea; edo enpresaren beste langile batzuekin senidetasuna izatea edo Espainiako estatuaren hizkuntza ofizialen bat erabiltzea, orduan, halakoei sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie.

Artículo 315

1. Serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses los que mediante engaño o abuso de situación de necesidad, impidieren o limitaren el ejercicio de la libertad sindical o el derecho de huelga.

2. Si las conductas reseñadas en el apartado anterior se llevaren a cabo

315. artikulua

1. Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere, askatasun sindikalaren edo grebarako eskubidearen egikaritza eragozten edo mugatzen dutenei, engainuaren bidez edo inoren beharrizan-egoeraz abusatuz.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako jokabideak egiten badira indarra,

con fuerza, violencia o intimidación se impondrán las penas superiores en grado.

3. Las mismas penas del apartado segundo se impondrán a los que, actuando en grupo, o individualmente pero de acuerdo con otros, coaccionen a otras personas a iniciar o continuar una huelga.

indarkeria edo larderia erabiliz, beraiei dagozkien zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira.

3. Bigarren paragrafoko zigor berberak ezarriko zaizkie, dela taldeka, dela bakarka, baina beste batzuekin ados egonik, beste pertsona batzuk derrigortzen dituztenei greba bat hasteko edo jarraitzeko.

Artículo 316

Los que con infracción de las normas de prevención de riesgos laborales y estando legalmente obligados, no faciliten los medios necesarios para que los trabajadores desempeñen su actividad con las medidas de seguridad e higiene adecuadas, de forma que pongan así en peligro grave su vida, salud o integridad física, serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses.

316. artikulua

Norbaitzuek, laneko arriskuei aurrea hartzeko arauak hautsiz eta legez horretarako betebeharra izanik, beharrezko bideak ez badituzte errazten, langileek euren jarduera egikari dezaten segurtasun eta higieneko neurri egokiekin, betiere langileen bizia, osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jartzen dutenean, orduan, halakoei sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

Artículo 317

Cuando el delito a que se refiere el artículo anterior se cometa por imprudencia grave, será castigado con la pena inferior en grado.

317. artikulua

Aurreko artikuluan aipatzen den delitua zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz egiten denean, berari dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

Artículo 318

Cuando los hechos previstos en los artículos anteriores se atribuyeran a personas jurídicas, se impondrá la pena señalada a los administradores o encargados del servicio que hayan sido responsables de los mismos y a quienes, conociéndolos y pudiendo remediarlo, no hubieren adoptado medidas para ello.

318. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritako egitateak pertsona juridikoei eratxikitzen zaizkienean, adierazitako zigorra ezarriko zaie administratzaileei edo zerbitzuaz arduratzen direnei, egitate horien ondorioz erantzule izan badira, bai eta egitate horiek jakinda, eta konponbidea bila dezaketelarik, neurririk hartu ez dutenei ere.

TÍTULO XV BIS

DELITOS CONTRA LOS DERECHOS DE LOS CIUDADANOS EXTRANJEROS

Artículo 318 bis

1. Los que promuevan, favorezcan o faciliten el tráfico ilegal de personas desde, en tránsito o con destino a España serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses.

2. Los que realicen las conductas descritas en el apartado anterior con ánimo de lucro, o empleando violencia, intimidación o engaño, o abusando de una situación de necesidad de la víctima, serán castigados con las penas de prisión de dos a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses.

3. Se impondrán las penas correspondientes en su mitad superior a las previstas en los apartados anteriores, cuando en la comisión de los hechos se hubiere puesto en peligro la vida, la salud o la integridad de las personas o la víctima sea menor de edad.

4. En las mismas penas del apartado anterior y además en la inhabilitación absoluta de seis a doce años incurrirán los que realicen los hechos prevaliéndose de su condición de autoridad, agente de éste o funcionario público.

5. Se impondrán las penas superiores en grado a las previstas en los apartados anteriores, en sus respectivos casos,

XV BIS TITULUA

ATZERRIKO HERRITARREN ESKUBIDEEN AURKAKO DELITUAK

318 bis artikulua

1. Norbaitzuek legearen aurka pertsonak trafikagai hartzea sustatu, faboratu edo errazten badute, Espainiatik edota Espainia iraganbide zein helmuga izanik, orduan halakoei sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdizigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

2. Norbaitzuek aurreko paragrafoan deskribatutako jokabideak gauzatzen badituzte irabaziak lortzeko asmoarekin, edo indarkeria, larderia nahiz engainua erabiliz, edo biktimaren beharrizan egoeraz abusatuz, orduan halakoei bi urtetik lau arteko espetxealdizigorra ezarriko zaie, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritako zigorrak goiko erdian ezarriko dira, baldin eta egitateak gauzatzean pertsonen bizitza, osasuna edo osotasuna arriskuan jarri bada edota biktima adingabea bada.

4. Aurreko paragrafoko zigor berberak ezarriko zaizkie, bai eta sei urtetik hamabi arteko desgaikuntza erabatekoa ere, agintari, agintaritzaren agente edo funtzionario publiko izateaz baliatuz egitate horiek gauzatzen dituztenei.

5. Aurreko paragrafoetan ezarritako zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira, kasuan-kasuan, erruduna

cuando el culpable perteneciere a una organización o asociación, incluso de carácter transitorio que se dedicare a la realización de tales actividades.

antolakunde edo elkarte bateko kidea izanik, antolakunde edo elkarte hori, aldi baterako bada ere, halako jardueretan aritzen bada.

TÍTULO XVI

DE LOS DELITOS RELATIVOS A LA ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y LA PROTECCIÓN DEL PATRIMONIO HISTÓRICO Y DEL MEDIO AMBIENTE

CAPÍTULO I

De los delitos sobre la ordenación del territorio y la protección del patrimonio histórico y del medio ambiente

Artículo 319

1. Se impondrán las penas de prisión de seis meses a tres años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para profesión u oficio por tiempo de seis meses a tres años, a los promotores, constructores o técnicos directores que lleven a cabo una construcción no autorizada en suelos destinados a viales, zonas verdes, bienes de dominio público o lugares que tengan legal o administrativamente reconocido su valor paisajístico, ecológico, artístico, histórico o cultural, o por los mismos motivos hayan sido considerados de especial protección.

2. Se impondrá la pena de prisión de seis meses a dos años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación

XVI. TITULUA

LURRALDEAREN ANTOLAMENDUARI, ETA HISTORIA-ONDAREAREN ETA INGURUMENAREN BABESARI BURUZKO DELITUAK

I. KAPITULUA

Lurraldearen antolamenduari, eta historia-ondarearen eta ingurumenaren babesari buruzko delituak

319. artikulua

1. Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, sei hilabetetik hiru urte artekoa, sustatzaile, eraikitzaile edo zuzendari teknikoei, baldin eta baimendu gabeko eraikuntza egiten badute bideetarako, berdeguneetarako edo jabari publikoko ondasunetarako lurzoruetan, legez edo administrazioaren bidez, paisaia, ekologia, erti, historia edo kultura aldetik balioa aintzatetsita duten lekuetan, edota zio berberengatik babes berezikotzat hartu diren lekuetan.

2. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko

especial para profesión u oficio por tiempo de seis meses a tres años, a los promotores, constructores o técnicos directores que lleven a cabo una edificación no autorizable en el suelo no urbanizable.

3. En cualquier caso, los Jueces o Tribunales, motivadamente, podrán ordenar, a cargo del autor del hecho, la demolición de la obra, sin perjuicio de las indemnizaciones debidas a terceros de buena fe.

Artículo 320

1. La autoridad o funcionario público que, a sabiendas de su injusticia, haya informado favorablemente proyectos de edificación o la concesión de licencias contrarias a las normas urbanísticas vigentes será castigado con la pena establecida en el artículo 404 de este Código y, además, con la de prisión de seis meses a dos años o la de multa de doce a veinticuatro meses.

2. Con las mismas penas se castigará a la autoridad o funcionario público que por sí mismo o como miembro de un organismo colegiado haya resuelto o votado a favor de su concesión a sabiendas de su injusticia.

isuna eta lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, sei hilabetetik hiru urte artekoa, sustatzaile, eraikitzaile edo zuzendari teknikoei, baldin eta lurzoru urbanizaezinean baimendu ezineko eraikuntza egiten badute.

3. Edozein kasutan, epaile edo auzitegiek, zioak emanez, obra errausteko agindu ahal izango dute, egitatea gauzatzen duenaren kontura; horrek ez die kalterik egingo hirugarren onustedunen mesedetan zor diren kalte-ordainei.

320. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, zuzen jarduten ez duela jakinda, txostena egiten badu eraikuntza proiektuen alde edo indarrean dauden hirigintza-arauen aurkako lizentzien alde, orduan, horri, kode honen 404. artikuluan ezarritako zigorraz gain, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio agintari edo funtzionario publikoari, baldin eta, zuzen jarduten ez duela jakinda, bere kabuz edo kide anitzeko erakundearen kide gisa, ebazpena edo botoa ematen badu lizentzia horiek ematearen alde.

CAPÍTULO II

De los delitos sobre el patrimonio histórico

Artículo 321

Los que derriben o alteren gravemente edificios singularmente protegidos por su interés histórico, artístico,

II. KAPITULUA

Historia-ondareari buruzko delituak

321. artikulua

Norbaitzuek, historia-, erti- edo kultura-interesarengatik edo monumentua delako, bereziki babestutako

cultural o monumental serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años, multa de doce a veinticuatro meses y, en todo caso, inhabilitación especial para profesión u oficio por tiempo de uno a cinco años.

En cualquier caso, los Jueces o Tribunales, motivadamente, podrán ordenar, a cargo del autor del hecho, la reconstrucción o restauración de la obra, sin perjuicio de las indemnizaciones debidas a terceros de buena fe.

Artículo 322

1. La autoridad o funcionario público que, a sabiendas de su injusticia, haya informado favorablemente proyectos de derribo o alteración de edificios singularmente protegidos será castigado además de con la pena establecida en el artículo 404 de este Código con la de prisión de seis meses a dos años o la de multa de doce a veinticuatro meses.

2. Con las mismas penas se castigará a la autoridad o funcionario público que por sí mismo o como miembro de un organismo colegiado haya resuelto o votado a favor de su concesión a sabiendas de su injusticia.

Artículo 323

Será castigado con la pena de prisión de uno a tres años y multa de doce a veinticuatro meses el que cause daños en un archivo, registro, museo, biblioteca, centro docente, gabinete cien-

eraikinak eraisten edo modu larrian aldatzen badituzte, orduan, halakoei sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta, edozein kasutan, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, urtebetetik bost artekoa.

Edozein kasutan, epaile edo auzitegiek, zioak emanez, obra berreraikitzeko edo zaharberritzeko agindu ahal izango dute, egitatea gauzatzen duenaren kontura; horrek ez die kalterik egingo hirugarren onustedunen mesedetan zor diren kalte-ordainei.

322. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, zuzen jarduten ez duela jakinda, txostena egiten badu bereziki babestutako eraikinak eraisteko edo aldatzeko proiektuen alde, orduan, horri, kode honen 404. artikuluan ezarritako zigorraz gain, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio agintari edo funtzionario publikoari, baldin eta, zuzen jarduten ez duela jakinda, bere kabuz edo kide anitzeko erakundearen kide gisa, ebazpena edo botoa ematen badu lizentzia horiek ematearen alde.

323. artikulua

Urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, artxibo, erregistro, museo, liburutegi, irakastegi, kabinete zientifiko nahiz

tífico, institución análoga o en bienes de valor histórico, artístico, científico, cultural o monumental, así como en yacimientos arqueológicos.

En este caso, los Jueces o Tribunales podrán ordenar, a cargo del autor del daño, la adopción de medidas encaminadas a restaurar, en lo posible, el bien dañado.

horien antzeko erakundean, edo historia-, erti-, zientzia-, kultura- nahiz monumentu-balioa duten ondasunetan edota arkeologia-aztarnategietan kalteak eragiten dituenari.

Horrelakoetan, epaile edo auzitegiek, kaltea jasan duen ondasuna ahal den neurrian zaharberritzeko neurriak hartzeko agindu ahal izango dute, kaltea eragin duenaren kontura.

Artículo 324

El que por imprudencia grave cause daños, en cuantía superior a cincuenta mil pesetas, en un archivo, registro, museo, biblioteca, centro docente, gabinete científico, institución análoga o en bienes de valor artístico, histórico, cultural, científico o monumental, así como en yacimientos arqueológicos, será castigado con la pena de multa de tres a dieciocho meses, atendiendo a la importancia de los mismos.

324. artikulua

Norbaitek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagoko kalteak eragiten baditu artxibo, erregistro, museo, liburutegi, irakastegi, kabinete zientifiko zein horien antzeko erakundean, edo historia-, erti-, zientzia-, kultura- nahiz monumentu-balioa duten ondasunetan edota arkeologia-aztarnategietan, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaio, aipatuen garrantzia kontuan hartuz.

CAPÍTULO III

De los delitos contra los recursos naturales y el medio ambiente

III. KAPITULUA

Izadiko baliabideen eta ingurumenaren aurkako delituak

Artículo 325

Será castigado con las penas de prisión de seis meses a cuatro años, multa de ocho a veinticuatro meses e inhabilitación especial para profesión u oficio por tiempo de uno a tres años el que, contraviniendo las Leyes u otras disposiciones de carácter general protectoras del medio ambiente, provoque o realice directa o indirectamente emisiones, vertidos, radiaciones, extrac-

325. artikulua

Sei hilabetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, urtebetetik hiru artekoa, ingurumena babesteko legeak edo izaera orokorreko beste xedapenak urratuz, igorpenak, isurketak, erradiazioak, erauzketak edo indusketak, lurreztatzeak, zaratak, dar-

ciones o excavaciones, aterramientos, ruidos, vibraciones, inyecciones o depósitos, en la atmósfera, el suelo, el subsuelo, o las aguas terrestres, marítimas o subterráneas, con incidencia, incluso, en los espacios transfronterizos, así como las captaciones de aguas que puedan perjudicar gravemente el equilibrio de los sistemas naturales. Si el riesgo de grave perjuicio fuese para la salud de las personas, la pena de prisión se impondrá en su mitad superior.

darak, injekzioak edo bilguneak, zuzenean edo zeharka, egin edo eragiten dituenari eguratsean, lurzoruan, lurpean, lurreko, itsasoko zein lurpeko uretan, mugaz bestaldeko guneetan eragina badute ere, edo izadiko sistemen orekari kalte larria egin diezaioketen ur-hartzeak egin edo eragiten dituenari. Pertsonen osasunaren aurka kalte larria gertatzeko arriskua badago, espetxealdi-zigorra goiko erdian ezarriko da.

Artículo 326

Se impondrá la pena superior en grado, sin perjuicio de las que puedan corresponder con arreglo a otros preceptos de este Código, cuando en la comisión de cualquiera de los hechos descritos en el artículo anterior concurra alguna de las circunstancias siguientes:

a) Que la industria o actividad funcione clandestinamente, sin haber obtenido la preceptiva autorización o aprobación administrativa de sus instalaciones.

b) Que se hayan desobedecido las órdenes expresas de la autoridad administrativa de corrección o suspensión de las actividades tipificadas en el artículo anterior.

c) Que se haya falseado u ocultado información sobre los aspectos ambientales de la misma.

d) Que se haya obstaculizado la actividad inspectora de la Administración.

e) Que se haya producido un riesgo de deterioro irreversible o catastrófico.

326. artikulua

Gradu bat gehiagoko zigorra ezarriko da, kode honen beste manu batzuen arabera ezar daitezkeen zigorrei kalterik egin gabe, baldin eta inguruabar hauetako bat gertatzen bada, aurreko artikuluan azaldutako egitateetatik edozein gauzatzean.

a) Industria edo jarduera modu klandestinoan gauzatzen bada, beraren instalazioek Administrazioaren manuzko baimena edo onespena lortu gabe.

b) Aurreko artikuluan tipifikatutako jarduerak zuzentzeko edo eteteko, Administrazioko agintariak beren beregi ematen dituen aginduak desobeditzen badira.

c) Industria edo jardueraren ingurumen-aldeei buruzko informazioa faltsutu edo ezkutatzen bada.

d) Administrazioaren jarduera ikuskatzailea oztopatzen bada.

e) Lehengoraezinezko narriadura edo hondamena izateko arriskua gertatzen bada.

f) Que se produzca una extracción ilegal de aguas en período de restricciones.

Artículo 327

En todos los casos previstos en los dos artículos anteriores, el Juez o Tribunal podrá acordar alguna de las medidas previstas en las letras a) o e) del artículo 129 de este Código.

Artículo 328

Serán castigados con la pena de multa de dieciocho a veinticuatro meses y arresto de dieciocho a veinticuatro fines de semana quienes establecieren depósitos o vertederos de desechos o residuos sólidos o líquidos que sean tóxicos o peligrosos y puedan perjudicar gravemente el equilibrio de los sistemas naturales o la salud de las personas.

Artículo 329

1. La autoridad o funcionario público que, a sabiendas, hubiere informado favorablemente la concesión de licencias manifiestamente ilegales que autoricen el funcionamiento de las industrias o actividades contaminantes a que se refieren los artículos anteriores, o que con motivo de sus inspecciones hubieren silenciado la infracción de Leyes o disposiciones normativas de carácter general que las regulen será castigado con la pena establecida en el artículo 404 de este Código y, además, con la de prisión de seis meses a tres años o la de multa de ocho a veinticuatro meses.

f) Murrizketa-epealdian ura ateratzen bada legearen aurka.

327. artikulua

Aurreko bi artikuluetako kasu guztietan, epaile edo auzitegiek kode honen 129. artikuluaren a) edo e) idatz-zatietan ezarritako neurrietatik bat hartu ahal izango dute.

328. artikulua

Hemezortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie, bai eta hemezortzi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldia ere, hondar edo hondakin gotor edo isurkarien bilgune edo zabortegiak ezartzen dituztenei, baldin eta horiek toxiko edo arriskutsuak badira, eta izadiko sistemen orekari edo pertsonen osasunari kalte larria egin badiezaiekete.

329. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, jakinda, aurreko artikuluetako industria edo jarduera kutsagarriei dagokienez, txostena egiten badu jarduera horiek baimentzen dituzten lizentzien alde, lizentzia horiek, ageri-agerian, legearen aurkakoak izanik, edo, jarduera horiek ikuskatzean, isilpean gordetzen badu jarduerok arautzen dituzten lege edo izaera orokorreko xedapen arau-emaileak hautsi direla, orduan, horri, kode honen 404. artikuluan ezarritako zigorraz gain, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Con las mismas penas se castigará a la autoridad o funcionario público que por sí mismo o como miembro de un organismo colegiado hubiese resuelto o votado a favor de su concesión a sabiendas de su injusticia.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio agintari edo funtzionario publikoari, baldin eta, zuzen jarduten ez duela jakinda, bere kabuz edo kide anitzeko erakundearen kide gisa, lizentzia horiek ematearen alde ebazpena edo botoa ematen badu.

Artículo 330

Quien, en un espacio natural protegido, dañare gravemente alguno de los elementos que hayan servido para calificarlo, incurrirá en la pena de prisión de uno a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses.

330. artikulua

Babespeko naturagune bat horrela kalifikatzeko erabili diren osagaietako bati kalte larria egiten dionari urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

Artículo 331

Los hechos previstos en este capítulo serán sancionados, en su caso, con la pena inferior en grado, en sus respectivos supuestos, cuando se hayan cometido por imprudencia grave.

331. artikulua

Kapitulu honetan ezarritako egitateei, hala denean, gradu bat gutxiagoko zigorra ezarriko zaie kasuan-kasuan, egitate horiek zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz gauzatu direnean.

CAPÍTULO IV

De los delitos relativos a la protección de la flora y fauna

Artículo 332

El que corte, tale, queme, arranque, recolecte o efectúe tráfico ilegal de alguna especie o subespecie de flora amenazada o de sus propágulos, o destruya o altere gravemente su hábitat, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años o multa de ocho a veinticuatro meses.

IV. KAPITULUA

Landare eta animalien babesari buruzko delituak

332. artikulua

Norbaitek ebaki, moztu, erre, errotik atera, bildu edo trafikagai hartzen baditu arriskuan dauden landare-espezie edo -azpiespezie bat edo beraren propaguluak, edota horren habitata modu larrian suntsitu edo aldatzen badu, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

Artículo 333

El que introdujera o liberara especies de flora o fauna no autóctona, de modo que perjudique el equilibrio biológico, contraviniendo las Leyes o disposiciones de carácter general protectoras de las especies de flora o fauna, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años o multa de ocho a veinticuatro meses.

333. artikulua

Norbaitek, autoktonoak ez diren landare edo animalien espezieak sartzen edo askatzen baditu, landare edo animalien espezieen babeserako legeak edo izaera orokorreko xedapenak urratuz eta oreka biologikoari kalte eginez, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

Artículo 334

1. El que cace o pesque especies amenazadas, realice actividades que impidan o dificulten su reproducción o migración, contraviniendo las Leyes o disposiciones de carácter general protectoras de las especies de fauna silvestre, comercie o trafique con ellas o con sus restos, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años o multa de ocho a veinticuatro meses.

2. La pena se impondrá en su mitad superior si se trata de especies o subespecies catalogadas en peligro de extinción.

334. artikulua

1. Norbaitek, basabereen babeserako legeak edo izaera orokorreko xedapenak urratuz, arriskuan dauden espezieak ehiza edo arrantzaren bidez harrapatzen baditu, espezie horien ugalketa edo migrazioa eragozten edo zailtzen dituzten jarduerak egiten baditu, edota espezie horiek edo euren hondarrak trafikagai hartzen baditu edo horiekin merkataritzan aritzen bada, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Zigorra goiko erdian ezarriko da, baldin eta espezie edo azpiespezie horiek galzorian daudenen taldean sarturik badaude.

Artículo 335

El que cace o pesque especies distintas a las indicadas en el artículo anterior, no estando expresamente autorizada su caza o pesca por las normas específicas en la materia, será castigado con la pena de multa de cuatro a ocho meses.

335. artikulua

Norbaitek aurreko artikuluan zehazturikoez besteko espezieak arrantza edo ehizaren bidez harrapatzen baditu, eta eremu horretako arau bereziek beren beregi baimentzen ez badute espezie horien arrantza edo ehiza, orduan, pertsona horri lau hilabetetik zortzi arteko isuna ezarriko zaio.

Artículo 336

El que, sin estar legalmente autorizado, emplee para la caza o pesca veneno, medios explosivos u otros instrumentos o artes de similar eficacia destructiva para la fauna, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años o multa de ocho a veinticuatro meses. Si el daño causado fuera de notoria importancia se impondrá la pena de prisión antes mencionada en su mitad superior.

336. artikulua

Norbaitek, legez baimenduta egon barik, arrantza edo ehizarako pozoia, lehergailuak edo animaliak suntsitzeko besteko eragingarritasuna duten tresna edo arteak erabiltzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio. Eragindako kaltea garrantzi handikoa denean, aurretik aipatutako espetxealdi-zigorra goiko erdian ezarriko da.

Artículo 337

En los supuestos previstos en los tres artículos anteriores, se impondrá además a los responsables la pena de inhabilitación especial para el ejercicio del derecho de cazar o pescar por tiempo de tres a ocho años.

337. artikulua

Aurreko hiru artikuluetan ezarritako kasuetan, erantzuleei ehiza- edo arrantza-eskubidea egikaritzeko desgaikuntza berezia ere ezarriko zaie, hiru urtetik zortzi artekoa.

CAPÍTULO V
Disposiciones comunes

Artículo 338

Cuando las conductas definidas en este Título afecten a algún espacio natural protegido, se impondrán las penas superiores en grado a las respectivamente previstas.

Artículo 339

Los Jueces o Tribunales, motivadamente, podrán ordenar la adopción, a cargo del autor del hecho, de medidas encaminadas a restaurar el equilibrio ecológico perturbado, así como adoptar cualquier otra medida cautelar necesaria para la protección de los bienes tutelados en este Título.

V. KAPITULUA
Guztietarako xedapenak

338. artikulua

Titulu honetan azaldutako jokabideek babespeko naturagunea ukitzen dutenean, kasuan-kasuan ezarritako zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira.

339. artikulua

Epaile edo auzitegiek, zioak emanez, neurriak hartzeko agin dezakete nahasitako oreka ekologikoa berrezartzeko, egitatea gauzatu duenaren kontura; orobat, titulu honetan babestutako ondasunak zaintzeko beharrezko diren kautela-neurrietatik beste edozein har dezake.

Artículo 340

Si el culpable de cualquiera de los hechos tipificados en este Título hubiera procedido voluntariamente a reparar el daño causado, los Jueces y Tribunales le impondrán la pena inferior en grado a las respectivamente previstas.

340. artikulua

Titulu honetan tipifikatutako egitateetatik edozeinen errudunak eragindako kaltea bere borondatez konpontzen badu, epaile eta auzitegiek, kasuan-kasuan, ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko diote.

TÍTULO XVII
DE LOS DELITOS CONTRA LA SEGURIDAD COLECTIVA

CAPÍTULO I
De los delitos de riesgo catastrófico

SECCIÓN I
De los delitos relativos a la energía nuclear y a las radiaciones ionizantes

Artículo 341

El que libere energía nuclear o elementos radiactivos que pongan en peligro la vida o la salud de las personas o sus bienes, aunque no se produzca explosión, será sancionado con la pena de prisión de quince a veinte años, e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio por tiempo de diez a veinte años.

Artículo 342

El que, sin estar comprendido en el artículo anterior, perturbe el funcionamiento de una instalación nuclear o radiactiva, o altere el desarrollo de actividades en las que intervengan materiales o equipos productores de radia-

XVII. TITULUA
SEGURTASUN KOLEKTIBOAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Hondamen-arriskuko delituak

I. ATALA
Energia nuklearrari eta erradiazio ionizatzaileei buruzko delituak

341. artikulua

Norbaitek energia nuklear edo osagai erradioaktiboak askatzen baditu, eztandarik gertatzen ez bada ere, eta horiek pertsonen bizitza, osasuna edo ondasunak arriskuan jartzen badituzte, orduan, horri hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publiko edo lanbide zein ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, hamar urtetik hogei artekoa.

342. artikulua

Norbaitek, aurreko artikuluaren barnean egon barik, instalazio nuklear edo erradioaktibo baten ibilerari nahasmendua eragiten badio edo erradiazio ionizatzaileen material edo ekipo sortarazleak erabiltzen dituzten jardueren

ciones ionizantes, creando una situación de grave peligro para la vida o la salud de las personas, será sancionado con la pena de prisión de cuatro a diez años, e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio por tiempo de seis a diez años.

garapena aldatzen badu, betiere pertsonen bizitza edo osasunerako arrisku larriko egoera sortaraziz, orduan, pertsona horri lau urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, sei urtetik hamar artekoa.

Artículo 343

El que exponga a una o varias personas a radiaciones ionizantes que pongan en peligro su vida, integridad, salud o bienes, será sancionado con la pena de prisión de seis a doce años, e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio por tiempo de seis a diez años.

343. artikulua

Norbaitek, pertsona bat edo batzuk erradiazio ionizatzaileen eraginpean jartzen baditu, eta erradiazio horiek beraien bizitza, osotasuna, osasuna edo ondasunak arriskuan jartzen badituzte, orduan, pertsona horri sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, sei urtetik hamar artekoa.

Artículo 344

Los hechos previstos en los artículos anteriores serán sancionados con la pena inferior en grado, en sus respectivos supuestos, cuando se hayan cometido por imprudencia grave.

344. artikulua

Aurreko artikuluetako egitateei, kasuan-kasuan, gradu bat gutxiagoko zigorra ezarriko zaie, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz gauzatzen direnean.

Artículo 345

1. El que se apodere de materiales nucleares o elementos radiactivos, aun sin ánimo de lucro, será sancionado con la pena de prisión de uno a cinco años. La misma pena se impondrá al que sin la debida autorización facilite, reciba, transporte o posea materiales radiactivos o sustancias nucleares, trafique con ellos, retire o utilice sus desechos o haga uso de isótopos radiactivos.

345. artikulua

La tenencia de moneda falsa para su expendición o distribución será castigada con la pena inferior en uno o dos grados, atendiendo al valor de aquélla y al grado de connivencia con los autores mencionados en los números anteriores. La misma pena se impondrá al que, sabiéndola falsa, adquiera moneda con el fin de ponerla en circulación.

El que habiendo recibido de buena fe moneda falsa, la expenda o distribuya después de constarle su falsedad será castigado con las penas de arresto de nueve a quince fines de semana y multa de seis a veinticuatro meses, si el valor aparente de la moneda fuera superior a cincuenta mil pesetas.

Diru faltsua edukitzea, saltzeko edo banatzeko, gradu bat edo bitan txikiagoa den zigorrarekin zigortuko da, kontuan hartuz diru faltsuaren balioa eta aurreko zenbakietan aipatutako egileekin dagoen ados-jartze maila. Zigor berbera ezarriko zaio, dirua faltsua dela jakinda, hori eskuratzen duenari, beraren helburua bada dirua zirkulazioan jartzea.

Norbaitek, diru faltsua onustez jaso eta faltsua dela jakin ondoren, diru hori saldu edo banatzen badu, bederatzi asteburutik hamabost arteko atzipenaldi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, diruaren ageriko balioa berrogeita hamar mila pezeta baino handiagoa bada.

Artículo 387

A los efectos del artículo anterior se entiende por moneda la metálica y papel moneda de curso legal. A los mismos efectos se considerarán moneda las tarjetas de crédito, las de débito y los cheques de viaje. Igualmente, se equipararán a la moneda nacional, la de la Unión Europea y las extranjeras.

387. artikulua

Aurreko artikuluaren ondoreetarako, dirutzat hartzen dira legezko txanpon eta diru-papera. Ondore berberei dagokienez, dirutzat hartzen dira kreditu-txartelak, zordunketa-txartelak eta bidaia-txekeak. Era berean, nazio-dirua, Europar Batasunekoa eta atzerrikoak parekatuko dira.

Artículo 388

La condena de un Tribunal extranjero, impuesta por delito de la misma naturaleza de los comprendidos en este capítulo, será equiparada a las sentencias de los Jueces o Tribunales españoles a los efectos de reincidencia, salvo que el antecedente penal haya sido cancelado o pudiese serlo con arreglo al Derecho español.

388. artikulua

Berrerortze-ondoreetarako, atzerriko auzitegi batek ezarritako kondena eta Espainiako epaile edo auzitegiek emandako epaia baliobestekoak dira, baldin eta delituaren izaera eta kapitulu honetan dauden delituen izaera berdinak badira. Ez dago baliobestekotasunik, zigor-aurrekaria ezereztu bada, edo ezereztu badaiteke Espainiako zuzenbidearen arabera.

Artículo 389

El que falsificare, o expendiere, en connivencia con el falsificador, sellos de correos o efectos timbrados, o los introdujere en España conociendo su falsedad, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años.

El adquirente de buena fe de sellos de correos o efectos timbrados que, conociendo su falsedad, los distribuyera en cantidad superior a cincuenta mil pesetas, será castigado con la pena de arresto de ocho a doce fines de semana, y, si únicamente los utilizara, por la misma cantidad, con la pena de multa de tres a doce meses.

389. artikulua

Norbaitek, faltsifikatzailearekin ados jarririk, posta-zigilu nahiz efektu tinbredunak faltsifikatu edo saldu, edota, faltsuak direla jakinda, Espainian sartzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Norbaitek posta-zigilu edo efektu tinbredunak onustez erosten baditu, eta, faltsuak direla jakinda, berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagoko zenbatekoa banatzen badu, orduan, horri atzipenaldi-zigorra ezarriko zaio, zortzi asteburutik hamabi artekoa; eta, zenbateko berberarekin, horiek erabili besterik ez badu egiten, hiru hilabetetik hamabi arteko isun-zigorra ezarriko zaio.

CAPÍTULO II
De las falsedades documentales

SECCIÓN I
De la falsificación de documentos públicos, oficiales y mercantiles y de los despachos transmitidos por servicios de telecomunicación

Artículo 390

1. Será castigado con las penas de prisión de tres a seis años, multa de seis a veinticuatro meses e inhabilitación especial por tiempo de dos a seis años, la autoridad o funcionario público que, en el ejercicio de sus funciones, cometa falsedad:

1.º Alterando un documento en alguno de sus elementos o requisitos de carácter esencial.

II. KAPITULUA
Agiri-faltsutzeak

I. ATALA
Agiri publikoak, ofizialak, merkataritza-agiriak eta telekomunikazio-zerbitzuen bidez bidalitako idatz-agiriak faltsifikatzea

390. artikulua

1. Espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, hiru urtetik sei artekoa, agintari edo funtzionario publikoari, bai eta isuna, sei hilabetetik hogeita lau artekoa, eta desgaikuntza berezia ere, bi urtetik sei arteko denboran, bere eginkizunak betetzean faltsutzea egiten badu:

1.) Agiri baten oinarrizko osagai edo betekizunen bat aldatuz.

2.º Simulando un documento en todo o en parte, de manera que induzca a error sobre su autenticidad.

3.º Suponiendo en un acto la intervención de personas que no la han tenido, o atribuyendo a las que han intervenido en él declaraciones o manifestaciones diferentes de las que hubieran hecho.

4.º Faltando a la verdad en la narración de los hechos.

2. Será castigado con las mismas penas a las señaladas en el apartado anterior el responsable de cualquier confesión religiosa que incurra en alguna de las conductas descritas en los números anteriores, respecto de actos y documentos que puedan producir efecto en el estado de las personas o en el orden civil.

Artículo 391

La autoridad o funcionario público que por imprudencia grave incurriere en alguna de las falsedades previstas en el artículo anterior o diere lugar a que otro las cometa, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a un año.

Artículo 392

El particular que cometiere en documento público, oficial o mercantil, alguna de las falsedades descritas en los tres primeros números del apartado 1 del artículo 390, será castigado con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses.

2.) Agiri baten itxura oso-osoan edo zati batean sortuz, baldin eta itxura sortze horrek agiriaren kautotasunari buruzko okerra eragiten badu.

3.) Egintza batean pertsona batzuek esku hartu ez arren, horiek esku hartu dutela aditzera emanez; edota egintza horretan esku hartu duten pertsonei eurek egin ez dituzten adierazpenak edo agerpenak eratxikiz.

4.) Egitateak kontatzean egia esan gabe.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako zigorrak ezarriko zaizkio edozein erlijiotako arduradunari, aurreko zenbakietan azaltzen diren jokabideetatik bat egiten badu, jokabide horiek pertsonen egoeran edo ordena zibilean ondoreak sor ditzaketen egintza edo agiriei buruzkoak izanda.

391. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, aurreko artikuluan ezarritako faltsutze bat egiten badu, edo bide ematen badio beste bati faltsutze horiek egiteko, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik urtebete arte etengo zaio.

392. artikulua

Norbanakoak egiten badu 390. artikuluko 1. idatz-zatiaren lehenengo hiru zenbakietan azaltzen diren faltsutzeetatik bat, agiri publikoan, agiri ofizialean nahiz merkataritza-agirian, orduan, hari sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna.

Artículo 393

El que, a sabiendas de su falsedad, presentare en juicio o, para perjudicar a otro, hiciere uso de un documento falso de los comprendidos en los artículos precedentes, será castigado con la pena inferior en grado a la señalada a los falsificadores.

393. artikulua

Norbaitek epaiketan aurkezten badu edo, beste bati kalte egiteko, erabili egiten badu aurreko artikuluetara bildutako agiri faltsuetatik bat, agiri hori faltsua dela jakinda, orduan, pertsona horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

Artículo 394

1. La autoridad o funcionario público encargado de los servicios de telecomunicación que supusiere o falsificare un despacho telegráfico u otro propio de dichos servicios, incurrirá en la pena de prisión de seis meses a tres años e inhabilitación especial por tiempo de dos a seis años.

2. El que, a sabiendas de su falsedad, hiciere uso del despacho falso para perjudicar a otro, será castigado con la pena inferior en grado a la señalada a los falsificadores.

394. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, telekomunikazio-zerbitzuetako arduraduna izanik, idatz-agiri telegrafiko bat edo zerbitzu horietako beste edozein agiri asmatu edo faltsifikatzen badu, orduan, horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta bi urtetik sei arteko desgaikuntza berezia.

2. Norbaitek, beste bati kalte egiteko, idatz-agiri faltsua erabiltzen badu, faltsua dela jakinda, orduan, horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

Sección II
De la falsificación de documentos privados

II. Atala
Agiri pribatuak faltsifikatzea

Artículo 395

El que, para perjudicar a otro, cometiere en documento privado alguna de las falsedades previstas en los tres primeros números del apartado 1 del artículo 390, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

395. artikulua

Norbaitek, beste bati kalte egiteko, agiri pribatuan 390. artikuluko 1. paragrafoaren lehenengo hiru zenbakietan ezartzen diren faltsutzeetatik bat egiten badu, orduan, horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, sei hilabetetik bi urte artekoa.

Artículo 396

El que, a sabiendas de su falsedad, presentare en juicio o, para perjudicar a otro, hiciere uso de un documento falso de los comprendidos en el artículo anterior, incurrirá en la pena inferior en grado a la señalada a los falsificadores.

396. artikulua

Norbaitek epaiketan aurkezten badu edo, beste bati kalte egiteko, erabili egiten badu aurreko artikulura bildutako agiri faltsuetatik bat, agiri hori faltsua dela jakinda, orduan, horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

SECCIÓN III

De la falsificación de certificados

III. ATALA

Ziurtagiriak faltsifikatzea

Artículo 397

El facultativo que librare certificado falso será castigado con la pena de multa de tres a doce meses.

397. artikulua

Adituak ziurtagiri faltsua ematen badu, aditu horri isuna ezarriko zaio, hiru hilabetetik hamabi artekoa.

Artículo 398

La autoridad o funcionario público que librare certificación falsa será castigado con la pena de suspensión de seis meses a dos años.

398. artikulua

Ziurtagiri faltsua agintari edo funtzionario publikoak ematen badu, horri enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urte arte etengo zaio.

Artículo 399

1. El particular que falsificare una certificación de las designadas en los artículos anteriores será castigado con la pena de multa de tres a seis meses.

2. La misma pena se aplicará al que hiciere uso, a sabiendas, de la certificación falsa.

399. artikulua

1. Norbanakoak faltsifikatzen badu aurreko artikuluetan adierazitako ziurtagirietatik bat, isuna ezarriko zaio, hiru hilabetetik sei artekoa.

2. Zigor berbera ezarriko zaio, jakinaren gainean egonik, ziurtagiri faltsua erabiltzen duenari.

CAPÍTULO III

Disposición general

III. KAPITULUA

Xedapen orokorra

Artículo 400

La fabricación o tenencia de útiles, materiales, instrumentos, sustancias,

400. artikulua

Lanabesak, materialak, tresnak, gaiak, makinak, ordenagailuen progra-

máquinas, programas de ordenador o aparatos, específicamente destinados a la comisión de los delitos descritos en los capítulos anteriores, se castigarán con la pena señalada en cada caso para los autores.

mak edo aparatuak fabrikatu edo edukitzea zigortu egingo da, egileei kasuan-kasuan dagokien zigorrarekin, baldin eta horiek guztiak zehazki erabiltzekoak badira aurreko kapituluetan azaldutako delituak egiteko.

CAPÍTULO IV
De la usurpación del estado civil

Artículo 401

El que usurpare el estado civil de otro será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años.

IV. KAPITULUA
Egoera zibilaren usurpazioa

401. artikulua

Norbaitek beste baten egoera zibila usurpatzen badu, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

CAPÍTULO V
De la usurpación de funciones públicas y del intrusismo

Artículo 402

El que ilegítimamente ejerciere actos propios de una autoridad o funcionario público atribuyéndose carácter oficial, será castigado con la pena de prisión de uno a tres años.

V. KAPITULUA
Eginkizun publikoen usurpazioa eta intrusismoa

402. artikulua

Norbaitek bidezko ez den eran gauzatzen baditu agintari edo funtzionario publikoei dagozkien egintzak, eta hori egitean izaera ofiziala berarentzat hartzen badu, orduan, horri urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Artículo 403

El que ejerciere actos propios de una profesión sin poseer el correspondiente título académico expedido o reconocido en España de acuerdo con la legislación vigente, incurrirá en la pena de multa de seis a doce meses. Si la actividad profesional desarrollada exigiere un título oficial que acredite la capacitación necesaria y habilite legal-

403. artikulua

Norbaitek lanbide bati dagozkion egintzak gauzatzen baditu, Espainian indarrean dagoen legeriaren arabera eman edo aintzatetsitako titulu akademikorik gabe, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio. Lanbide-jardueran aritzeko titulu ofiziala beharrezkoa bada, titulu horrek behar besteko gaikuntza egiaztatzen

mente para su ejercicio, y no se estuviere en posesión de dicho título, se impondrá la pena de multa de tres a cinco meses.

Si el culpable, además, se atribuyese públicamente la cualidad de profesional amparada por el título referido, se le impondrá la pena de prisión de seis meses a dos años.

eta, lanbidean aritzeko, legearen arabera gaitzen duelako, orduan, titulu ofizialik izan ezean hiru hilabetetik bost arteko isun-zigorra ezarriko da.

Horrezaz gain, titulu horrek babesten duen profesionaltasuna berarentzat hartzen badu jendaurrean, orduan errudun horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

TÍTULO XIX
DELITOS CONTRA LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

CAPÍTULO I
De la prevaricación de los funcionarios públicos y otros comportamientos injustos

Artículo 404

A la autoridad o funcionario público que, a sabiendas de su injusticia, dictare una resolución arbitraria en un asunto administrativo se le castigará con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de siete a diez años.

Artículo 405

A la autoridad o funcionario público que, en el ejercicio de su competencia y a sabiendas de su ilegalidad, propusiere, nombrare o diere posesión para el ejercicio de un determinado cargo público a cualquier persona sin que concurran los requisitos legalmente establecidos para ello, se le castigará con las penas de multa de tres a

XIX. TITULUA
HERRI ADMINISTRAZIOAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Funtzionario publikoen prebarikazioa eta zuzenak ez diren beste portaera batzuk

404. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, zuzen jarduten ez duela jakinda, administrazioko gai batean nahierarako ebazpena ematen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikoan aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko zaio, zazpi urtetik hamar artekoa.

405. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere eskumena erabiltzean, legearen aurka jarduten duela jakinda, eta legeak ezarritako betekizunak izan barik, kargu publiko zehatz batean aritzeko edozein pertsona proposatu, izendatu edo karguaz jabetzen badu, orduan, agintari edo funtzionario publiko horri hiru hilabetetik zortzi ar-

ocho meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

Artículo 406

La misma pena de multa se impondrá a la persona que acepte la propuesta, nombramiento o toma de posesión mencionada en el artículo anterior, sabiendo que carece de los requisitos legalmente exigibles.

teko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urte arte etengo zaio.

406. artikulua

Isun-zigor berbera ezarriko zaio aurreko artikuluan aipatutako proposamena, izendapena edo karguaz jabetzea onartzen duenari, baldin eta berak jakin badaki proposamen, izendapen edo karguaz jabetze horrek ez dituela legez behar diren betekizunak.

CAPÍTULO II

Del abandono de destino y de la omisión del deber de perseguir delitos

Artículo 407

1. A la autoridad o funcionario público que abandonare su destino con el propósito de no impedir o no perseguir cualquiera de los delitos comprendidos en los Títulos XXI, XXII, XXIII y XXIV se le castigará con la pena de prisión de uno a cuatro años e inhabilitación absoluta para empleo o cargo público por tiempo de seis a diez años. Si hubiera realizado el abandono para no impedir o no perseguir cualquier otro delito, se le impondrá la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

2. Las mismas penas se impondrán, respectivamente, cuando el abandono tenga por objeto no ejecutar las penas correspondientes a estos delitos impuestas por la autoridad judicial competente.

II. KAPITULUA

Destinoa uztea eta delituak pertsegitzeko eginbeharraren ezbetetzea

407. artikulua

1. XXI, XXII, XXIII eta XXIV. tituluen barnean dauden delituetatik edozein ez eragozteko edo ez pertsegitzeko helburuarekin, agintari edo funtzionario publikoak bere destinoa uzten badu, agintari edo funtzionario publiko horri urtebetetik lau arteko espetxealdizigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako erabateko desgaikuntza, sei urtetik hamar artekoa. Beste edozein delitu ez eragozteko edo ez pertsegitzeko destinoa utziz gero, orduan, pertsona horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, urtebetetik hiru artekoa.

2. Zigor berberak ezarriko dira, hurrenez hurren, destinoa uztearen asmoa denean agintaritza judizial eskudunak delitu hauei ezarritako zigorrak ez betearaztea.

Artículo 408

La autoridad o funcionario que, faltando a la obligación de su cargo, dejare intencionadamente de promover la persecución de los delitos de que tenga noticia o de sus responsables, incurrirá en la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

408. artikulua

Agintari edo funtzionarioak, bere karguaren ondorioz duen betebeharra hautsiz, nahita uzten badio berak dakizkien delituak edo delitu horien ondorioz erantzule direnak pertsegitzeari, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, sei hilabetetik bi urte artekoa.

Artículo 409

A las autoridades o funcionarios públicos que promovieren, dirigieren u organizaren el abandono colectivo y manifiestamente ilegal de un servicio público, se les castigará con la pena de multa de ocho a doce meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

Las autoridades o funcionarios públicos que meramente tomaren parte en el abandono colectivo o manifiestamente ilegal de un servicio público esencial y con grave perjuicio de éste o de la comunidad, serán castigados con la pena de multa de ocho a doce meses.

409. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoek, era kolektiboan eta legearen aurka modu nabarian ari direla, herri-zerbitzu bat uztea sustatu, zuzendu edo antolatzen badute, agintari edo funtzionario publiko horiei zortzi hilabetetik hamabi arteko isun-zigorra ezarriko zaie, eta enplegu zein kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urte arte etengo zaie.

Agintari edo funtzionario publikoek parte-hartze hutsa badute oinarrizko herri-zerbitzu bat uztean, horrekin zerbitzu horri edo gizarteari berari kalte larria egiten badiote, eta uztea kolektiboa edo modu nabarian legearen aurkakoa bada, orduan, halakoei zortzi hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie.

CAPÍTULO III

De la desobediencia y denegación de auxilio

Artículo 410

1. Las autoridades o funcionarios públicos que se negaren abiertamente a dar el debido cumplimiento a resoluciones judiciales, decisiones u órdenes

III. KAPITULUA

Desobeditzea eta laguntzarik ez ematea

410. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoek argi eta garbi uko egiten badiote ebazpen judizialak, goragoko agintaritzaren erabakiak edo aginduak behar

de la autoridad superior, dictadas dentro del ámbito de su respectiva competencia y revestidas de las formalidades legales, incurrirán en la pena de multa de tres a doce meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, no incurrirán en responsabilidad criminal las autoridades o funcionarios por no dar cumplimiento a un mandato que constituya una infracción manifiesta, clara y terminante de un precepto de Ley o de cualquier otra disposición general.

Artículo 411

La autoridad o funcionario público que, habiendo suspendido, por cualquier motivo que no sea el expresado en el apartado segundo del artículo anterior, la ejecución de las órdenes de sus superiores, las desobedeciere después de que aquéllos hubieren desaprobado la suspensión, incurrirá en las penas de multa de doce a veinticuatro meses, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

Artículo 412

1. El funcionario público que, requerido por autoridad competente, no prestare el auxilio debido para la Administración de Justicia u otro servicio público, incurrirá en las penas de multa de tres a doce meses, y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

bezala betetzeari, betiere beren eskumenaren eremuan eta legeak ezartzen dituen formalitateekin eman direnean, orduan, halakoei hiru hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei hilabetetik bi urte artekoa.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, agintari edo funtzionario publikoek ez dute erantzukizun kriminalik izango manamendu bat ez betetzeagatik, betiere manamendu horrek modu nabari, argi eta garbian, legearen edo beste edozein xedapen orokorren manu bat hausten duenean.

411. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak bere nagusiek emandako aginduen betearazpena eteten badu, aurreko artikuluaren bigarren paragrafoan azaltzen ez diren zioetatik edozeinen ondorioz, eta horren ostean, beraren nagusiek etendura hori gaitzetsi eta gero, agindu horiek desobeditzen baditu, orduan, horri hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru artekoa.

412. artikulua

1. Agintari eskudunak eskatu arren, funtzionario publikoak beharrezkoa den laguntza ematen ez badio Justizia Administrazioari edo beste zerbitzu publiko bati, orduan, funtzionario horri hiru hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urte arte etengo zaio.

2. Si el requerido fuera autoridad, jefe o responsable de una fuerza pública o un agente de la autoridad, se impondrán las penas de multa de doce a dieciocho meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de dos a tres años.

3. La autoridad o funcionario público que, requerido por un particular a prestar algún auxilio a que venga obligado por razón de su cargo para evitar un delito contra la vida de las personas, se abstuviera de prestarlo, será castigado con la pena de multa de dieciocho a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de tres a seis años.

Si se tratase de un delito contra la integridad, libertad sexual, salud o libertad de las personas, será castigado con la pena de multa de doce a dieciocho meses y suspensión de empleo o cargo público de uno a tres años.

En el caso de que tal requerimiento lo fuera para evitar cualquier otro delito u otro mal, se castigará con la pena de multa de tres a doce meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

2. Eskaera jasotzen duena agintaritza, indar publiko baten burua edo arduraduna, edo agintaritzaren agentea bada, hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa bi urtetik hiru arte etengo zaio.

3. Agintari edo funtzionario publikoak, norbanako batek pertsonen bizitzaren aurkako delitu bat galarazteko laguntza eskatzen dionean, laguntzarik ematen ez badio, betiere bere karguaren zioz laguntza hori emateko betebeharra duenean, orduan, horri hemezortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, hiru urtetik sei artekoa.

Pertsonen osotasunaren, sexu-askatasunaren, osasunaren edo askatasunaren aurkako delitua bada, hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarri, eta enplegu edo kargualdi publikoa urtebetetik hiru arte etengo zaio.

Laguntza eskatzen denean beste edozein delitu edo kalte galarazteko, hiru hilabetetik hamabi arteko isuna ezarri, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urte arte etengo zaio.

CAPÍTULO IV

De la infidelidad en la custodia de documentos y de la violación de secretos

Artículo 413

La autoridad o funcionario público que, a sabiendas, sustrajere, destru-

IV. KAPITULUA

Desleialtasuna agirien zaintzan, eta sekretuak urratzea

413. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, jakinaren gainean egonik, bere

yere, inutilizare u ocultare, total o parcialmente, documentos cuya custodia le esté encomendada por razón de su cargo, incurrirá en las penas de prisión de uno a cuatro años, multa de siete a veinticuatro meses, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de tres a seis años.

karguaren zioz zaintzapean dituen agiriak, oso-osoan edo zati batean, ostu, suntsitu, deuseztatu edo ezkutatzen baditu, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta zazpi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, hiru urtetik sei artekoa.

Artículo 414

1. A la autoridad o funcionario público que, por razón de su cargo, tenga encomendada la custodia de documentos respecto de los que la autoridad competente haya restringido el acceso, y que a sabiendas destruya o inutilice los medios puestos para impedir ese acceso o consienta su destrucción o inutilización, incurrirá en la pena de prisión de seis meses a un año o multa de seis a veinticuatro meses y, en cualquier caso, inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

2. El particular que destruyere o inutilizare los medios a que se refiere el apartado anterior, será castigado con la pena de multa de seis a dieciocho meses.

414. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, bere kargua dela eta, agiri batzuk zaindu behar baditu, agintari eskudunak agiri horiek eskuratzea murriztu badu, eta harako agintari edo funtzionario publikoak, jakinaren gainean egonik, agiriok eskuratzea eragozteko jarri diren bideak suntsitu edo deuseztatzen baditu, edo suntsitzea zein deuseztatzea onartzen badu, orduan, agintari edo funtzionario publiko horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta, edozein kasutan, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru artekoa.

2. Norbanakoak suntsitu edo deuseztatzen baditu aurreko paragrafoan aipatzen diren bideak, sei hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaio.

Artículo 415

La autoridad o funcionario público no comprendido en el artículo anterior que, a sabiendas y sin la debida autorización, accediere o permitiere acceder a documentos secretos cuya custodia le esté confiada por razón de su cargo, incurrirá en la pena de multa de seis a

415. artikulua

Aurreko artikuluak barne hartzen ez duen agintari edo funtzionario publikoak, jakinaren gainean egonik eta behar besteko baimenik gabe, bere karguaren zioz zaintzapean dituen agiri sekretuak eskuratzen baditu edo horiek eskuratzea ahalbideratzen badu, or-

doce meses, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

Artículo 416

Serán castigados con las penas de prisión o multa inmediatamente inferiores a las respectivamente señaladas en los tres artículos anteriores los particulares encargados accidentalmente del despacho o custodia de documentos, por comisión del Gobierno o de las autoridades o funcionarios públicos a quienes hayan sido confiados por razón de su cargo, que incurran en las conductas descritas en los mismos.

Artículo 417

1. La autoridad o funcionario público que revelare secretos o informaciones de los que tenga conocimiento por razón de su oficio o cargo y que no deban ser divulgados, incurrirá en la pena de multa de doce a dieciocho meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

Si de la revelación a que se refiere el párrafo anterior resultara grave daño para la causa pública o para tercero, la pena será de prisión de uno a tres años, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de tres a cinco años.

2. Si se tratara de secretos de un particular, las penas serán las de prisión de dos a cuatro años, multa de doce a dieciocho meses, y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

duan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru artekoa.

416. artikulua

Lantzean behin agiriak bideratu edo zaintzen dituzten norbanakoei, aurreko hiru artikuluetan ezarritako espetxealdi-zigor edo isunak baino gradu bat gutxiagokoak ezarriko zaizkie, artikulu horietan azaldutako jokabideak egiten badituzte, Gobernuak edota karguaren zioz agiriok euren esku dituzten agintari edo funtzionario publikoek eskatuta dihardutenean.

417. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak agertarazten baditu bere ogibide edo karguaren zioz jakin bai baina zabaldu behar ez diren sekretu edo informazioak, orduan, horri hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru artekoa.

Aurreko lerrokadan aipatzen den agertarazpenak Herri Administrazioari edo beste bati kalte larria badakarkio, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, hiru urtetik bost artekoa.

2. Agertarazitako sekretuak norbanako batenak badira, bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ere, eta enplegu edo kargualdi publikoa urtebetetik hiru arte etengo zaio.

Artículo 418

El particular que aprovechare para sí o para un tercero el secreto o la información privilegiada que obtuviere de un funcionario público o autoridad, será castigado con multa del tanto al triplo del beneficio obtenido o facilitado. Si resultara grave daño para la causa pública o para tercero, la pena será de prisión de uno a seis años.

418. artikulua

Norbanakoak erabiltzen badu funtzionario publiko edo agintari baten bidez lortutako sekretu edo informazio pribilejiatua, bai bere onurarako bai beste inoren onurarako, orduan, norbanako horri isuna ezarriko zaio, berak lortutako edo emandako onuratik horren hiru halako artekoa. Herri Administrazioarentzat edo beste inorentzat kalte larria gertatzen bada, urtebetetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

CAPÍTULO V
Del cohecho

Artículo 419

La autoridad o funcionario público que, en provecho propio o de un tercero, solicitare o recibiere, por sí o por persona interpuesta, dádiva o presente o aceptare ofrecimiento o promesa para realizar en el ejercicio de su cargo una acción u omisión constitutivas de delito, incurrirá en la pena de prisión de dos a seis años, multa del tanto al triplo del valor de la dádiva e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de siete a doce años, sin perjuicio de la pena correspondiente al delito cometido en razón de la dádiva o promesa.

V. KAPITULUA
Funtzionario-eroskeria

419. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere onurarako edo beste inoren onurarako, bere kabuz edo beste pertsona baten bidez, emaria edo eskuerakutsia eskatu edo jasotzen badu edota eskaintza edo hitzematea onartzen badu, bere karguan aritzean delitua den egite edo ez-egitea gauzatzeko, orduan, horri bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta emariaren baliotik horren hiru halako arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, zazpi urtetik hamabi artekoa; horrek ez dio kalterik egingo emari edo hitzematearen ondorioz egindako delituaren zigorrari.

Artículo 420

La autoridad o funcionario público que, en provecho propio o de un tercero, solicite o reciba, por sí o por per-

420. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere onurarako edo beste inoren onurarako, bere kabuz edo beste per-

sona interpuesta, dádiva o promesa por ejecutar un acto injusto relativo al ejercicio de su cargo que no constituya delito, y lo ejecute, incurrirá en la pena de prisión de uno a cuatro años e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis a nueve años, y de prisión de uno a dos años e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de tres a seis años, si no llegara a ejecutarlo. En ambos casos se impondrá, además, la multa del tanto al triplo del valor de la dádiva.

tsona baten bidez, emaria edo hitzematea eskatu edo jasotzen badu, bere karguan aritzearekin zerikusia izanik delitua ez den eta zuzena ez den egintza gauzatzeko, eta egintza hori gauzatzen badu, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei urtetik bederatzi artekoa, eta egintza gauzatzen ez badu, orduan, urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, hiru urtetik sei artekoa. Horrezaz gain, aurreko bi kasu horietan, isuna ezarriko zaio, emariaren baliotik horren hiru halako artekoa.

Artículo 421

Cuando la dádiva solicitada, recibida o prometida tenga por objeto que la autoridad o funcionario público se abstenga de un acto que debiera practicar en el ejercicio de su cargo, las penas serán de multa del tanto al duplo del valor de la dádiva e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

421. artikulua

Eskatu, jaso edo hitzemandako emariaren xedea denean agintari edo funtzionario publikoak bere karguan aritzean gauzatu behar duen egintza ez gauzatzea, zigorra izango da emariaren baliotik horren bi halako arteko isuna eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru artekoa.

Artículo 422

Lo dispuesto en los artículos precedentes será también aplicable a los jurados, árbitros, peritos, o cualesquiera personas que participen en el ejercicio de la función pública.

422. artikulua

Aurreko artikuluetan xedatutakoa epaimahaikoei, tartekariei, adituei edo funtzio publikoa betetzen duten pertsonetatik beste edozeini ere aplikatuko zaio.

Artículo 423

1. Los que con dádivas, presentes, ofrecimientos o promesas corrompieren o intentaren corromper a las autoridades o funcionarios públicos serán

423. artikulua

1. Norbaitzuek agintari edo funtzionario publikoak usteltzen badituzte edo usteltzen saiatzen badira, emari, eskuerakutsi, eskaintza edo hitzemateekin,

castigados con las mismas penas de prisión y multa que éstos.

2. Los que atendieren las solicitudes de las autoridades o funcionarios públicos, serán castigados con la pena inferior en grado a la prevista en el apartado anterior.

Artículo 424

Cuando el soborno mediare en causa criminal en favor del reo por parte de su cónyuge u otra persona a la que se halle ligado de forma estable por análoga relación de afectividad, o de algún ascendiente, descendiente o hermano, por naturaleza, por adopción o afines en los mismos grados, se impondrá al sobornador la pena de multa de tres a seis meses.

Artículo 425

1. La autoridad o funcionario público que solicitare dádiva o presente o admitiere ofrecimiento o promesa para realizar un acto propio de su cargo o como recompensa del ya realizado, incurrirá en la pena de multa del tanto al triplo del valor de la dádiva y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a tres años.

2. En el caso de recompensa por el acto ya realizado, si éste fuera constitutivo de delito se impondrá, además, la pena de prisión de uno a tres años, multa de seis a diez meses e inhabilitación especial para empleo o cargo

orduan, halakoei agintari edo funtzionario horiei dagozkien espetxealdizigor eta isun-zigor berberak ezarriko zaizkie.

2. Norbaitzuek agintari edo funtzionario publikoen eskabideak onartzen badituzte, orduan, halakoei aurreko paragrafoan ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaie.

424. artikulua

Erruztatuaren mesedetan auzi kriminalean eroskeria denean, eta eroskeria egin duena erruztatuaren ezkontidea edo antzeko maitasun-harremanen bidez erruztatuarekin era iraunkorrean lotuta dagoen pertsona bada, edota erruztatuaren odol nahiz adopzio bidezko aurrekoa, ondorengoa edo nebaarreba bada, edota gradu berberetan erruztatuaren ezkonsenidea bada, orduan, eroskeria egin duen horri hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko zaio.

425. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak emari zein esku-erakutsia eskatzen badu, edota eskaintza zein hitzematea onartzen badu bere karguari dagokion egintza gauzatzeko edo egintza gauzatuaren sari gisa, orduan, horri isuna ezarriko zaio, emariaren baliotik horren hiru halako artekoa, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik hiru urte arte etengo zaio.

2. Horrezaz gain, egintza gauzatuarengatik saria jasotzen duen kasuan, egintza hori delitua bada, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da eta sei hilabetetik hamar arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu

público por tiempo de diez a quince años.

Artículo 426

La autoridad o funcionario público que admitiere dádiva o regalo que le fueren ofrecidos en consideración a su función o para la consecución de un acto no prohibido legalmente, incurrirá en la pena de multa de tres a seis meses.

Artículo 427

Quedará exento de pena por el delito de cohecho el particular que haya accedido ocasionalmente a la solicitud de dádiva o presente realizada por autoridad o funcionario público y denunciare el hecho a la autoridad que tenga el deber de proceder a su averiguación, antes de la apertura del correspondiente procedimiento, siempre que no hayan transcurrido más de diez días desde la fecha de los hechos.

publikorako desgaikuntza berezia ere, hamar urtetik hamabost artekoa.

426. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak emari edo oparia onartzen badu, eta emari edo opari hori eskaintzen bazaio beraren funtzioa kontuan izanik edo legeak debekatzen ez duen egintza gauzatzeko, orduan, horri hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko zaio.

427. artikulua

Funtzionario-eroskeriaren delituari dagokion zigorretik salbuetsita geratuko da norbanakoa, baldin eta agintari edo funtzionario publikoak eskatutako emari edo esku-erakutsia, behin ematea onartu ondoren, ikertzeko betebeharra duen agintariari egitatea salatzen badio horren inguruko prozedura hasi aurretik, betiere salaketa aurkezten duenean, egitateak gertatu diren datatik hamar egunera baino gutxiagoko epean.

CAPÍTULO VI
Del tráfico de influencias

Artículo 428

El funcionario público o autoridad que influyere en otro funcionario público o autoridad prevaliéndose del ejercicio de las facultades de su cargo o de cualquier otra situación derivada de su relación personal o jerárquica con éste o con otro funcionario o autoridad para conseguir una resolución que le pueda generar directa o indirectamente un beneficio económico para

VI. KAPITULUA
Eragimen-trafikoa

428. artikulua

Funtzionario publiko edo agintariak, zuzenean edo zeharka, berarentzat edo beste inorentzat onura ekonomikoa ekar dezakeen ebazpena lortzeko, beste funtzionario publiko edo agintari bati eragiten badio, bere karguari dagozkion ahalmenen egikaritzaz baliatuz, edota funtzionario publiko edo agintari horrekin edo beste batekin dituen harreman pertsonal edo hierar-

sí o para un tercero, incurrirá en las penas de prisión de seis meses a un año, multa del tanto al duplo del beneficio perseguido u obtenido, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de tres a seis años. Si obtuviere el beneficio perseguido se impondrán las penas en su mitad superior.

kikoek eratortzen dituzten egoeretatik beste edozeinez baliatuz, orduan, horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta bilatutako edo lortutako onuratik horren bi halako arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik sei artekoa. Bilatutako onura lortzen badu, zigorrak goiko erdian ezarriko dira.

Artículo 429

El particular que influyere en un funcionario público o autoridad prevaliéndose de cualquier situación derivada de su relación personal con éste o con otro funcionario público o autoridad para conseguir una resolución que le pueda generar, directa o indirectamente, un beneficio económico para sí o para un tercero, será castigado con las penas de prisión de seis meses a un año, y multa del tanto al duplo del beneficio perseguido u obtenido. Si obtuviere el beneficio perseguido se impondrán las penas en su mitad superior.

429. artikulua

Norbanakoak, zuzenean edo zeharka, berarentzat edo beste inorentzat onura ekonomikoa ekar dezakeen ebazpena lortzeko, funtzionario publiko edo agintari bati eragiten badio, funtzionario publiko edo agintari horrekin edo beste batekin dituen harreman pertsonalek eratortzen dituzten egoeretatik beste edozeinez baliatuz, orduan, norbanako horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta bilatu edo lortutako onuratik horren bi halako arteko isuna ere. Bilatutako onura lortzen badu, zigorrak goiko erdian ezarriko dira.

Artículo 430

Los que, ofreciéndose a realizar las conductas descritas en los artículos anteriores, solicitaren de terceros dádivas, presentes o cualquier otra remuneración, o aceptaren ofrecimiento o promesa, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a un año.

430. artikulua

Norbaitzuek, aurreko artikuluetan azaldutako jokabideak egiteko euren burua eskainiz, jokabideok egiteko emariak, esku-erakutsiak edo beste edozein ordainketa eskatzen badiete beste batzuei, edo eskaintza zein hitzematea onartzen badute, orduan, haiei sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

En cualquiera de los supuestos a que se refiere este artículo, la autoridad judicial podrá imponer también la sus-

Artikulu honek aipatzen dituen kasuetatik edozeinetan, agintaritza judizialak sozietate, enpresa, antola-

pensión de las actividades de la sociedad, empresa, organización o despacho y la clausura de sus dependencias abiertas al público por tiempo de seis meses a tres años.

kunde edo idazgelako jarduerak eten ahal izango ditu, bai eta jendaurrean zabalik dituen bulegoak itxi ere, sei hilabetetik hiru urte arte.

Artículo 431

En todos los casos previstos en este capítulo y en el anterior, las dádivas, presentes o regalos caerán en decomiso.

431. artikulua

Kapitulu honetan eta aurrekoan ezarritako kasu guztietan, emariak, esku-erakutsiak edo opariak konfiskatu egingo dira.

CAPÍTULO VII
De la malversación

VII. KAPITULUA
Bidegabeko eralgitzea

Artículo 432

1. La autoridad o funcionario público que, con ánimo de lucro, sustrajere o consintiere que un tercero, con igual ánimo, sustraiga los caudales o efectos públicos que tenga a su cargo por razón de sus funciones, incurrirá en la pena de prisión de tres a seis años e inhabilitación absoluta por tiempo de seis a diez años.

2. Se impondrá la pena de prisión de cuatro a ocho años y la de inhabilitación absoluta por tiempo de diez a veinte años si la malversación revistiera especial gravedad atendiendo al valor de las cantidades sustraídas y al daño o entorpecimiento producido al servicio público. Las mismas penas se aplicarán si las cosas malversadas hubieran sido declaradas de valor histórico o artístico, o si se tratara de efectos destinados a aliviar alguna calamidad pública.

432. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, irabaziak lortzeko asmoz, bere funtzioen zioz dituen ondasun edo efektu publikoak osten baditu edo asmo bera duen beste batek ondasun horiek ostea onartzen badu, orduan, horri hiru urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta sei urtetik hamar arteko desgaikuntza erabatekoa.

2. Lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta erabateko desgaikuntza ere, hamar urtetik hogei artekoa, baldin eta, ostutako zenbatekoen balioa eta zerbitzu publikoari eragindako kalte edo oztopoak kontuan izanik, bidegabeko eralgitzea larritasun berezikoa bada. Zigor berberak ezarriko dira, bidegabe eralgitako gauzek historia edo erti balioa dutela adierazita badago, edo bidegabe eralgitako efektuen helburua herri-lazeria arintzea bada.

3. Cuando la sustracción no alcance la cantidad de quinientas mil pesetas, se impondrán las penas de multa superior a dos y hasta cuatro meses, prisión de seis meses a tres años y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a un año.

3. Ostea bostehun mila pezeta baino gutxiagokoa denean, bi hilabetetik lau arteko isun-zigorra ezarriko da, bai eta sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ere, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik urtebete arte eten egingo da.

Artículo 433

La autoridad o funcionario público que destinare a usos ajenos a la función pública los caudales o efectos puestos a su cargo por razón de sus funciones, incurrirá en la pena de multa de seis a doce meses, y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a tres años.

Si el culpable no reintegrara el importe de lo distraído dentro de los diez días siguientes al de la incoación del proceso, se le impondrán las penas del artículo anterior.

433. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere eginkizunak direla eta, bere ardurapean jarritako ondasun edo efektuak destinatzen baditu funtzio publikoaz besteko erabileretarako, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik hiru urte etengo zaio.

Errudunak beste erabileretarako bideratutako zenbatekoa itzultzen ez badu prozesua hasi eta hurrengo hamar egunetan, aurreko artikuluko zigorrak ezarriko zaizkio.

Artículo 434

La autoridad o funcionario público que, con ánimo de lucro propio o ajeno y con grave perjuicio para la causa pública, diere una aplicación privada a bienes muebles o inmuebles pertenecientes a cualquier Administración o Entidad estatal, autonómica o local u Organismos dependientes de alguna de ellas, incurrirá en las penas de prisión de uno a tres años e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de tres a seis años.

434. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, berarentzat edo inorentzat irabaziak lortzeko asmoz eta Herri Administrazioari kalte larria eginez, estatuaren, autonomia erkidegoaren zein tokiko edozein administrazio edota erakunderen ondasun higigarri edo higiezinak, edota horien guztien menpeko erakundeenak, era pribatuan erabiltzen baditu, orduan, horri urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, hiru urtetik sei artekoa.

Artículo 435

Las disposiciones de este capítulo son extensivas:

1.º A los que se hallen encargados por cualquier concepto de fondos, rentas o efectos de las Administraciones públicas.

2.º A los particulares legalmente designados como depositarios de caudales o efectos públicos.

3.º A los administradores o depositarios de dinero o bienes embargados, secuestrados o depositados por autoridad pública, aunque pertenezcan a particulares.

435. artikulua

Kapitulu honetako xedapenak hurrengo hauei ere zabalduko zaizkie:

1.) Edozein arrazoiren ondorioz herri--administrazioen funts, errenta edo efektuez arduratzen direnei.

2.) Ondasunen edo efektu publikoen gordailuzain gisa legeak izendatutako norbanakoei.

3.) Agintaritza publikoak enbargatu, bahitu edo gordailuan utzitako diru edo ondasunen administratzaile nahiz gordailuzainei, diru edo ondasun horiek norbanakoenak badira ere.

CAPÍTULO VIII

De los fraudes y exacciones ilegales

Artículo 436

La autoridad o funcionario público que, interviniendo por razón de su cargo en cualquiera de los actos de las modalidades de contratación pública o en liquidaciones de efectos o haberes públicos, se concertara con los interesados o usase de cualquier otro artificio para defraudar a cualquier ente público, incurrirá en las penas de prisión de uno a tres años e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis a diez años.

Artículo 437

La autoridad o funcionario público que exigiere, directa o indirectamente, derechos, tarifas por aranceles o minutas que no sean debidos o en cuantía

VIII. KAPITULUA

Iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak

436. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere karguaren zioz edozein kontratazio publikotako egintzetan edo efektu nahiz hartzeko publikoen likidazioetan esku hartzen badu, eta, edozein erakunde publikori iruzur egiteko, interesdunekin ados jartzen bada, edo beste edozein trikimailu erabiltzen badu, orduan, horri urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei urtetik hamar artekoa.

437. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, zuzenean edo zeharka, ordaindu behar ez diren eskubideak, arantzelen tarifak edo minutak galdatzen baditu,

mayor a la legalmente señalada, será castigado, sin perjuicio de los reintegros a que viniere obligado, con las penas de multa de seis a veinticuatro meses y de suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a cuatro años.

edo aurreko horien inguruan legeak ezarritako zenbatekoa baino gehiago galdatzen badu, orduan, horri, egin behar dituen itzulketei kalterik egin gabe, sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik lau urte arte etengo zaio.

Artículo 438

La autoridad o funcionario público que, abusando de su cargo, cometiere algún delito de estafa o apropiación indebida, incurrirá en las penas respectivamente señaladas a éstos, en su mitad superior, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

438. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere karguaz abusatuz, maula edo bidegabeko jabetze delitua egiten badu, orduan, horri delitu horiei ezarritako zigorrak goiko erdian ezarriko zaizkio eta, horiekin batera, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, bi urtetik sei artekoa.

CAPÍTULO IX

De las negociaciones y actividades prohibidas a los funcionarios públicos y de los abusos en el ejercicio de su función

IX. KAPITULUA

Funtzionario publikoek debekatuta dituzten negoziazioak eta jarduerak, eta funtzionarioek euren funtzioan aritzean egindako abusuak

Artículo 439

La autoridad o funcionario público que, debiendo informar, por razón de su cargo, en cualquier clase de contrato, asunto, operación o actividad, se aproveche de tal circunstancia para forzar o facilitarse cualquier forma de participación, directa o por persona interpuesta, en tales negocios o actuaciones, incurrirá en la pena de multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a cuatro años.

439. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak bere karguaren zioz edozein motatako kontratu, gai, eragiketa edo jardueraren inguruan txostena eman behar badu, eta inguruabar horretaz aprobetxatzen bada negozio edo jardun horretan, bere parte-hartzea, nahiz zuzenekoa nahiz beste pertsona baten bidezkoa, edozein modutan behartu edo errazteko, orduan, horri hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, urtebetetik lau artekoa.

Artículo 440

Los peritos, árbitros y contadores partidores que se condujeren del modo previsto en el artículo anterior, respecto de los bienes o cosas en cuya tasación, partición o adjudicación hubieran intervenido, y los tutores, curadores o albaceas respecto de los pertenecientes a sus pupilos o testamentarías, serán castigados con la pena de multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, guarda, tutela o curatela, según los casos, por tiempo de tres a seis años.

440. artikulua

Aditu, tartekari eta kontulari-banatzaileek aurreko artikuluan ezarritako jokabidea badute, tasatu, banatu edo adjudikatzen dituzten ondasun edo gauzen inguruan, eta tutore, kuradore edo albazeek euren tutoretzapekoen edo euren testamentu bidezko ondasun eta gauzen inguruan, orduan, halakoei hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie eta, kasuan-kasuan, enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibide, zaintza, tutoretza edo kuradoretzarako desgaikuntza berezia, hiru urtetik sei artekoa.

Artículo 441

La autoridad o funcionario público que, fuera de los casos admitidos en las Leyes o Reglamentos, realizare, por sí o por persona interpuesta, una actividad profesional o de asesoramiento permanente o accidental, bajo la dependencia o al servicio de entidades privadas o de particulares, en asunto en que deba intervenir o haya intervenido por razón de su cargo, o en los que se tramiten, informen o resuelvan en la oficina o centro directivo en que estuviere destinado o del que dependa, incurrirá en las penas de multa de seis a doce meses, y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

441. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, lege edo erregelamenduek onartzen dituzten kasuetatik kanpo, bere kabuz edo beste pertsona baten bidez, lanbide-jarduera edo etengabeko zein lantzean behingo aholkularitza-jarduera egiten badu, erakunde pribatu edo norbanakoen erakundeen zerbitzupean, betiere jardueron gaien inguruan bere karguaren zioz esku hartu behar izan duenean edo hartu duenean, edota gai horien inguruan izapideak, txostenak edo ebazpenak ematen dituen bulegoan edo zuzendaritza-zentroan destinoa daukanean, edo horren menpe dagoenean, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa urtebetetik hiru arte etengo zaio.

Artículo 442

La autoridad o funcionario público que haga uso de un secreto del que tenga conocimiento por razón de su oficio o

442. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere ogibide edo karguaren zioz dakien sekretua edo informazio pribi-

cargo, o de una información privilegiada, con ánimo de obtener un beneficio económico para sí o para un tercero, incurrirá en las penas de multa del tanto al triplo del beneficio perseguido, obtenido o facilitado e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a cuatro años. Si obtuviere el beneficio perseguido se impondrán las penas en su mitad superior.

Si resultara grave daño para la causa pública o para tercero, la pena será de prisión de uno a seis años, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de siete a diez años. A los efectos de este artículo, se entiende por información privilegiada toda información de carácter concreto que se tenga exclusivamente por razón del oficio o cargo público y que no haya sido notificada, publicada o divulgada.

Artículo 443

Será castigado con la pena de prisión de uno a dos años e inhabilitación absoluta por tiempo de seis a doce años, la autoridad o funcionario público que solicitare sexualmente a una persona que, para sí misma o para su cónyuge u otra persona con la que se halle ligado de forma estable por análoga relación de afectividad, ascendiente, descendiente, hermano, por naturaleza, por adopción, o afín en los mismos grados, tenga pretensiones pendientes de la resolución de aquél o acerca de las cuales deba evacuar informe o elevar consulta a su superior.

lejiatua erabiltzen badu, berak edo beste inorentzat onura ekonomikoa lortzeko asmoz, orduan, horri isuna ezarriko zaio, bilatu, lortu edo emandako onuratik horren hiru halako artekoa eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa. Bilatutako onura lortzen badu, zigorrak goiko erdian ezarriko dira.

Herri Administrazioarentzat edo beste inorentzat kalte larria gertatzen bada, urtebetetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, zazpi urtetik hamar artekoa. Artikulu honen ondoreetarako, informazio pribilejiatutzat hartzen da nork bere ogibide edo kargu publikoaren zioz soilsoilik duen informazioa, informazio hori izaera konkretukoa bada eta jakinarazi, argitaratu edo zabaldu ez bada.

443. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoari urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei urtetik hamabi arteko desgaikuntza erabatekoa ere, norbaiti sexu-harremanak eskatuz gero, baldin eta agintari edo funtzionario horrek ebazpena edo txostena eman behar badu edota bere nagusiari kontsulta helarazi behar badio uzi jakin batzuei buruz, eta uzi horiek eskaera jaso duen pertsonarenak badira edo beraren ezkontidearenak, edota antzeko maitasun-harremanen bidez berarekin era iraunkorrean lotuta dagoen pertsonarenak, edota horren odol nahiz adopzio bidezko aurreko, ondorengo nahiz neba-arrebarenak, edota gradu berberetan horren ezkonsenide direnenak.

Artículo 444

1. El funcionario de Instituciones Penitenciarias o de centros de protección o corrección de menores que solicitare sexualmente a una persona sujeta a su guarda, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años, e inhabilitación absoluta por tiempo de seis a doce años.

2. En las mismas penas incurrirán cuando la persona solicitada fuera ascendiente, descendiente, hermano, por naturaleza, por adopción, o afines en los mismos grados, de persona que tuviere bajo su guarda. Incurrirá, asimismo, en estas penas cuando la persona solicitada sea cónyuge de persona que tenga bajo su guarda o se halle ligada a ésta de forma estable por análoga relación de afectividad.

444. artikulua

1. Espetxeetako funtzionarioak edo adingabeak babestu edo zuzentzeko zentroen funtzionarioak sexu-harremanak eskatzen badizkio bere zaintzapean dagoen pertsona bati, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta sei urtetik hamabi arteko desgaikuntza erabatekoa.

2. Zigor berberak ezarriko dira, sexu-harremanak eskatzen bazaizkio haren zaintzapean dagoen pertsonaren odol nahiz adopzio bidezko aurreko, ondorengo nahiz neba-arrebari, edota gradu berberetan horren ezkonsenide direnei. Zigor berberak ezarriko dira, halaber, sexu-harremanak eskatzen bazaizkio haren zaintzapean dagoenaren ezkontideari edo zaintzapean dagoenarekin antzeko maitasun-harremanen bidez era iraunkorrean lotuta dagoen pertsonari.

Artículo 445

Las penas previstas en los dos artículos anteriores se impondrán sin perjuicio de las que correspondan por los delitos contra la libertad sexual efectivamente cometidos.

445. artikulua

Aurreko bi artikuluetako zigorrak ezarriko dira, sexu-askatasunaren aurka egindako delituei dagozkien zigorrei kalterik egin gabe.

TÍTULO XIX BIS

DE LOS DELITOS DE CORRUPCIÓN EN LAS TRANSACCIONES COMERCIALES INTERNACIONALES

XIX BIS TITULUA

USTELKERIA-DELITUAK, NAZIOARTEKO MERKATARITZA-TRATUETAN

Artículo 445 bis

Los que, con dádivas, presentes, ofrecimientos o promesas, corrompie-

445 bis artikulua

Norbaitzuek, beren kabuz edo beste inoren bidez, emari, esku-eraku-

ren o intentaren corromper, por sí o por persona interpuesta, a las autoridades o funcionarios públicos extranjeros o de organizaciones internacionales en el ejercicio de su cargo en beneficio de éstos o de un tercero, o atendieren a sus solicitudes al respecto, con el fin de que actúen o se abstengan de actuar en relación con el ejercicio de funciones públicas para conseguir o conservar un contrato u otro beneficio irregular en la realización de actividades económicas internacionales, serán castigados con las penas previstas en el artículo 423, en sus respectivos casos.

tsi, eskaintza edo hitzemateekin, atzerriko agintariak edo funtzionario publikoak nahiz nazioarteko antolakundeetakoak usteltzen badituzte edo usteltzen saiatzen badira, horiek karguan diharduten bitartean, horien onurarako nahiz beste inoren onurarako, edota norbaitzuek agintari edo funtzionario publiko horien eskabideak onartzen badituzte, funtzio publikoan jardutean zerbait egin dezaten edo egin ez dezaten, nazioarteko jarduera ekonomikoak gauzatzean bidegabeko kontratu edo onura bat lortzeko edo horri eusteko, orduan, halakoei 423. artikuluko zigorrak ezarriko zaizkie kasuan-kasuan.

TÍTULO XX
DELITOS CONTRA LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA

CAPÍTULO I
De la prevaricación

Artículo 446

El Juez o Magistrado que, a sabiendas, dictare sentencia o resolución injusta será castigado:

1.º Con la pena de prisión de uno a cuatro años si se trata de sentencia injusta contra el reo en causa criminal por delito y la sentencia no hubiera llegado a ejecutarse, y con la misma pena en su mitad superior y multa de doce a veinticuatro meses si se ha ejecutado.

XX. TITULUA
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Prebarikazioa

446. artikulua

Epaile edo magistratuak, jakinaren gainean egonik, zuzena ez den epaia edo ebazpena ematen badu, zigor hauetatik bat ezarriko zaio:

1.) Urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra, baldin eta, delituaren ondoriozko auzi kriminalean, errudunaren aurka zuzena ez den epaia eman baina hori betearazi ez bada, eta aurreko zigor hori goiko erdian ezarriko da, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau

En ambos casos se impondrá, además, la pena de inhabilitación absoluta por tiempo de diez a veinte años.

2.º Con la pena de multa de seis a doce meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis a diez años, si se tratara de una sentencia injusta contra el reo dictada en proceso por falta.

3.º Con la pena de multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de diez a veinte años, cuando dictara cualquier otra sentencia o resolución injustas.

Artículo 447

El Juez o Magistrado que por imprudencia grave o ignorancia inexcusable dictara sentencia o resolución manifiestamente injusta incurrirá en la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

Artículo 448

El Juez o Magistrado que se negase a juzgar, sin alegar causa legal, o so pretexto de oscuridad, insuficiencia o silencio de la Ley, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis meses a cuatro años.

Artículo 449

1. En la misma pena señalada en el artículo anterior incurrirá el Juez, Magistrado o Secretario Judicial culpable de retardo malicioso en la Administración de Justicia. Se entenderá por mali-

arteko isuna ere, epaia betearazi bada. Horrezaz gain, kasu bi horietan, erabateko desgaikuntza ezarriko da, hamar urtetik hogei artekoa.

2.) Sei hilabetetik hamabi arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, sei urtetik hamar artekoa, faltaren ondoriozko prozesuan, errudunaren aurka zuzena ez den ebazpena ematen bada.

3.) Hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, hamar urtetik hogei artekoa, beste edozein epai edo ebazpen ematen badu eta hori zuzena ez bada.

447. artikulua

Epaile edo magistratuak, zuhurtziagabekeria astun edo ezjakite barkaezinarengatik, argiro zuzena ez den epai edo ebazpena ematen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, bi urtetik sei artekoa.

448. artikulua

Epaile edo magistratuak epaitzeari uko egiten badio, legezko arrazoirik azaldu gabe edo legearen iluntasun, askiez edo isiltasunaren aitzakian, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, sei hilabetetik lau urte artekoa.

449. artikulua

1. Aurreko artikuluan ezarritako zigor berbera ezarriko zaio epaile, magistratu edo idazkari judizialari, Justizia Administrazioan asmoz gaiztoz gertatutako atzerapenaren erruduna ba-

cioso el retardo provocado para conseguir cualquier finalidad ilegítima.

2. Cuando el retardo sea imputable a funcionario distinto de los mencionados en el apartado anterior, se le impondrá la pena indicada, en su mitad inferior.

da. Atzerapena asmo gaiztoz gertatu dela ulertuko da, baldin eta bidezko ez den helburua lortzeko eragin bada.

2. Atzerapena aurreko paragrafoan aipatzen diren funtzionarioez besteko bati egotzi behar zaionean, funtzionario horri zigor hori beheko erdian ezarriko zaio.

CAPÍTULO II

De la omisión de los deberes de impedir delitos o de promover su persecución

Artículo 450

1. El que, pudiendo hacerlo con su intervención inmediata y sin riesgo propio o ajeno, no impidiere la comisión de un delito que afecte a las personas en su vida, integridad o salud, libertad o libertad sexual, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años si el delito fuera contra la vida, y la de multa de seis a veinticuatro meses en los demás casos, salvo que al delito no impedido le correspondiera igual o menor pena, en cuyo caso se impondrá la pena inferior en grado a la de aquél.

2. En las mismas penas incurrirá quien, pudiendo hacerlo, no acuda a la autoridad o a sus agentes para que impidan un delito de los previstos en el apartado anterior y de cuya próxima o actual comisión tenga noticia.

II. KAPITULUA

Delituak eragozteko edo delituen pertsekuzioa sustatzeko eginbeharren ez-betetzea

450. artikulua

1. Norbaitek pertsonen bizitzaren, osotasun edo osasunaren, askatasunaren edo sexu-askatasunaren aurkako delitua egitea eragozten ez badu, nahiz eta delitu hori eragotzi ahal izan, berehala esku hartuz eta berarentzat edo inorentzat arriskurik izan gabe, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio pertsonen bizitzaren aurkako delituen kasuan, eta sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna gainerako kasuetan, salbu eta eragozten ez den delituari zigor hori edo txikiagoa dagokionean. Kasu horretan, delitu horri dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, aurreko paragrafoan ezarritako delituetatik bat egingo dela edo egiten ari dela jakinda, agintaritza edo beraren agenteengana delitu hori eragotz dezaten jotzen ez duenari, betiere horiengana jo ahal duenean.

CAPÍTULO III
Del encubrimiento

Artículo 451

Será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años el que, con conocimiento de la comisión de un delito y sin haber intervenido en el mismo como autor o cómplice, interviniere con posterioridad a su ejecución, de alguno de los modos siguientes:

1.º Auxiliando a los autores o cómplices para que se beneficien del provecho, producto o precio del delito, sin ánimo de lucro propio.

2.º Ocultando, alterando o inutilizando el cuerpo, los efectos o los instrumentos de un delito, para impedir su descubrimiento.

3.º Ayudando a los presuntos responsables de un delito a eludir la investigación de la autoridad o de sus agentes, o a sustraerse a su busca o captura, siempre que concurra alguna de las circunstancias siguientes:

a) Que el hecho encubierto sea constitutivo de traición, homicidio del Rey, de cualquiera de sus ascendientes o descendientes, de la Reina consorte o del consorte de la Reina, del Regente o de algún miembro de la Regencia, o del Príncipe heredero de la Corona, genocidio, rebelión, terrorismo u homicidio.

b) Que el favorecedor haya obrado con abuso de funciones públicas. En este caso se impondrá, además de la pena de privación de libertad, la de

III. KAPITULUA
Estaltzea

451. artikulua

Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio delitu egin dela jakinda eta delitu horretan egile edo sopikun gisa parte hartu gabe, delitu hori gauzatu eta gero modu hauetako batean esku hartzen duenari:

1.) Berarentzat irabazia lortzeko asmorik gabe, egile edo sopikunei laguntza ematen dienari, horiek delituaren probetxu, ekoizkin edo preziotik onura atera dezaten.

2.) Delitu baten gorputza, efektuak edo tresnak ezkutatu, aldatu edo deuseztatzen dituenari, delitu horren ezagutarazpena eragozteko.

3.) Delitu baten ustezko erantzuleei laguntza ematen dienari agintaritza zein beraren agenteen ikerketa saihesteko, edo horien bilaketa edo harrapaketatik ihes egiteko, hurrengo inguruabarren bat gertatzen bada:

a) Egitate estalia traizioa edo Erregearen, beraren edozein aurrekoren nahiz ondorengoren giza hilketa bada; Erregina-ezkontidearen edo Erreginaren ezkontidearen giza hilketa bada; Erregeordearen, Erregeordetzaren kide baten edo Koroaren printze jaraunslearen giza hilketa bada; genozidioa, asaldaketa, terrorismoa edo giza hilketa bada.

b) Ahalbideratzaileak funtzio publikoez abusatuz jarduten badu. Kasu horretan, zigor askatasun-gabetzaileaz gain, enplegu edo kargu publikorako

inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a cuatro años si el delito encubierto fuere menos grave, y la de inhabilitación absoluta por tiempo de seis a doce años si aquél fuera grave.

desgaikuntza berezia ezarriko da, bi urtetik lau artekoa, delitu estalia astuntasun txikiagokoa bada, eta erabateko desgaikuntza ezarriko da, sei urtetik hamabi artekoa, delitu estali hori astuna bada.

Artículo 452

En ningún caso podrá imponerse pena privativa de libertad que exceda de la señalada al delito encubierto. Si éste estuviera castigado con pena de otra naturaleza, la pena privativa de libertad será sustituida por la de multa de seis a veinticuatro meses, salvo que el delito encubierto tenga asignada pena igual o inferior a ésta, en cuyo caso se impondrá al culpable la pena de aquel delito en su mitad inferior.

452. artikulua

Ezin izango da inoiz ezarri delitu estaliari dagokion zigor askatasun-gabetzailea baino handiagoa dena. Delitu horren zigorra beste izaera batekoa baldin bada, zigor askatasun-gabetzailearen ordez, sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko da, salbu eta delitu estaliari dagokion zigorra isun hori berori edo zigor txikiagoa denean; kasu horretan, delitu estaliari dagokion zigorra beheko erdian ezarriko zaio errudunari.

Artículo 453

Las disposiciones de este capítulo se aplicarán aun cuando el autor del hecho encubierto sea irresponsable o esté personalmente exento de pena.

453. artikulua

Kapitulu honen xedapenak aplikatuko dira, nahiz eta egitate estalia gauzatzen duenak erantzukizunik ez izan edo zigorretik era pertsonalean salbuetsita egon.

Artículo 454

Están exentos de las penas impuestas a los encubridores los que lo sean de su cónyuge o de persona a quien se hallen ligados de forma estable por análoga relación de afectividad, de sus ascendientes, descendientes, hermanos, por naturaleza, por adopción, o afines en los mismos grados, con la sola excepción de los encubridores que se hallen comprendidos en el supuesto del número 1.º del artículo 451.

454. artikulua

Estaltzaileei dagozkien zigorretatik salbuetsita daude euren ezkontidea edo antzeko maitasun-harremanen bidez era iraunkorrean eurekin lotuta dagoen pertsona, odol nahiz adopzio bidezko aurreko, ondorengo zein neba-arrebak, edota gradu berberetan ezkonsenide direnak estaltzen dituztenak; horiek guztiak salbuetsita daude, 451. artikuluko 1. zenbakian daudenak izan ezik.

CAPÍTULO IV
De la realización arbitraria del propio derecho

Artículo 455

1. El que, para realizar un derecho propio, actuando fuera de las vías legales, empleare violencia, intimidación o fuerza en las cosas, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses.

2. Se impondrá la pena superior en grado si para la intimidación o violencia se hiciera uso de armas u objetos peligrosos.

IV. KAPITULUA
Norberaren eskubidea nahierara egikaritzea

455. artikulua

1. Norbaitek, bere eskubidea egikaritzeko, legezko bideetatik kanpo jardunez, indarkeria, larderia, edo gauzetan indarra erabiltzen badu, sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio.

2. Aurreko paragrafoko zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da, larderia edo indarkeriarako arma edo objektu arriskutsuak erabiltzen badira.

CAPÍTULO V
De la acusación y denuncia falsas y de la simulación de delitos

Artículo 456

1. Los que, con conocimiento de su falsedad o temerario desprecio hacia la verdad, imputaren a alguna persona hechos que, de ser ciertos, constituirían infracción penal, si esta imputación se hiciera ante funcionario judicial o administrativo que tenga el deber de proceder a su averiguación, serán sancionados:

1.º Con la pena de prisión de seis meses a dos años y multa de doce a veinticuatro meses, si se imputara un delito grave.

2.º Con la pena de multa de doce a veinticuatro meses, si se imputara un delito menos grave.

V. KAPITULUA
Akusazio eta salaketa faltsuak, eta delituen itxura egitea

456. artikulua

1. Norbaitzuek pertsona bati egitate faltsuak egozten badizkiote, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, eta egitateok, egiazkoak izanez gero, arau-hauste penal izango liratekeen horietakoak badira, eta egozpen hori egiten bada egitateok ikertzeko betebeharra duen funtzionario judizialaren edo administrazioko funtzionarioaren aurrean, orduan, zigor hauek ezarriko zaizkie harakoei:

1.) Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, delitu astuna egozten badute.

2.) Hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna; astuntasun txikiagoko delitua egozten badute.

3.º Con la pena de multa de tres a seis meses, si se imputara una falta.

2. No podrá procederse contra el denunciante o acusador sino tras sentencia firme o auto también firme, de sobreseimiento o archivo del Juez o Tribunal que haya conocido de la infracción imputada. Estos mandarán proceder de oficio contra el denunciante o acusador siempre que de la causa principal resulten indicios bastantes de la falsedad de la imputación, sin perjuicio de que el hecho pueda también perseguirse previa denuncia del ofendido.

3.) Hiru hilabetetik sei arteko isuna, falta bat egozten badute.

2. Salatzaile edo akusatzailearen aurka joateko, egotzitako arau-haustearen eskumena izan duen epaile edo auzitegiak epai irmoa eman behar du edo, bestela, largespen edo artxibatze auto irmoa. Epaile edo auzitegiok ofizioz aginduko dute salatzaile edo akusatzailearen aurka jarduteko, auzi nagusiak nahikoa zantzu ondorioztatzen baditu egozpenaren faltsutasunari buruz; horrek ez dio kalterik egingo egitatea pertsegitu ahal izateari ofendituak egiten duen salaketaren bidez.

Artículo 457

El que, ante alguno de los funcionarios señalados en el artículo anterior, simulare ser responsable o víctima de una infracción penal o denunciare una inexistente, provocando actuaciones procesales, será castigado con la multa de seis a doce meses.

457. artikulua

Norbaitek, aurreko artikuluan adierazitako funtzionarioetatik baten aurrean, arau-hauste penal baten ondorioz erantzule edo biktima dela itxura egiten badu, edota gertatu gabeko arau-hauste penalari buruzko salaketa egiten badu, eta prozesuko jarduna sortarazten badu, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio.

CAPÍTULO VI
Del falso testimonio

VI. KAPITULUA
Lekukotza faltsua

Artículo 458

1. El testigo que faltare a la verdad en su testimonio en causa judicial, será castigado con las penas de prisión de seis meses a dos años y multa de tres a seis meses.

2. Si el falso testimonio se diera en contra del reo en causa criminal por

458. artikulua

1. Lekukoak auzi judizialean bere lekukotzaz egia esaten ez badu, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdizigorra ezarriko zaio, bai eta hiru hilabetetik sei arteko isuna ere.

2. Erruztatuaren aurka eta delituaren ondoriozko auzi kriminalean ematen

delito, las penas serán de prisión de uno a tres años y multa de seis a doce meses. Si a consecuencia del testimonio hubiera recaído sentencia condenatoria, se impondrán las penas superiores en grado.

3. Las mismas penas se impondrán si el falso testimonio tuviera lugar ante Tribunales Internacionales que, en virtud de Tratados debidamente ratificados conforme a la Constitución Española, ejerzan competencias derivadas de ella, o se realizara en España al declarar en virtud de comisión rogatoria remitida por un Tribunal extranjero.

bada lekukotza faltsua, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere. Lekukotzaren ondorioz epai kondenatzailea eman bada, gradu bat gehiagoko zigorrak ezarriko dira.

3. Zigor berberak ezarriko dira lekukotza faltsua nazioarteko auzitegietan ematen denean, baldin eta auzitegi horiek Espainiako Konstituziotik ateratzen diren eskumenak erabiltzen badituzte, Espainiako Konstituzioaren arabera behar bezala berretsitako itunak direla bide; edota lekukotza faltsua Espainian gertatzen denean, atzerriko auzitegiak bidalitako erreguzko eskaera dela bide.

Artículo 459

Las penas de los artículos precedentes se impondrán en su mitad superior a los peritos o intérpretes que faltaren a la verdad maliciosamente en su dictamen o traducción, los cuales serán, además, castigados con la pena de inhabilitación especial para profesión u oficio, empleo o cargo público, por tiempo de seis a doce años.

459. artikulua

Aurreko artikuluko zigorrak, goiko erdian, ezarriko zaizkie aditu edo interpreteei, euren irizpen edo itzulpenean, asmo gaiztoz, egia esaten ez badute. Horrezaz gain, lanbide edo ogibide, enplegu nahiz kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaie, sei urtetik hamabi artekoa.

Artículo 460

Cuando el testigo, perito o intérprete, sin faltar sustancialmente a la verdad, la alterare con reticencias, inexactitudes o silenciando hechos o datos relevantes que le fueran conocidos, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses y, en su caso, de suspensión de empleo o cargo público, profesión u oficio, de seis meses a tres años.

460. artikulua

Lekuko, aditu edo interpreteak, funtsean egia esaten duelarik, egia hori aldatzen duenean itzulinguru edo zehaztugabetasunen bidez edo berak dakizkien egitate edo datu garrantzitsuak isilpean gordez, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio eta, hala badagokio, enplegu edo kargu publiko, lanbide nahiz ogibidearen etenaldia gertatuko da, sei hilabetetik hiru urte arte.

Artículo 461

1. El que presentare a sabiendas testigos falsos o peritos o intérpretes mendaces, será castigado con las mismas penas que para ellos se establecen en los artículos anteriores.

2. La misma pena se impondrá al que conscientemente presente en juicio elementos documentales falsos. Si el autor del hecho lo hubiera sido además de la falsedad, se impondrá la pena correspondiente al delito más grave en su mitad superior.

3. Si el responsable de este delito fuese abogado, procurador, graduado social o representante del Ministerio Fiscal, en actuación profesional o ejercicio de su función, se impondrá en cada caso la pena en su mitad superior y la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, por tiempo de dos a cuatro años.

461. artikulua

1. Norbaitek lekuko faltsuak edo aditu nahiz interprete gezurtiak aurkezten baditu, jakinaren gainean egonik, berari ere lekuko edo aditu horiei aurreko artikuluetan ezartzen zaizkien zigor berberak ezarriko zaizkio.

2. Zigor berbera ezarriko zaio, epaiketan kontzientziaz agiri faltsuak aurkezten dituenari. Horrezaz gain, aurreko egitatearen egilea faltsutzearen egilea bada, delitu astunagoari dagokion zigorra goiko erdian ezarriko zaio.

3. Delitu horren erantzulea abokatua, prokuradorea, lan-harremanetako graduduna edo Fiskaltzaren ordezkaria bada, lanbidean diharduenean edo bere funtzioan aritzean, kasuan-kasuan, delitu horri dagokion zigorra goiko erdian ezarriko da eta enplegu edo kargu publiko, lanbide nahiz ogibiderako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

Artículo 462

Quedará exento de pena el que, habiendo prestado un falso testimonio en causa criminal, se retracte en tiempo y forma, manifestando la verdad para que surta efecto antes de que se dicte sentencia en el proceso de que se trate. Si a consecuencia del falso testimonio, se hubiese producido la privación de libertad, se impondrán las penas correspondientes inferiores en grado.

462. artikulua

Zigorretik salbuetsita geratuko da, auzi kriminalean lekukotza faltsua eman eta gero, garaiz eta behar den moduan lekukotza faltsuan atzera jo eta egia esaten duena, epaia eman aurretik, horrek ondorioak sor ditzan prozesuan. Lekukotza faltsuaren ondorioz askatasunaz gabetu bada, hari dagozkion zigorrak baino gradu bat gutxiagokoak ezarriko dira.

CAPÍTULO VII

De la obstrucción a la Justicia y la deslealtad profesional

Artículo 463

1. El que, citado en legal forma, dejare voluntariamente de comparecer, sin justa causa, ante un Juzgado o Tribunal en proceso criminal con reo en prisión provisional, provocando la suspensión del juicio oral, será castigado con la pena de arresto de doce a dieciocho fines de semana y multa de seis a nueve meses. En la pena de multa de seis a nueve meses incurrirá el que, habiendo sido advertido lo hiciere por segunda vez en causa criminal sin reo en prisión, haya provocado o no la suspensión.

2. Si el responsable de este delito fuese abogado, procurador o representante del Ministerio Fiscal, en actuación profesional o ejercicio de su función, se le impondrá la pena en su mitad superior y la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, por tiempo de dos a cuatro años.

3. Si la suspensión tuviere lugar, en el caso del apartado 1 de este artículo, como consecuencia de la incomparecencia del Juez o miembro del Tribunal o de quien ejerza las funciones de Secretario Judicial, se impondrá la pena de arresto de dieciocho a veinticuatro fines de semana, multa de seis a doce meses de inhabilitación especial por tiempo de dos a cuatro años.

VII. KAPITULUA

Justiziari oztopo egitea eta lanbide-desleialtasuna

463. artikulua

1. Norbaitek, zitazioa legezko forman jaso arren, borondatez ez badu bere burua aurkezten epaitegi edo auzitegira, horretarako arrazoi zuzenik izan gabe, prozesu kriminal horretako erruztatua behin-behineko espetxealdi-zigorra betetzen egonik, eta horren ondorioz ahozko epaiketa eteten bada, orduan, horri hamabi asteburutik hemezortzi arteko atzipenaldia ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik bederatzi arteko isuna ere. Norbaitek, ohartarazpena jaso arren, ez badu bere burua bigarren aldian aurkezten auzi kriminalean, erruztatua espetxean egon barik, orduan, hari sei hilabetetik bederatzi arteko isuna ezarriko zaio, ahozko epaiketa eten zein eten ez.

2. Delitu horren erantzulea abokatua, prokuradorea, gizarte graduduna edo Fiskaltzaren ordezkaria bada, lanbidean diharduenean edo bere funtzioan aritzean, orduan, delituari dagokion zigorra goiko erdian ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publiko, lanbide nahiz ogibiderako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

3. Artikulu honen 1. paragrafoaren kasuan, epaileak, auzitegiaren kide batek edo idazkari judizialaren funtzioan aritzen denak bere burua aurkezten ez duelako eteten bada epaiketa, orduan, hemezortzi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldia ezarriko da, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna eta bi urtetik lau arteko desgaikuntza berezia ere.

Artículo 464

1. El que con violencia o intimidación intentare influir directa o indirectamente en quien sea denunciante, parte o imputado, abogado, procurador, perito, intérprete o testigo en un procedimiento para que modifique su actuación procesal, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa de seis a veinticuatro meses.

Si el autor del hecho alcanzara su objetivo se impondrá la pena en su mitad superior.

2. Iguales penas se impondrán a quien realizare cualquier acto atentatorio contra la vida, integridad, libertad, libertad sexual o bienes, como represalia contra las personas citadas en el apartado anterior, por su actuación en procedimiento judicial, sin perjuicio de la pena correspondiente a la infracción de que tales hechos sean constitutivos.

464. artikulua

1. Norbait saiatzen bada prozedura batean salatzailea, alderdi edo egotzia, abokatua, prokuradorea, aditua, interpretea edo lekukoa denari zuzenean edo zeharka eragiten, beraren prozesuko jarduna aldarazteko, indarkeria edo larderia erabiliz, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

Egitatearen egileak bere helburua lortzen badu, aurreko zigor hori goiko erdian ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio bizitzaren, osotasunaren, askatasunaren, sexu-askatasunaren edo ondasunen aurka edozein egintza gauzatzen duenari, berori gauzatzen bada aurreko paragrafoan aipatutako pertsonen aurkako errepresalia gisa, eurok prozedura judizialean izan duten jardunaren ondorioz; horrek ez dio kalterik egingo halako egitateek dakarten zigorrari, egitateok arau-haustea sortaraziz gero.

Artículo 465

1. El que, interviniendo en un proceso como abogado o procurador, con abuso de su función, destruyere, inutilizare u ocultare documentos o actuaciones de los que haya recibido traslado en aquella calidad, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años, multa de siete a doce meses e inhabilitación especial para su profesión, empleo o cargo público de tres a seis años.

465. artikulua

1. Norbaitek abokatu edo prokuradore gisa prozesu batean esku hartzen badu, eta gisa horretan jasotzen dituen agiriak edo jarduna, bere funtzioaz abusatuz, suntsitu, deuseztatu edo ezkutatzen baditu, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta zazpi hilabetetik hamabi arteko isuna, bai eta bere lanbide, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik sei artekoa.

2. Si los hechos descritos en el apartado primero de este artículo fueran realizados por un particular, la pena será de multa de tres a seis meses.

Artículo 466

1. El abogado o procurador que revelare actuaciones procesales declaradas secretas por la autoridad judicial, será castigado con las penas de multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo, cargo público, profesión u oficio de uno a cuatro años.

2. Si la revelación de las actuaciones declaradas secretas fuese realizada por el Juez o miembro del Tribunal, representante del Ministerio Fiscal, Secretario Judicial o cualquier funcionario al servicio de la Administración de Justicia, se le impondrán las penas previstas en el artículo 417 en su mitad superior.

3. Si la conducta descrita en el apartado primero fuere realizada por cualquier otro particular que intervenga en el proceso, la pena se impondrá en su mitad inferior.

Artículo 467

1. El abogado o procurador que, habiendo asesorado o tomado la defensa o representación de alguna persona, sin el consentimiento de ésta defienda o represente en el mismo asunto a quien tenga intereses contrarios, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses e inhabilitación especial para su profesión de dos a cuatro años.

2. Artikulu honen lehenengo paragrafoko egitateak norbanako batek gauzatzen baditu, hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko da.

466. artikulua

1. Abokatu edo prokuradoreak prozesuko jarduna kanporatzen badu, agintaritza judizialak jardun hori sekretua dela adierazi duelarik, orduan, hari hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu, kargu publiko, lanbide edo ogibiderako desgaikuntza berezia, urtebetetik lau artekoa.

2. Epaile edo auzitegiaren kide batek, Fiskaltzaren ordezkariak, idazkari judizialak edo Justizia Administrazioaren zerbitzupean dauden funtzionarioetatik edozeinek agertarazten badu sekretu gisa adierazitako jarduna, 417. artikuluko zigorrak goiko erdian ezarriko zaizkio.

3. Lehenengo paragrafoan azaldutako jokabidea prozesuan esku hartzen duten norbanakoetatik beste batek egiten badu, zigorra beheko erdian ezarriko da.

467. artikulua

1. Abokatu edo prokuradoreak, norbaiti aholku eman ondoren edo norbaiten defentsa egiteko edo hura ordezkatzeko ardura hartu ondoren, pertsona horren adostasunik gabe, kasu berean aurkako interesak dituenaren defentsa egiten edo hura ordezkatzen badu, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio eta lanbiderako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

2. El abogado o procurador que, por acción u omisión, perjudique de forma manifiesta los intereses que le fueren encomendados será castigado con las penas de multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo, cargo público, profesión u oficio de uno a cuatro años.

Si los hechos fueran realizados por imprudencia grave, se impondrán las penas de multa de seis a doce meses e inhabilitación especial para su profesión de seis meses a dos años.

2. Abokatu edo prokuradoreak, egitez edo ez-egitez, modu nabarian egiten badie kalte bere ardurapean dituen interesei, orduan, horri hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu, kargu publiko, lanbide edo ogibiderako desgaikuntza berezia, urtebetetik lau artekoa.

Egitateak zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz gauzatzen badira, sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko da, bai eta bere lanbiderako desgaikuntza berezia ere, sei hilabetetik bi urte artekoa.

CAPÍTULO VIII
Del quebrantamiento de condena

Artículo 468

Los que quebrantaren su condena, medida de seguridad, prisión, medida cautelar, conducción o custodia, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a un año si estuvieran privados de libertad, y con la multa de doce a veinticuatro meses en los demás casos.

Artículo 469

Los sentenciados o presos que se fugaren del lugar en que estén recluidos, haciendo uso de violencia o intimidación en las personas o fuerza en las cosas o tomando parte en motín, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a cuatro años.

VIII. KAPITULUA
Kondena urratzea

468. artikulua

Norbaitzuek urratzen badute ezarritako kondena, segurtasun-neurria, espetxealdia, kautela-neurria edo eramatea zein zaintza, orduan, halakoei sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, askatasunaz gabetuak badaude, eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie gainerako kasuetan.

469. artikulua

Epaituek edo presoek giltzapean sartuta dauden lekutik ihes egiten badute, pertsonen aurka indarkeria nahiz larderia edo gauzetan indarra erabiliz edota matxinadan parte hartuz, orduan, halakoei sei hilabetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

Artículo 470

1. El particular que proporcionare la evasión a un condenado, preso o detenido, bien del lugar en que esté recluido, bien durante su conducción, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año y multa de doce a veinticuatro meses.

2. Si se empleara al efecto violencia o intimidación en las personas, fuerza en las cosas o soborno, la pena será de prisión de seis meses a cuatro años.

3. Si se tratara de alguna de las personas citadas en el artículo 454, se les castigará con la pena de multa de tres a seis meses, pudiendo en este caso el Juez o Tribunal imponer tan sólo las penas correspondientes a los daños causados o a las amenazas o violencias ejercidas.

470. artikulua

1. Norbanakoak kondenatu, preso edo atxilotu bati ihes egitea ahalbideratzen badio, bai giltzapean dagoen lekutik, bai eta bera eraman bitartean ere, orduan, norbanako horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

2. Horretarako, pertsonen aurka indarkeria edo larderia, gauzetan indarra, edo eroskeria erabiltzen bada, sei hilabetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

3. 454. artikuluan aipatutako pertsonen kasuan, horiei hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko zaie. Kasu horretan, epaile edo auzitegiak ezarri ahal izango ditu eragindako kalte edo egindako mehatxu zein indarkeriei dagozkien zigorrak bakarrik.

Artículo 471

Se impondrá la pena superior en grado, en sus respectivos casos, si el culpable fuera un funcionario público encargado de la conducción o custodia de un condenado, preso o detenido. El funcionario será castigado, además, con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público de seis a diez años si el fugitivo estuviera condenado por sentencia ejecutoria, y con la inhabilitación especial para empleo o cargo público de tres a seis años en los demás casos.

471. artikulua

Kasuan-kasuan, gradu bat gehiagoko zigorra ezarriko da, baldin eta kondenatua, presoa edo atxilotua eramateaz edo zaintzeaz arduratzen den funtzionario publikoa bada erruduna. Horrezaz gain, funtzionarioari enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, sei urtetik hamar artekoa, iheslaria epai betearazlearen bidez kondenatua bada, eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, hiru urtetik sei artekoa gainerako kasuetan.

TÍTULO XXI
DELITOS CONTRA LA CONSTITUCIÓN

CAPÍTULO I
Rebelión

Artículo 472

Son reos del delito de rebelión los que se alzaren violenta y públicamente para cualquiera de los fines siguientes:

1.º Derogar, suspender o modificar total o parcialmente la Constitución.

2.º Destituir o despojar en todo o en parte de sus prerrogativas y facultades al Rey o al Regente o miembros de la Regencia, u obligarles a ejecutar un acto contrario a su voluntad.

3.º Impedir la libre celebración de elecciones para cargos públicos.

4.º Disolver las Cortes Generales, el Congreso de los Diputados, el Senado o cualquier Asamblea Legislativa de una Comunidad Autónoma, impedir que se reúnan, deliberen o resuelvan, arrancarles alguna resolución o sustraerles alguna de sus atribuciones o competencias.

5.º Declarar la independencia de una parte del territorio nacional.

6.º Sustituir por otro el Gobierno de la Nación o el Consejo de Gobierno de una Comunidad Autónoma, o usar o ejercer por sí o despojar al Gobierno o Consejo de Gobierno de una Comunidad Autónoma, o a cualquiera de sus

XXI. TITULUA
KONSTITUZIOAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Asaldatzea

472. artikulua

Asaldatzearen delitupeko errudunak dira jendaurrean indarkeria erabiliz altxatzen direnak, helburu hauetatik edozein lortzeko:

1.) Konstituzioa indargabetu, horren indarraldia eten edo, oso-osoan nahiz zati batean, aldaraztea.

2.) Errege, Erregeorde edo Erregeordetzaren kideak euren karguetatik kentzea; horiei, oso-osoan edo zati batean, onurabide eta ahalmenak kentzea, edota horiek behartzea, euren borondatearen aurkako egintza gauzatzera.

3.) Kargu publikoak hautatzeko hauteskunde askeak eragoztea.

4.) Gorte Nagusiak, Diputatuen Kongresua, Senatua edota edozein autonomia erkidegoren legebiltzarra desegitea; horiei biltzen, eztabaidatzen edo ebazpenak ematen eragoztea; ebazpenen bat ematera derrigortzea edo aginpide zein eskumenen bat kentzea.

5.) Nazio-lurraldearen zati baten independentzia aldarrikatzea.

6.) Nazioaren Gobernuaren edo autonomia erkidego baten Gobernu Kontseiluaren ordez beste bat jartzea; Gobernuaren nahiz autonomia erkidego baten Gobernu Kontseiluaren edo horietako edozein kideren ahalmenak

miembros de sus facultades, o impedirles o coartarles su libre ejercicio, u obligar a cualquiera de ellos a ejecutar actos contrarios a su voluntad.

7.º Sustraer cualquier clase de fuerza armada a la obediencia del Gobierno.

Artículo 473

1. Los que, induciendo a los rebeldes, hayan promovido o sostengan la rebelión, y los jefes principales de ésta, serán castigados con la pena de prisión de quince a veinticinco años e inhabilitación absoluta por el mismo tiempo; los que ejerzan un mando subalterno, con la de prisión de diez a quince años e inhabilitación absoluta de diez a quince años, y los meros participantes, con la de prisión de cinco a diez años e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis a diez años.

2. Si se han esgrimido armas, o si ha habido combate entre la fuerza de su mando y los sectores leales a la autoridad legítima, o la rebelión hubiese causado estragos en propiedades de titularidad pública o privada, cortado las comunicaciones telegráficas, telefónicas, por ondas, ferroviarias o de otra clase, ejercido violencias graves contra las personas, exigido contribuciones o distraído los caudales públicos de su legítima inversión, las penas de prisión serán, respectivamente, de veinticinco a treinta años para los

bere kabuz erabili, egikaritu edo kentzea, ahalmenen egikaritza askea eragoztea zein murriztea, edo haien borondatearen aurkako egitateak gauzatzera behartzea.

7.) Edonolako indar armatu Gobernuaren obedientziatik itzuraraztea.

473. artikulua

1. Norbaitzuek, asaldatuak induzituz, asaldatzea bera sustatu badute edo bultzatzen badute, edota asaldatzearen buru nagusiak badira, orduan, horiei hamabost urtetik hogeita bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta denbora bereko erabateko desgaikuntza ere; menpeko agintea dutenei hamar urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra, eta hamar urtetik hamabost arteko erabateko desgaikuntza; eta parte-hartzaile hutsei bost urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra, eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei urtetik hamar artekoa.

2. Armak azalarazi badira, edo asaldatuaren agindupeko indarraren eta bidezko agintaritzaren alderdi leialen artean borroka egon bada edota asaldatzeak kalte handiak eragin baditu titulartasun publiko edo pribatuko jabetzetan; telegrafo, telefono, uhin, burdinbide edo bestelako komunikabideak eten badira, pertsonen aurka indarkeria larria erabili bada, edota kontribuzioak galdatu edo herri-ondasunak beren legebidezko inbertsioetatik desbideratu badira, orduan, halakoei ezarritako espetxealdi-zigorrak izango dira, hurre-

primeros, de quince a veinticinco años para los segundos y de diez a quince años para los últimos.

nez hurren, hogeita bost urtetik hogeita hamar artekoa lehenengoentzat, hamabost urtetik hogeita bost artekoa bigarrenentzat eta hamar urtetik hamabost artekoa azkenekoentzat.

Artículo 474

Cuando la rebelión no haya llegado a organizarse con jefes conocidos, se reputarán como tales los que de hecho dirijan a los demás, o lleven la voz por ellos, o firmen escritos expedidos a su nombre, o ejerzan otros actos semejantes de dirección o representación.

474. artikulua

Asaldatzea buru ezagunekin antolatzera heldu ez denean, buru ezaguntzat hartuko dira egitez besteak gidatu edo horien izenean hitz egiten dutenak, beren izenean luzatutako idazkiak izenpetzen dituztenak, edo horien antzeko zuzendaritza edo ordezkaritzako beste egintza batzuk gauzatzen dituztenak.

Artículo 475

Serán castigados como rebeldes con la pena de prisión de cinco a diez años e inhabilitación absoluta por tiempo de seis a doce años los que sedujeren o allegaren tropas o cualquier otra clase de fuerza armada para cometer el delito de rebelión.

Si llegara a tener efecto la rebelión, se reputarán promotores y sufrirán la pena señalada en el artículo 473.

475. artikulua

Asaldatu gisa, bost urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei urtetik hamabi arteko erabateko desgaikuntza ere, asaldatze-delitua egiteko guda-taldeak edo bestelako indar armatu erakarri edo biltzen dituztenei.

Norbaitek tenpluan, kultu-lekuan edo zeremonia erlijiosoetan, legez babesturiko sentimendu erlijiosoak ofenditzen dituzten donauste-egintzak gauzatzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo lau hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio.

Artículo 525

1. Incurrirán en la pena de multa de ocho a doce meses los que, para ofender los sentimientos de los miembros de una confesión religiosa, hagan públicamente, de palabra, por escrito o mediante cualquier tipo de documento, escarnio de sus dogmas, creencias, ritos o ceremonias, o vejen, también públicamente, a quienes los profesan o practican.

2. En las mismas penas incurrirán los que hagan públicamente escarnio, de palabra o por escrito, de quienes no profesan religión o creencia alguna.

525. artikulua

1. Zortzi hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie erlijio baten kideen sentimenduak ofenditzearren, haren dogma, sinesmen, errito edo zeremoniei jendaurrean eskarnio egiten dietenei, hitzez, idatziz nahiz edozein agiriren bidez, edota, jendaurrean, iseka egiten dutenei aurreko dogma zein sinesmen horiek dituztenekiko edo errito nahiz zeremonia horiek egiten dituztenekiko.

2. Zigor berbera ezarriko zaie erlijio edo sinesmenik ez dutenekiko, hitzez edo idatziz, jendaurrean eskarnio egiten dutenei.

Artículo 526

El que, faltando al respeto debido a la memoria de los muertos, violare los sepulcros o sepulturas, profanare un cadáver o sus cenizas o, con ánimo de ultraje, destruyere, alterare o dañare las urnas funerarias, panteones, lápidas o nichos, será castigado con la pena de arresto de doce a veinticuatro fines de semana y multa de tres a seis meses.

526. artikulua

Norbaitek, hildakoen oroimenari zor zaion begirunea urratuz, hobiak nahiz hilobiak bortxatzen, edo gorpu bat nahiz beraren errautsak donausten baditu edota, idoi egiteko asmoz, errauts-kutxatilak, panteoiak, hilarriak zein horma-hilobiak, suntsitu, aldarazi edo horiei kalte egiten badie, orduan, horri hamabi asteburutik hogeita lau arteko atzipenaldi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hiru hilabetetik sei arteko isuna ere.

SECCIÓN III

De los delitos contra el deber del cumplimiento de la prestación social sustitutoria

III. ATALA

Ordezko gizarte-prestazioaren eginbeharraren aurkako delituak

Artículo 527

Será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo

527. artikulua

Enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, lau

público por tiempo de cuatro a seis años el objetor reconocido que:

1.º Llamado al cumplimiento del servicio que se le asigne, dejare de presentarse sin causa justificada, retrasando su incorporación al mismo por tiempo superior a un mes.

2.º Hallándose incorporado al referido servicio, dejare de asistir al mismo por más de veinte días consecutivos o treinta no consecutivos, sin justa causa.

3.º Incorporado para el cumplimiento de la prestación social sustitutoria, se negare de modo explícito o por actos concluyentes a cumplirla.

La inhabilitación incluirá la incapacidad para desempeñar cualquier empleo o cargo al servicio de las Administraciones, entidades o empresas públicas o de sus Organismos autónomos y, además, la imposibilidad de obtener subvenciones, becas o ayudas públicas de cualquier tipo durante el período de condena.

Una vez cumplida la condena impuesta, el penado quedará exento del cumplimiento de la prestación.

Artículo 528

Derogado por la disposición derogatoria única.

urtetik sei artekoa, aintzatetsitako kontzientzia-eragozleari, baldin eta:

1.) Esleitutako zerbitzua egiteko deia jaso duelarik, zerbitzu horretara bidezko arrazoirik gabe agertzen ez bada, zerbitzu horretarako eranstea hilabete baino gehiago atzeratuz.

2.) Zerbitzu horretara erantsi delarik, arrazoi zuzenik gabe zerbitzu horretara agertzen ez bada, ondoz ondoko hogei egunetan edo ondoz ondokoak ez diren hogeita hamar egunetan.

3.) Ordezko gizarte-prestazioa betetzera erantsi delarik, prestazioa betetzeari uko egiten badio, beren beregi edo egintza erabakigarrien bidez.

Desgaikuntzak ezgaitasuna ekarriko du administrazioen, erakunde edo enpresa publikoen edo horien erakunde autonomiadunen zerbitzupean edozein enplegu edo kargutan jarduteko, bai eta edozein motatako diru-laguntza, beka edo laguntza publiko lortzeko ezintasuna ere, kondenak irauten duen bitartean.

Ezarritako kondena bete ondoren, zigortua prestazioa betetzetik salbuetsita geratuko da.

528. artikulua

Xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetutakoa.

CAPÍTULO V
De los delitos cometidos por los funcionarios públicos contra las garantías constitucionales

SECCIÓN I
De los delitos cometidos por los funcionarios públicos contra la libertad individual

Artículo 529

1. El Juez o Magistrado que entregare una causa criminal a otra autoridad o funcionario, militar o administrativo, que ilegalmente se la reclame, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

2. Si además entregara la persona de un detenido, se le impondrá la pena superior en grado.

Artículo 530

La autoridad o funcionario público que, mediando causa por delito, acordare, practicare o prolongare cualquier privación de libertad de un detenido, preso o sentenciado, con violación de los plazos o demás garantías constitucionales o legales, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de cuatro a ocho años.

Artículo 531

La autoridad o funcionario público que, mediando causa por delito, decretare, practicare o prolongare la inco-

V. KAPITULUA
Konstituzio-bermeen aurka funtzionario publikoek egindako delituak

I. ATALA
Funtzionario publikoek gizabanakoaren askatasunaren aurka egindako delituak

529. artikulua

1. Epaile edo magistratuak auzi kriminal bat uzten badu beste agintari edo funtzionario administrazioko nahiz militar baten esku, azken horrek legearen aurka auzi kriminal hori erreklamatu diolako, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, sei hilabetetik bi urte artekoa.

2. Horrezaz gain, atxilotua agintari edo funtzionario horren esku uzten badu, aurreko zigor hori baino gradu bat gehiagokoa ezarriko zaio.

530. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, delituaren ondorioz auzia dagoelarik eta epeak edo konstituzioaren nahiz legearen gainerako bermeak urratuz, atxilotu, preso edo epaitu bat askatasunaz gabetzea erabakitzen, askatasunaz gabetzen edo askatasun-gabetze hori luzatzen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, lau urtetik zortzi artekoa.

531. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, delituaren ondorioz auzia dagoelarik eta epeak edo konstituzioaren nahiz legea-

municación de un detenido, preso o sentenciado, con violación de los plazos o demás garantías constitucionales o legales, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

ren gainerako bermeak urratuz, atxilotu, preso edo epaitu baten inkomunikazioa dekretatu, gauzatu edo luzatzen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, bi urtetik sei artekoa.

Artículo 532

Si los hechos descritos en los dos artículos anteriores fueran cometidos por imprudencia grave, se castigarán con la pena de suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

532. artikulua

Aurreko bi artikuluetan azaldutako egitateak zuhurtziagabekeria astunarengatik gauzatzen badira, orduan, enplegua edo kargualdi publikoa eteteko zigorra ezarriko da, sei hilabetetik bi urtera.

Artículo 533

El funcionario penitenciario o de centros de protección o corrección de menores que impusiere a los reclusos o internos sanciones o privaciones indebidas, o usare con ellos de un rigor innecesario, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

533. artikulua

Espetxeko edo adingabeak babestu zein zuzentzeko zentroetako funtzionarioak giltzaperatu edo barneratuei ezartzen badizkie bidegabeko zehapen edo gabetzeak, edo horiekin beharrezkoa ez den zorroztasuna erabiltzen badu, orduan, funtzionario horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, bi urtetik sei artekoa.

Sección II

De los delitos cometidos por los funcionarios públicos contra la inviolabilidad domiciliaria y demás garantías de la intimidad

II. Atala

Funtzionario publikoek egoitza bortxaezintasunaren eta bizitza pribatuko beste bermeen aurka egindako delituak

Artículo 534

1. Será castigado con las penas de multa de seis a doce meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público de dos a seis años la autoridad o funcionario público que, mediando

534. artikulua

1. Sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, bi urtetik sei artekoa, agintari edo funtzionario publikoari, jokabide

causa por delito, y sin respetar las garantías constitucionales o legales:

1.º Entre en un domicilio sin el consentimiento del morador.

2.º Registre los papeles o documentos de una persona o los efectos que se hallen en su domicilio, a no ser que el dueño haya prestado libremente su consentimiento.

Si no devolviera al dueño, inmediatamente después del registro, los papeles, documentos y efectos registrados, las penas serán las de inhabilitación especial para empleo o cargo público de seis a doce años y multa de doce a veinticuatro meses, sin perjuicio de la pena que pudiera corresponderle por la apropiación.

2. La autoridad o funcionario público que, con ocasión de lícito registro de papeles, documentos o efectos de una persona, cometa cualquier vejación injusta o daño innecesario en sus bienes, será castigado con las penas previstas para estos hechos, impuestas en su mitad superior, y, además, con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

Artículo 535

La autoridad o funcionario público que, mediando causa por delito, interceptare cualquier clase de correspondencia privada, postal o telegráfica, con violación de las garantías constitucionales o legales, incurrirá en la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público de dos a seis años.

hauetatik bat egiten badu, delituaren ondorioz auzia dagoelarik eta konstituzioaren edo legearen bermeak errespetatu gabe:

1.) Egoitza batean sartzen bada, bizilagunaren adostasunik gabe.

2.) Pertsona baten paper edo agiriak edota horren egoitzan dauden gauzak miatzen baditu, jabeak askatasunez bere adostasuna ematen duenean izan ezik.

Miaketaren ondoren, jabeari ez badizkio berehala itzultzen miatutako paper, agiri eta gauzak, orduan, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko da, sei urtetik hamabi artekoa, eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, jabetzapenaren ondorioz ezar dakiekeen zigorrari kalterik egin gabe.

2. Agintari edo funtzionario publikoak, pertsona baten paper, agiri edo gauzak modu zilegian miatu bitartean, zuzena ez den iseka gauzatzen badu edota pertsona horren ondasunei beharrezkoa ez den kaltea egiten badie, orduan, horri gauzatu dituen egitateei dagozkien zigorrak, goiko erdian, ezarriko zaizkio eta, horiekin batera, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, bi urtetik sei artekoa.

535. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, delituaren ondorioz auzia dagoelarik, edozelako gutuneria pribatuaz, postazkoaz nahiz telegrafiazkoaz jabetzen bada, konstituzioaren edo legearen bermeak urratuz, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, bi urtetik sei artekoa.

Si divulgara o revelara la información obtenida, se impondrá la pena de inhabilitación especial, en su mitad superior, y, además, la de multa de seis a dieciocho meses.

Agintari edo funtzionario publikoari, berak lortutako informazioa zabaldu edo ezagutarazten badu, desgaikuntza berezia goiko erdian ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hemezortzi arteko isuna ere.

Artículo 536

La autoridad, funcionario público o agente de éstos que, mediando causa por delito, interceptare las telecomunicaciones o utilizare artificios técnicos de escuchas, transmisión, grabación o reproducción del sonido, de la imagen o de cualquier otra señal de comunicación, con violación de las garantías constitucionales o legales, incurrirá en la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público de dos a seis años.

Si divulgare o revelare la información obtenida, se impondrán las penas de inhabilitación especial, en su mitad superior y, además, la de multa de seis a dieciocho meses.

536. artikulua

Agintariak, funtzionario publikoak edo horien agenteak, delituaren ondorioz auzia dagoelarik eta konstituzioaren edo legearen bermeak urratuz, telekomunikazioen artean esku sartzen badu, edota trikimailu teknikoak erabiltzen baditu, soinua, irudia edo komunikaziorako seinaleetatik beste edozein entzun, igorri, irarri edo kopiatzeko, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, bi urtetik sei artekoa.

Lortutako informazioa zabaldu edo ezagutarazten badu, desgaikuntza berezia goiko erdian ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hemezortzi arteko isuna ere.

Sección III

De los delitos cometidos por los funcionarios públicos contra otros derechos individuales

III. Atala

Funtzionario publikoek gizabanakoen beste eskubideen aurka egindako delituak

Artículo 537

La autoridad o funcionario público que impida u obstaculice el derecho a la asistencia de abogado al detenido o preso, procure o favorezca la renuncia del mismo a dicha asistencia o no le informe de forma inmediata y de modo que le sea comprensible de sus dere-

537. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, atxilotu edo presoari eragotzi edo oztopatzen badio abokatuaren laguntza izateko eskubidea, eskubide horri uko egin diezaion ahalegintzen bada, edo eskubide horri uko egitea faboratzen badu, edota, berehala eta

chos y de las razones de su detención, será castigado con la pena de multa de cuatro a diez meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público de dos a cuatro años.

modu ulergarrian, beraren eskubideen eta atxiloketaren zioen berri ematen ez badio, orduan, horri lau hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

Artículo 538

La autoridad o funcionario público que establezca la censura previa o, fuera de los casos permitidos por la Constitución y las Leyes, recoja ediciones de libros o periódicos o suspenda su publicación o la difusión de cualquier emisión radiotelevisiva, incurrirá en la pena de inhabilitación absoluta de seis a diez años.

538. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak aurretiazko zentsura ezartzen badu, edo konstituzioak eta legeek baimentzen dituzten kasuetatik kanpo, liburu nahiz egunkarien argitaraldiez jabetzen bada, edo liburu zein egunkarien argitalpena edo irrati-telebistako edozein saioren hedapena eteten badu, orduan, horri erabateko desgaikuntza ezarriko zaio, sei urtetik hamar artekoa.

Artículo 539

La autoridad o funcionario público que disuelva o suspenda en sus actividades a una asociación legalmente constituida, sin previa resolución judicial, o sin causa legítima le impida la celebración de sus sesiones, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público de ocho a doce años y multa de seis a doce meses.

539. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, aurretiaz ebazpen judizialik izan gabe, legez eratutako elkartea desegiten edo horren jarduera eteten badu, edo, bidezko arrazoirik gabe, elkarte horri bilerak egitea eragozten badio, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabi artekoa eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna.

Artículo 540

La autoridad o funcionario público que prohiba una reunión pacífica o la disuelva fuera de los casos expresamente permitidos por las Leyes, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público de cuatro a ocho años y multa de seis a nueve meses.

540. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak bilera baketsua debekatu edo desegiten badu, legeek beren beregi baimentzen dituzten kasuetatik kanpo, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, lau urtetik zortzi artekoa, bai eta sei hilabetetik bederatzi arteko isuna ere.

Artículo 541

La autoridad o funcionario público que expropie a una persona de sus bienes fuera de los casos permitidos y sin cumplir los requisitos legales, incurrirá en las penas de inhabilitación especial para empleo o cargo público de uno a cuatro años y multa de seis a doce meses.

541. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak pertsona bati beraren ondasunen jabetza kentzen badio, legeek baimentzen dituzten kasuetatik kanpo eta lege betekizunak bete gabe, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, urtebetetik lau artekoa, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

Artículo 542

Incurrirá en la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a cuatro años la autoridad o el funcionario público que, a sabiendas, impida a una persona el ejercicio de otros derechos cívicos reconocidos por la Constitución y las Leyes.

542. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoari enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, urtebetetik lau artekoa, pertsona bati, jakinaren gainean egonik, herritarren beste eskubideak egikaritzea eragozten badio, betiere eskubide horiek konstituzioaren eta bestelako legeen bidez aintzatetsita daudenean.

CAPÍTULO VI
De los ultrajes a España

Artículo 543

Las ofensas o ultrajes de palabra, por escrito o de hecho a España, a sus Comunidades Autónomas o a sus símbolos o emblemas, efectuados con publicidad, se castigarán con la pena de multa de siete a doce meses.

VI. KAPITULUA
Espainiari idoi egitea

543. artikulua

Espainiaren, beraren autonomia erkidegoen edo beren ikur zein ezaugarrien aurka hitzez, idatziz edo egitez egindako ofentsa edo idoiek zazpi hilabetetik hamabi arteko isuna jasoko dute, betiere publizitatez egiten direnean.

TÍTULO XXII
DELITOS CONTRA EL ORDEN PÚBLICO

CAPÍTULO I
Sedición

Artículo 544

Son reos de sedición los que, sin estar comprendidos en el delito de rebelión, se alcen pública y tumultuariamente para impedir, por la fuerza o fuera de las vías legales, la aplicación de las Leyes o a cualquier autoridad, corporación oficial o funcionario público, el legítimo ejercicio de sus funciones o el cumplimiento de sus acuerdos, o de las resoluciones administrativas o judiciales.

Artículo 545

1. Los que hubieren inducido, sostenido o dirigido la sedición o aparecieren en ella como sus principales autores, serán castigados con la pena de prisión de ocho a diez años, y con la de diez a quince años, si fueran personas constituidas en autoridad. En ambos casos se impondrá, además, la inhabilitación absoluta por el mismo tiempo.

2. Fuera de estos casos, se impondrá la pena de cuatro a ocho años de prisión, y la de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de cuatro a ocho años.

Artículo 546

Lo dispuesto en el artículo 474 es aplicable al caso de sedición cuando ésta no haya llegado a organizarse con jefes conocidos.

XXII. TITULUA
ORDENA PUBLIKOAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Albaramendua

544. artikulua

Albaramendupeko erruztatuak dira, asaldatze-delitutik kanpo daudelarik, agerian eta modu nahasian altxatzen direnak, indarrez edo legezko bideetatik kanpo, legeen aplikazioa eragozteko, edozein agintari, korporazio ofizial edo funtzionario publikori beraren funtzioan bidezko eran jarduten edo beraren erabakiak betetzen eragozteko, edo Administrazioak edo epaileek emandako ebazpenak betetzen eragozteko.

545. artikulua

1. Norbaitzuek albaramendua induzitu, berari eutsi edo bera gidatzen badute edo albaramenduan egile nagusi gisa ageri badira, zortzi urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, eta agintari gisa diharduten pertsonak badira, hamar urtetik hamabost artekoa. Horrezaz gain, kasu bietan erabateko desgaikuntza ezarriko zaie zigorrak dirauen denbora berbererako.

2. Aurreko kasuetatik kanpo daudenei lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, lau urtetik zortzi artekoa.

546. artikulua

474. artikuluan xedatutakoa albaramendu-kasuan ere aplikatzekoa da, albaramendua ez bada buruzagi ezagunekin antolatu.

Artículo 547

En el caso de que la sedición no haya llegado a entorpecer de un modo grave el ejercicio de la autoridad pública y no haya tampoco ocasionado la perpetración de otro delito al que la Ley señale penas graves, los Jueces o Tribunales rebajarán en uno o dos grados las penas señaladas en este capítulo.

547. artikulua

Albaramenduak ez badu modu larrian oztopatu agintaritza publikoa erabiltzea eta, horrezaz gain, legeak zigor astunez zigortutako beste deliturik egitea eragin ez badu, epaile edo auzitegiek gradu bat edo bi jaitsiko dizkiete kapitulu honetan adierazitako zigorrei.

Artículo 548

La provocación, la conspiración y la proposición para la sedición serán castigadas con las penas inferiores en uno o dos grados a las respectivamente previstas, salvo que llegue a tener efecto la sedición, en cuyo caso se castigará con la pena señalada en el primer apartado del artículo 545, y a sus autores se los considerará promotores.

548. artikulua

Albaramendua egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin, betiere albaramendua gauzatzen ez denean. Albaramendua gauzatzen bada, 545. artikuluko lehenengo paragrafoko zigorra ezarriko da, eta haien egileak sustatzaile gisa hartuko dira.

Artículo 549

Lo dispuesto en los artículos 479 a 484 es también aplicable al delito de sedición.

549. artikulua

479. artikulutik 484.erakoetan xedatutakoa albaramenduari ere aplikatzekoa da.

CAPÍTULO II

De los atentados contra la autoridad, sus agentes y los funcionarios públicos, y de la resistencia y desobediencia

II. KAPITULUA

Agintaritzaren aurkako atentatuak, agintaritzaren agenteen eta funtzionario publikoen aurkako atentatuak, eta jarkitzea eta desobeditzea

Artículo 550

Son reos de atentado los que acometan a la autoridad, a sus agentes o funcionarios públicos, o empleen fuerza contra ellos, los intimiden gravemente o les hagan resistencia activa

550. artikulua

Atentatupeko erruztatuak dira agintariari, agintaritzaren agenteei edo funtzionario publikoei, euren karguetako funtzioetan ari direnean edo eginkizun horiek direla-eta jazartzen zaizkienak,

también grave, cuando se hallen ejecutando las funciones de sus cargos o con ocasión de ellas.

horien aurka indarra erabiltzen dutenak, horiek modu larrian larderiatzen dituztenak edo horiei modu aktibo eta larrian jarkitzen zaizkienak.

Artículo 551

1. Los atentados comprendidos en el artículo anterior serán castigados con las penas de prisión de dos a cuatro años y multa de tres a seis meses si el atentado fuera contra autoridad y de prisión de uno a tres años en los demás casos.

2. No obstante lo previsto en el apartado anterior, si la autoridad contra la que se atentare fuera miembro del Gobierno, de los Consejos de Gobierno de las Comunidades Autónomas, del Congreso de los Diputados, del Senado o de las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas, de las Corporaciones Locales, del Consejo General del Poder Judicial o Magistrado del Tribuna Constitucional, se impondrá la pena de prisión de cuatro a seis años y multa de seis a doce meses.

551. artikulua

1. Aurreko artikuluko atentatuak agintaritzaren aurka badira, bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorrarekin eta hiru hilabetetik sei arteko isunarekin zigortuko dira, eta beste kasu guztietan urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, atentatua jasaten duen agintaria Gobernuko kidea bada, autonomia erkidegoen Gobernu Kontseiluetako kidea, Diputatuen Kongresuko kidea, Senatuko kidea, autonomia erkidegoen legebiltzarretako kidea, tokikorporazioetako kidea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea edo Konstituzio Auzitegiko magistratua, espetxealdi-zigorra ezarriko da, lau urtetik sei artekoa, bai eta isuna ere, sei hilabetetik hamabi artekoa.

Artículo 552

Se impondrán las penas superiores en grado a las respectivamente previstas en el artículo anterior siempre que en el atentado concurra alguna de las circunstancias siguientes:

1.ª Si la agresión se verificara con armas u otro medio peligroso.

2.ª Si el autor del hecho se prevaliera de su condición de autoridad, agente de ésta o funcionario público.

552. artikulua

Aurreko artikuluan kasuan-kasuan ezarritako zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira, atentatuan inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

1.) Armak edo bestelako eskuarte arriskutsuak erabiliz egiten bada erasoa.

2.) Agintari, agintaritzaren agente edo funtzionario publiko izateaz baliatzen bada egitatearen egilea.

Artículo 553

La provocación, la conspiración y la proposición para cualquiera de los delitos previstos en los artículos anteriores, será castigada con la pena inferior en uno o dos grados a la del delito correspondiente.

553. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritako delituetatik edozein egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

Artículo 554

1. El que maltratare de obra o hiciere resistencia activa grave a fuerza armada en el ejercicio de sus funciones o con ocasión de ellas, será castigado con las penas establecidas en los artículos 551 y 552, en sus respectivos casos.

2. A estos efectos, se entenderán por fuerza armada los militares que, vistiendo uniforme, presten un servicio que legalmente esté encomendado a las Fuerzas Armadas y les haya sido reglamentariamente ordenado.

554. artikulua

1. Norbaitek indar armatu bati, bere funtzioetan ari denean, edo funtzio horiek direla eta, egitez tratu txarra ematen badio, edo era aktibo eta larrian jarkitzen bazaio, orduan, horri 551 eta 552. artikuluetan kasuan-kasuan ezartzen diren zigorrak ezarriko zaizkio.

2. Ondore horietarako indar armatutzat hartuko dira, uniformea jantzirik, legez Indar Armatuen ardurapean dagoen zerbitzua ematen duten militarrak, hori egiteko agindua arauz jaso badute.

Artículo 555

Las penas previstas en los artículos 551 y 552 se impondrán en un grado inferior, en sus respectivos casos, a los que acometan o intimiden a las personas que acudan en auxilio de la autoridad, sus agentes o funcionarios.

555. artikulua

551 eta 552. artikuluetan kasuan-kasuan ezarritako zigorrak baino gradu bat gutxiagokoak ezarriko zaizkie agintaria, agintaritzaren agenteak edo funtzionarioak laguntzeko hurbildu direnekiko jazartzea edo larderia gauzatzen dutenei.

Artículo 556

Los que, sin estar comprendidos en el artículo 550, resistieren a la autoridad o sus agentes, o los desobedecieren gravemente, en el ejercicio de sus funciones, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a un año.

556. artikulua

Norbaitzuk, 550. artikuluko kasuetatik kanpo daudelarik, euren funtzioetan ari diren agintariei edo agintaritzaren agenteei jarkitzen bazaizkie edo horiei modu larrian desobeditzen badiete, orduan, halakoei espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, sei hilabetetik urtebete artekoa.

CAPÍTULO III
De los desórdenes públicos

Artículo 557

Serán castigados con la pena de prisión de seis meses a tres años los que, actuando en grupo, y con el fin de atentar contra la paz pública, alteren el orden público causando lesiones a las personas, produciendo daños en las propiedades, obstaculizando las vías públicas o los accesos a las mismas de manera peligrosa para los que por ellas circulen, o invadiendo instalaciones o edificios, sin perjuicio de las penas que les puedan corresponder conforme a otros preceptos de este Código.

Artículo 558

Serán castigados con la pena de arresto de siete a veinticuatro fines de semana o multa de tres a doce meses, los que perturben gravemente el orden en la audiencia de un Tribunal o Juzgado, en los actos públicos propios de cualquier autoridad o corporación, en colegio electoral, oficina o establecimiento público, centro docente, o con motivo de la celebración de espectáculos deportivos o culturales.

Artículo 559

Los que perturben gravemente el orden público con objeto de impedir a alguna persona el ejercicio de sus derechos cívicos, serán castigados con las penas de multa de tres a doce meses y de inhabilitación especial para el derecho de sufragio pasivo por tiempo de dos a seis años.

III. KAPITULUA
Desordena publikoak

557. artikulua

Espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, sei hilabetetik hiru urte artekoa, taldeka jardunez eta herri-bakearen aurka atentatua egiteko asmoz, ordena publikoa eraldatzen dutenei, pertsonei lesioak eraginez, jabetzetan kalteak sortuz, herri-bideak edo horietarako sarbideak oztopatuz, betiere horietatik dabiltzanentzat arriskua sortarazten denean, edo instalazioetan edo eraikinetan indarrez sartuz; horrek ez dio kalterik egingo kode honen manuen arabera legozkiekeen zigorrak ezartzeari.

558. artikulua

Atzipenaldi-zigorra ezarriko zaie, zazpi asteburutik hogeita lau artekoa, edo isuna, hiru hilabetetik hamabi artekoa, ordenaren nahasmendu larria eragiten dutenei auzitegi edo epaitegi baten entzunaldian, edozein agintaritzari edo korporaziori dagozkion egintza publikoetan, hauteslekuan, bulego edo establezimendu publikoan, irakastegian edo kirol- nahiz kultura-ikuskizunak direla eta.

559. artikulua

Norbaitzuek ordena publikoan nahasmendu larria eragiten badute, pertsona bati herritar gisa dagozkion eskubideak egikaritzen eragozteko asmoz, orduan, halakoei hiru hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaie eta hautagai izateko eskubidea egikaritzeko desgaikuntza berezia, bi urtetik sei artekoa.

Artículo 560

1. Los que causaren daños que interrumpan, obstaculicen o destruyan líneas o instalaciones de telecomunicaciones o la correspondencia postal, serán castigados con la pena de prisión de uno a cinco años.

2. En la misma pena incurrirán los que causen daños en vías férreas u originen un grave daño para la circulación ferroviaria de alguna de las formas previstas en el artículo 382.

3. Igual pena se impondrá a los que dañen las conducciones o transmisiones de agua, gas o electricidad para las poblaciones, interrumpiendo o alterando gravemente el suministro o servicio.

560. artikulua

1. Norbaitzuek kalteak eragiten badituzte eta kalte horiek telekomunikazioko lineak edo instalazioak nahiz posta geldiarazi, oztopatu edo suntsitzen badituzte, orduan, halakoei espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, urtebetetik bost artekoa.

2. Zigor berbera ezarriko zaie burdinbideetan kalteak eragin dituztenei, edo 382. artikuluan ezarritako moduetatik batez burdinbidezko zirkulazioan kalte larria sortzen dutenei.

3. Zigor bera ezarriko zaie ura, gasa eta elektrizitatea herrietara daramaten bideei edo bidaltzeko tresnei kalte egiten dietenei, baldin eta horien hornidura edo zerbitzua geldiarazten edo modu larrian nahaspilatzen badute.

Artículo 561

El que, con ánimo de atentar contra la paz pública, afirme falsamente la existencia de aparatos explosivos u otros que puedan causar el mismo efecto, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de seis a dieciocho meses, atendida la alarma o alteración del orden efectivamente producida.

561. artikulua

Norbaitek, herri-bakearen aurka atentatu egiteko asmoz, lehergailuak edo ondore bera sor dezaketen bestelako aparatuak daudela modu faltsuan adierazten badu, orduan, horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, sei hilabetetik urtebete artekoa, edo isuna, sei hilabetetik hemezortzi artekoa, benetan sortutako ikara edo ordena-eraldatzea kontuan hartuz.

CAPÍTULO IV

Disposición común a los capítulos anteriores

Artículo 562

En el caso de hallarse constituido en autoridad el que cometa cualquiera de los delitos expresados en los capítu-

IV. KAPITULUA

Aurreko kapitulu guztietarako xedapena

562. artikulua

Titulu honen aurreko kapituluetan azaldutako delituetatik edozein egiten duena agintari legez diharduen per-

los anteriores de este Título, la pena de inhabilitación que estuviese prevista en cada caso se sustituirá por la inhabilitación absoluta por tiempo de diez a quince años, salvo que dicha circunstancia esté específicamente contemplada en el tipo penal de que se trate.

tsona bada, kasuan-kasuan ezarritako desgaikuntza-zigorraren ordez erabateko desgaikuntza ezarriko da, hamar urtetik hamabost arteko denboran, delituari dagokion tipo penalak inguruabar hori zehatz biltzen duenean izan ezik.

CAPÍTULO V

V. KAPITULUA

De la tenencia, tráfico y depósito de armas, municiones o explosivos y de los delitos de terrorismo

Arma, munizio edo lehergailuen edukitze, trafiko eta gordailuan jartzea eta terrorismo-delituak

SECCIÓN I

I. ATALA

De la tenencia, tráfico y depósito de armas, municiones y explosivos

Arma, munizio edo lehergailuen edukitze, trafiko edo gordailuan jartzea

Artículo 563

La tenencia de armas prohibidas y la de aquellas que sean resultado de la modificación sustancial de las características de fabricación de armas reglamentadas, será castigada con la pena de prisión de uno a tres años.

563. artikulua

Debekatutako armak edukitzea urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorrarekin zigortuko da. Halaber, zigor bera ezarriko zaio araututako armak edukitzen dituenari, arma horien fabrikazio-ezaugarriek funtsezko aldarazpena jaso badute.

Artículo 564

1. La tenencia de armas de fuego reglamentadas, careciendo de las licencias o permisos necesarios, será castigada:

1.º Con la pena de prisión de uno a dos años, si se trata de armas cortas.

2.º Con la pena de prisión de seis meses a un año, si se trata de armas largas.

2. Los delitos previstos en el número anterior se castigarán, respectivamente, con las penas de prisión de dos

564. artikulua

1. Beharrezko lizentzia edo baimena izan gabe, araututako su-armak edukitzea honela zigortuko da:

1.) Urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorrarekin arma laburrak badira.

2.) Sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorrarekin, arma luzeak badira.

2. Aurreko zenbakian ezarritako delituak, hurrenez hurren, bi urtetik hiru arteko eta urtebetetik bi arteko espe-

a tres años y de uno a dos años, cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

1.ª Que las armas carezcan de marcas de fábrica o de número, o los tengan alterados o borrados.

2.ª Que hayan sido introducidas ilegalmente en territorio español.

3.ª Que hayan sido transformadas, modificando sus características originales.

Artículo 565

Los Jueces o Tribunales podrán rebajar en un grado las penas señaladas en los artículos anteriores, siempre que por las circunstancias del hecho y del culpable se evidencie la falta de intención de usar las armas con fines ilícitos.

Artículo 566

1. Los que fabriquen, comercialicen o establezcan depósitos de armas o municiones no autorizados por las Leyes o la autoridad competente serán castigados:

1.º Si se trata de armas o municiones de guerra o de armas químicas con la pena de prisión de cinco a diez años los promotores y organizadores, y con la de prisión de tres a cinco años los que hayan cooperado a su formación.

2.º Si se trata de armas de fuego reglamentadas o municiones para las mismas, con la pena de prisión de dos a cuatro años los promotores y organizadores, y con la de prisión de seis

txealdi-zigorrekin zigortuko dira, inguruabar hauetatik bat gertatzen bada:

1.) Armek fabrikazio-markarik edo zenbakirik ez edukitzea, edo marka nahiz zenbaki horiek aldatuta edo ezabatuta egotea.

2.) Armak nazio-lurraldean legearen aurka sartutakoak izatea.

3.) Armak itxuraldatuta egotea, armen jatorrizko ezaugarriak aldatuz.

565. artikulua

Epaile edo auzitegiek gradu bat jaitsi ahal izango diete aurreko artikuluetan adierazitako zigorrei, egitatearen eta errudunaren inguruabarrak kontuan hartuz, agerian jartzen bada ez dagoela armak zilegi ez den helburuarekin erabiltzeko asmorik.

566. artikulua

1. Norbaitzuek agintaritza eskudunak edo legeek baimentzen ez dituzten arma edo munizioak egin, merkaturatu edo gordailuan jartzen badituzte, zigor hauek ezarriko zaizkie:

1go) Gerrarako arma nahiz munizioak badira, edo arma kimikoak badira, sustatzaile edo antolatzaileei espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bost urtetik hamar artekoa, eta horiek eratzeko lagundu dutenei espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, hiru urtetik bost artekoa.

2.) Araupeko su-armak nahiz horientzako munizioak badira, sustatzaile eta antolatzaileei espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bi urtetik lau artekoa, eta horiek eratzeko lagundu dutenei espe-

meses a dos años los que hayan cooperado a su formación.

3.º Con las mismas penas será castigado, en sus respectivos casos, el tráfico de armas o municiones de guerra o de defensa, o de armas químicas.

2. Las penas contempladas en el punto 1.º del apartado anterior se impondrán a los que desarrollen o empleen armas químicas o inicien preparativos militares para su empleo.

Artículo 567

1. Se considera depósito de armas de guerra la fabricación, la comercialización o la tenencia de cualquiera de dichas armas, con independencia de su modelo o clase, aun cuando se hallen en piezas desmontadas. Se considera depósito de armas químicas la fabricación, la comercialización o la tenencia de las mismas.

El depósito de armas, en su vertiente de comercialización, comprende tanto la adquisición como la venta.

2. Se consideran armas de guerra las determinadas como tales en las disposiciones reguladoras de la Defensa Nacional. Se consideran armas químicas las determinadas como tales en los Tratados o Convenios Internacionales en los que España sea parte.

Se entiende por desarrollo de armas químicas cualquier actividad consistente en la investigación o estudio de carácter científico o técnico encaminada a la creación de una nueva arma química o la modificación de un preexistente.

txealdi-zigorra ezarriko zaie, sei hilabetetik bi urte artekoa.

3.) Zigor berberak ezarriko dira, kasuan-kasuan, gerrarako nahiz defentsarako armen edo munizioen trafikoa edo arma kimikoena zigortzeko.

2. Aurreko paragrafoaren 1. zenbakiko zigorrak ezarriko zaizkie arma kimikoak garatu edo erabiltzen dituztenei edota horiek erabiltzeko prestalan militarrak hasten dituztenei.

567. artikulua

1. Gerrarako armen gordailua ezartzea arma horietatik edozein fabrikatzea, merkaturatzea edo edukitzea da, euren modeloa edo mota kontuan hartu gabe, nahiz eta piezetan desarmatuta egon. Arma kimikoen gordailua ezartzea arma horiek fabrikatzea, merkaturatzea edo edukitzea da.

Gerrarako armen gordailua ezartzeak bere barnean hartzen ditu, horien merkaturatzeari dagokionez, erostea eta saltzea.

2. Gerrarako armak dira nazio-defentsa arautzen duten xedapenek gerrarako arma gisa zehazten dituztenak. Arma kimikoak dira Espainia kide den nazioarteko itun edo hitzarmenetan arma kimikotzat hartzen direnak.

Arma kimikoen garapentzat jotzen da edozein jarduera, baldin eta jarduera horren bitartez ikerketa edo azterketa zientifikoa edo teknikoa egiten bada, arma kimiko berria sortzeko edo aurretiaz dagoena aldarazteko.

3. Se considera depósito de armas de fuego reglamentadas la fabricación, comercialización o reunión de cinco o más de dichas armas, aun cuando se hallen en piezas desmontadas.

4. Respecto de las municiones, los Jueces y Tribunales, teniendo en cuenta la cantidad y clase de las mismas, declararán si constituyen depósito a los efectos de este capítulo.

Artículo 568

La tenencia o el depósito de sustancias o aparatos explosivos, inflamables, incendiarios o asfixiantes, o sus componentes, así como su fabricación, tráfico o transporte, o suministro de cualquier forma, no autorizado por las Leyes o la autoridad competente, serán castigados con la pena de prisión de cuatro a ocho años, si se trata de sus promotores y organizadores, y con la pena de prisión de tres a cinco años para los que hayan cooperado a su formación.

Artículo 569

Los depósitos de armas, municiones o explosivos establecidos en nombre o por cuenta de una asociación con propósito delictivo, determinarán la declaración judicial de ilicitud y su consiguiente disolución.

Artículo 570

En los casos previstos en este capítulo, si el delincuente estuviera autorizado para fabricar o traficar con alguna o algunas de las sustancias, armas y municiones mencionadas en el mismo, sufrirá, además de las penas señaladas, la de inhabilitación especial para el

3. Araupeko su-armak gordailuan jartzea da arma horietariko bost edo gehiago fabrikatzea, merkaturatzea edo biltzea da, nahiz eta piezetan desarmatuta egon.

4. Munizioei dagokienez, epaile eta auzitegiek adieraziko dute kapitulu honen ondoreetarako gordailuan jarri diren ala ez, munizioen kopurua eta mota kontuan hartuz.

568. artikulua

Gai edo aparatu lehergarri, sukoi, su-eragile edo itogarriak edota beraien osagaiak legeek edo agintaritza eskudunak baimentzen ez duten edukitzea edo gordailuan jartzea, fabrikatzea, trafikagai hartzea, garraiatzea nahiz edonola hornitzea lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorrarekin zigortuko da, horien sustatzaile eta antolatzaileei dagokienez, eta hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorrarekin, horiek eratzeko lagundu dutenei dagokienez.

569. artikulua

Elkarte baten izenean edo beraren kontura, arma, munizio edo lehergailuen gordailuak delitu egiteko asmoz ezartzen badira, epaileak elkarte horren ez-zilegitasuna adieraziko du eta, horren ondorioz, elkarte hori desegin egingo da.

570. artikulua

Kapitulu honetan ezarritako kasuetan, delitugileak baimena badu kapitulu berberean aipatzen diren gai, arma edo munizio bat edo batzuk fabrikatzeko nahiz trafikagai hartzeko, adierazitako zigorrez gain, bere industria edo merkataritzan aritzeko desgaikuntza

ejercicio de su industria o comercio por tiempo de doce a veinte años.

berezia ezarriko zaio, hamabi urtetik hogei artekoa.

Sección II
De los delitos de terrorismo

Artículo 571

Los que perteneciendo, actuando al servicio o colaborando con bandas armadas, organizaciones o grupos cuya finalidad sea la de subvertir el orden constitucional o alterar gravemente la paz pública, cometan los delitos de estragos o de incendios tipificados en los artículos 346 y 351, respectivamente, serán castigados con la pena de prisión de quince a veinte años, sin perjuicio de la pena que les corresponda si se produjera lesión para la vida, integridad física o salud de las personas.

Artículo 572

1. Los que perteneciendo, actuando al servicio o colaborando con las bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas descritos en el artículo anterior, atentaren contra las personas, incurrirán:

1.º En la pena de prisión de veinte a treinta años si causaran la muerte de una persona.

2.º En la pena de prisión de quince a veinte años si causaran lesiones de las previstas en los artículos 149 y 150 o secuestraran a una persona.

II. Atala
Terrorismo-delituak

571. artikulua

Norbaitzuek, banda armatu, antolakunde edo taldeetako kideak direla, edo horien zerbitzupean jardun edo horiekin elkarlanean ari direla, banda armatu, antolakunde edo taldeon helburua konstituzio-ordena iraultzea edo herri-bakea modu larrian eraldatzea denean, 346 eta 351. artikuluetan hurrenez hurren tipifikatzen diren kalte handiak edo suteak egiten badituzte, orduan, halakoei hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie. Horrek ez dio kalterik egingo inoren bizitzaren, osotasun fisikoaren edota osasunaren aurkako lesioa gertatu eta horri dagokion zigorra ezartzeari.

572. artikulua

1. Norbaitzuek, aurreko artikuluan azaldutako banda armatu, antolakunde edo talde terroristetako kideak direla, edo horien zerbitzupean jardun edo horiekin elkarlanean ari direla, inoren aurka atentatu egiten badute, orduan, halakoei zigor hauek ezarriko zaizkie:

1.) Espetxealdi-zigorra, hogei urtetik hogeita hamar artekoa, inoren heriotza eragiten badute.

2.) Espetxealdi-zigorra, hamabost urtetik hogei artekoa, 149 eta 150. artikuluetan ezarritako lesioetatik edozein eragiten badute edo norbait bahitzen badute.

3.º En la pena de prisión de diez a quince años si causaran cualquier otra lesión o detuvieran ilegalmente, amenazaran o coaccionaran a una persona.

2. Si los hechos se realizaran contra las personas mencionadas en el apartado 2 del artículo 551 o contra miembros de las Fuerzas Armadas, de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Policías de las Comunidades Autónomas o de los Entes locales, se impondrá la pena en su mitad superior.

Artículo 573

El depósito de armas o municiones o la tenencia o depósito de sustancias o aparatos explosivos, inflamables, incendiarios o asfixiantes, o de sus componentes, así como su fabricación, tráfico, transporte o suministro de cualquier forma, y la mera colocación o empleo de tales sustancias o de los medios o artificios adecuados, serán castigados con la pena de prisión de seis a diez años cuando tales hechos sean cometidos por quienes pertenezcan, actúen al servicio o colaboren con las bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas descritos en los artículos anteriores.

Artículo 574

Los que perteneciendo, actuando al servicio o colaborando con bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas, cometan cualquier otra infracción con alguna de las finalidades expresadas en el artículo 571, serán castigados con la pena señalada al de-

3.) Espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, hamar urtetik hamabost artekoa, bestelako edozein lesio eragiten badute edo norbait mehatxatu, derrigortu edo legearen aurka atxilotzen badute.

2. Zigorra goiko erdian ezarriko da egitateak gauzatzen badira 551. artikuluko 2. paragrafoko pertsonen aurka, Indar Armatuetako kideen aurka, estatuaren segurtasun-indar eta kidegoetako kideen aurka, autonomia erkidegoetako polizien aurka edo toki-erakundeetako kideen aurka.

573. artikulua

Arma edo munizioak gordailuan jartzea, gai edo aparatu lehergarri, sukoi, su-eragile edo itogarriak edota beraien osagaiak edukitzea eta gordailuan jartzea, arma, munizio, gai edo aparatu horiek fabrikatzea, trafikagai hartzea, garraiatzea nahiz horiez edonola hornitzea, edo aurreko gaiak edo bide eta trikimailu egokiak kokatze hutsa nahiz erabiltzea sei urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorrarekin zigortuko da, egitate horiek gauzatzen badituzte aurreko artikuluetan azaltzen diren banda armatu, antolakunde edo talde terroristetako kideek, edo horien zerbitzupean edo horiekin elkarlanean ari direnek.

574. artikulua

Norbaitzuek, banda armatu, antolakunde nahiz talde terroristetako kideak direla, edo horien zerbitzupean edo horiekin elkarlanean ari direla, bestelako arau-hausteak egiten badituzte, 571. artikuluan azaltzen diren helburuetako bat lortzeko, orduan, halakoei

lito o falta ejecutados en su mitad superior.

Artículo 575

Los que, con el fin de allegar fondos a las bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas señalados anteriormente, o con el propósito de favorecer sus finalidades, atentaren contra el patrimonio, serán castigados con la pena superior en grado a la que correspondiere por el delito cometido, sin perjuicio de las que proceda imponer conforme a lo dispuesto en el artículo siguiente por el acto de colaboración.

Artículo 576

1. Será castigado con las penas de prisión de cinco a diez años y multa de dieciocho a veinticuatro meses el que lleve a cabo, recabe o facilite, cualquier acto de colaboración con las actividades o las finalidades de una banda armada, organización o grupo terrorista.

2. Son actos de colaboración la información o vigilancia de personas, bienes o instalaciones; la construcción, el acondicionamiento, la cesión o la utilización de alojamientos o depósitos; la ocultación o traslado de personas vinculadas a las bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas; la organización de prácticas de entrenamiento o la asistencia a ellas, y, en general, cualquier otra forma equivalente de cooperación, ayuda o mediación, económica o de otro género, con las actividades de las citadas bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas.

egindako falta edo delituari dagokion zigorra goiko erdian ezarriko zaie.

575. artikulua

Norbaitzuek ondarearen aurka atentatu egiten badute, lehen aipatutako banda armatu edo antolakunde nahiz talde terroristentzat dirua bildu edo euren helburuak ahalbideratzeko asmoz, orduan, halakoei egindako delituari dagokion zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko zaie; horrek ez dio kalterik egingo elkarlaneko egintzarengatik hurrengo artikuluaren arabera ezarri behar den zigorra ezartzeari.

576. artikulua

1. Espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bost urtetik hamar artekoa, bai eta isuna ere, hemezortzi hilabetetik hogeita lau artekoa, banda armatu, antolakunde edo talde terrorista baten jarduera nahiz helburuekin elkarlaneko egintzetatik edozein gauzatu, eskatu edo errazten duenari.

2. Elkarlaneko egintzak dira pertsona, ondasun zein instalazioei buruz informatzea edo horiek zelatatzea, egonlekuak edo gordailuak eraiki, atondu, laga edo erabiltzea, banda armatu, antolakunde edo talde terroristekin loturarik duten pertsonak ezkutatzea edo toki batetik bestera eramatea, entrenamenduak antolatzea edo horietara joatea eta, oro har, banda armatu, antolakunde edo talde terrorista horien jarduerekin lankidetzan aritzea, horiei laguntzea nahiz horientzat bitartekotza egitea edo balio bera duen bestelako edozein egintza gauzatzea, ekonomikoa nahiz edozein motatakoa.

Cuando la información o vigilancia de personas mencionada en el párrafo anterior ponga en peligro la vida, la integridad física, la libertad o el patrimonio de las mismas, se impondrá la pena prevista en el apartado 1, en su mitad superior. Si llegara a ejecutarse el riesgo prevenido, se castigará el hecho como coautoría o complicidad, según los casos.

Aurreko lerrokadan aipatutako pertsonei buruzko informazio- edo zelatatze-egintzak 1. paragrafoan ezarritako zigorrarekin zigortuko dira, goiko erdian, egintza horiek arriskuan jartzen badute pertsona horien bizitza, osotasun fisikoa, askatasuna edo ondarea. Arrisku hori gauzatu egiten bada, kasuen arabera, egitatea egilekideei edo sopikunei dagozkien zigorrekin zigortuko da.

Artículo 577

Los que, sin pertenecer a banda armada, organización o grupo terrorista, y con la finalidad de subvertir el orden constitucional o de alterar gravemente la paz pública, o la de contribuir a estos fines atemorizando a los habitantes de una población o a los miembros de un colectivo social, político o profesional, cometieren homicidios, lesiones de las tipificadas en los artículos 149 ó 150, detenciones ilegales, secuestros, amenazas o coacciones contra las personas, o llevaren a cabo cualesquiera delitos de incendios, estragos, daños de los tipificados en los artículos 263 a 266, 323 ó 560, o tenencia, fabricación, depósito, tráfico, transporte o suministro de armas, municiones o sustancias o aparatos explosivos, inflamables, incendiarios o asfixiantes, o de sus componentes, serán castigados con la pena que corresponda al hecho cometido en su mitad superior.

577. artikulua

Norbaitzuek, banda armatu, antolakunde edo talde terroristetako kide izan barik, eta konstituzio-ordena iraultzeko edo herri-bakea modu larrian hausteko helburuarekin, edo xede horietan laguntzeko helburuarekin, herri bateko biztanleak edo gizarte-, politika- nahiz lanbide-talde bateko kideak ikaratuz, giza hilketak egiten badituzte, edo 149 eta 150. artikuluetan tipifikatutako lesioak, legearen aurkako atxiloketak, bahiketak, pertsonen aurkako mehatxuak edo derrigortzeak, edota sutedelitua, kalte handien delitua, 263. artikulutik 266.era artekoetan, 323. artikuluan edo 560. artikuluan tipifikatutako kalteak, nahiz armen, munizioen, gai edo aparatu lehergarri, sukoi, su-eragile edo itogarrien edota beraien osagaien edukitze, fabrikatze, gordailuan jartze, trafikagai hartze, garraiatze edo hornitze delituetatik edozein, orduan, halakoei egitate gauzatuari dagokion zigorra ezarriko zaie goiko erdian.

Artículo 578

El enaltecimiento o la justificación por cualquier medio de expresión pública o difusión de los delitos com-

578. artikulua

Edozein adierazpide edo hedabide publikoren bitartez goretsi edo bidezkotzen badira kode honen 571. artiku-

prendidos en los artículos 571 a 577 de este Código o de quienes hayan participado en su ejecución, o la realización de actos que entrañen descrédito, menosprecio o humillación de las víctimas de los delitos terroristas o de sus familiares se castigará con la pena de prisión de uno a dos años. El Juez también podrá acordar en la sentencia, durante el periodo de tiempo que el mismo señale, alguna o algunas de las prohibiciones previstas en el artículo 57 de este Código.

Artículo 579

1. La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos previstos en los artículos 571 a 578, se castigarán con la pena inferior en uno o dos grados a la que corresponda, respectivamente, a los hechos previstos en los artículos anteriores.

2. Los responsables de los delitos previstos en esta Sección, sin perjuicio de las penas que correspondan con arreglo a los artículos precedentes, serán también castigados con la pena de inhabilitación absoluta por un tiempo superior entre seis y veinte años al de la duración de la pena de privación de libertad impuesta, en su caso, en la Sentencia, atendiendo proporcionalmente a la gravedad del delito, el número de los cometidos y a las circunstancias que concurran en el delincuente.

3. En los delitos previstos en esta Sección, los Jueces y Tribunales, razonándolo en sentencia, podrán imponer la pena inferior en uno o dos grados a la señalada por la Ley para el delito de que se trate, cuando el sujeto haya

lutik 577.erakoetan jasotako delituak, horien egikaritzan parte hartu duten pertsonak, edota terrorismo-delituetako biktimen edo beraien senideen izen ona zikintzea edo horiek gutxietsi nahiz umiliatzea dakarten egintzak gauzatzen badira, orduan, urtebetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da. Gainera, epaileak epaian bertan erabaki dezake, berak ezartzen duen denboraldian zehar, kode honen 57. artikuluan ezarritako debekuetatik bat edo batzuk.

579. artikulua

1. 571. artikulutik 578.erakoetan ezarritako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortu egingo dira, aurreko artikuluetan ezarritako egitate bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

2. Atal honetan ezarritako delituen erantzuleei, aurreko artikuluen arabera dagozkien zigorrei kalterik egin barik, erabateko desgaikuntza zigorra ezarriko zaie, eta desgaikuntza hori epaian, hala denean, askatasunaz gabetzeko ezarri den zigorra baino sei urtetik hogei arte luzeagoa izango da, delituaren astuntasuna, egindako delitu-kopurua eta delitugilearen inguruko inguruabarrak kontuan hartuz.

3. Atal honetan ezarritako delituak zigortzeko, epaile eta auzitegiek, epaian arrazoiak emanez, delitu bakoitzari legeak adierazitako zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoa ezarri ahal izango dute, subjektuak, boronda-

abandonado voluntariamente sus actividades delictivas y se presente a las autoridades confesando los hechos en que haya participado y además colabore activamente con éstas para impedir la producción del delito o coadyuve eficazmente a la obtención de pruebas decisivas para la identificación o captura de otros responsables o para impedir la actuación o el desarrollo de bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas a los que haya pertenecido o con los que haya colaborado.

Artículo 580

En todos los delitos relacionados con la actividad de las bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas, la condena de un Juez o Tribunal extranjero será equiparada a las sentencias de los Jueces o Tribunales españoles a los efectos de aplicación de la agravante de reincidencia.

tez, delitu-jarduerak bertan behera utzi eta agintaritzaren aurrean bere burua aurkezten badu, bere partaidetzarekin gauzatutako egitateak aitortuz eta, gainera, delitua gertatzea eragozteko biziki aritzen bada agintaritzarekin elkarlanean, edo froga erabakigarriak eskuratzen laguntzen badu, beste erantzule batzuk identifikatu edo harrapatzeko nahiz bera kide izan den edo elkarlanean aritu den banda armatu, antolakunde edo talde terroristen jarduna edo garapena eragozteko.

580. artikulua

Banda armatu, antolakunde edo talde terroristen jarduerarekin zerikusia duten delitu guztietan, berrerortze astungarria ezartzearen ondoreetarako, atzerriko epaile edo auzitegi batek ezarritako kondena eta Espainiako epaile edo auzitegiek emandako epaiak baliobestekoak izango dira.

TÍTULO XXIII

DE LOS DELITOS DE TRAICIÓN Y CONTRA LA PAZ O LA INDEPENDENCIA DEL ESTADO Y RELATIVOS A LA DEFENSA NACIONAL

CAPÍTULO I

Delitos de traición

Artículo 581

El español que indujere a una potencia extranjera a declarar la guerra a España o se concertare con ella para el

XXIII. TITULUA

TRAIZIO-DELITUAK, ESTATUAREN BAKE EDO INDEPENDENTZIAREN AURKAKOAK ETA NAZIO--DEFENTSARI BURUZKOAK

I. KAPITULUA

Traizio-delituak

581. artikulua

Espainiar batek atzerriko herrialde bat induzitzen badu Espainiaren kontra gerran sartzeko adierazpena egitera,

mismo fin, será castigado con la pena de prisión de quince a veinte años.

edo helburu hori lortzeko atzerriko herrialdearekin ituna egiten badu, orduan, espainiar horri hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Artículo 582

Será castigado con la pena de prisión de doce a veinte años:

1.º El español que facilite al enemigo la entrada en España, la toma de una plaza, puesto militar, buque o aeronave del Estado o almacenes de intendencia o armamento.

2.º El español que seduzca o allegue tropa española o que se halle al servicio de España, para que se pase a las filas enemigas o deserte de sus banderas estando en campaña.

3.º El español que reclute gente o suministre armas u otros medios eficaces para hacer la guerra a España, bajo banderas enemigas.

582. artikulua

Hamabi urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio:

1.) Arerioari Espainian sartzea errazten dion espainiarrari edo hiri, militargune, estatuaren ontzi zein aireontzi edo arma- nahiz intendentzia-biltegiak hartzea errazten dion espainiarrari.

2.) Espainiako guda-taldea edo Espainiaren zerbitzupean dagoena arerioarekin bat egin dezan edo, kanpainan dagoelarik, bere banderapetik ihes egin dezan erakarri edo biltzen duen espainiarrari.

3.) Arerioaren banderapean, jendea erreklutatzen duen espainiarrari edota arerioa armez zein Espainiari gerra egiteko bestelako baliabide eragingarriez hornitzen duen espainiarrari.

Artículo 583

Será castigado con la pena de prisión de doce a veinte años:

1.º El español que tome las armas contra la Patria bajo banderas enemigas.

Se impondrá la pena superior en grado al que obre como jefe o promotor, o tenga algún mando, o esté constituido en autoridad.

2.º El español que suministre a las tropas enemigas caudales, armas, em-

583. artikulua

Espainiarrari hamabi urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio:

1.) Arerioaren banderapean, aberriaren kontra armak hartzen baditu.

Aurreko zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko zaio buruzagi edo sustatzaile gisa aritzen denari, agintea duenari edo agintari gisa diharduenari.

2.) Arerioaren guda-taldeak hornitzen baditu ondasun, arma, itsasontzi,

barcaciones, aeronaves, efectos o municiones de intendencia o armamento u otros medios directos y eficaces para hostilizar a España, o favorezca el progreso de las armas enemigas de un modo no comprendido en el artículo anterior.

3.º El español que suministre al enemigo planos de fortalezas, edificios o de terrenos, documentos o noticias que conduzcan directamente al mismo fin de hostilizar a España o de favorecer el progreso de las armas enemigas.

4.º El español que, en tiempo de guerra, impida que las tropas nacionales reciban los auxilios expresados en el número 2.º o los datos y noticias indicados en el número 3.ª de este artículo.

aireontzi, intendentziako gai edo munizio, armamentu edota Espainia erasotzeko zuzeneko bestelako baliabide eragingarriz. Halaber, arerioaren indar armatuei aurrerabidea ematen badie, aurreko artikulura bilduta ez dauden moduetako batean.

3.) Arerioa gotorleku, eraikin edo lurren plano, agiri nahiz albistez hornitzen badu, betiere horiek zuzenean Espainia erasotzera edo arerioaren indar armatuei bidea erraztera daramatenean.

4.) Gerratean, nazioko guda-taldeek artikulu honen 2. zenbakian aipatzen diren laguntzak jasotzea edo artikulu honen 3. zenbakian aipatzen diren datu eta albisteak jasotzea eragozten badu.

Artículo 584

El español que, con el propósito de favorecer a una potencia extranjera, asociación u organización internacional, se procure, falsee, inutilice o revele información clasificada como reservada o secreta, susceptible de perjudicar la seguridad nacional o la defensa nacional, será castigado, como traidor, con la pena de prisión de seis a doce años.

584. artikulua

Espainiarrak, atzerriko herrialde edo nazioarteko elkarte edo antolakunde bati mesede egiteko asmoz, isilpeko edo sekretu gisa sailkatuta dagoen informazioa lortu, faltsutu, deuseztatu edo ezagutarazten badu, nazio-segurtasunari nahiz defentsari kalte egiteko modukoa izanik, orduan, espainiar horri, traidore gisa, espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, sei urtetik hamabi artekoa.

Artículo 585

La provocación, la conspiración y la proposición para cualquiera de los delitos previstos en los artículos anteriores de este capítulo, serán castigadas con la pena de prisión inferior en uno o dos grados a la del delito correspondiente.

585. artikulua

Kapitulu honen aurreko artikuluetan ezarritako delituetatik edozein egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortu egingo dira, delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

Artículo 586

El extranjero residente en España que cometiere alguno de los delitos comprendidos en este capítulo será castigado con la pena inferior en grado a la señalada para ellos, salvo lo establecido por Tratados o por el Derecho de gentes acerca de los funcionarios diplomáticos, consulares y de Organizaciones internacionales.

586. artikulua

Atzerritarrak, Espainian bizilekua izanik, kapitulu honetara bildutako delituetatik edozein egiten badu, orduan, delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio, salbu eta itunek edo jendeen zuzenbideak besterik ezartzen dutenean, diplomaziako, kontsulatuko eta nazioarteko antolakundeetako funtzionarioei buruz.

Artículo 587

Las penas señaladas en los artículos anteriores de este capítulo son aplicables a los que cometieren los delitos comprendidos en los mismos contra una potencia aliada de España, en caso de hallarse en campaña contra el enemigo común.

587. artikulua

Kapitulu honen aurreko artikuluetan aipatutako zigorrak ezarriko zaizkie artikulu horietara bildutako delituak Espainiaren aliatua den herrialde baten aurka egiten dituztenei ere, baldin eta herrialde aliatua eta Espainia bien arerioaren kontrako kanpainan badabiltza.

Artículo 588

Incurrirán en la pena de prisión de quince a veinte años los miembros del Gobierno que, sin cumplir con lo dispuesto en la Constitución, declararan la guerra o firmaran la paz.

588. artikulua

Hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, konstituzioan xedatutakoa bete barik, gerran sartzeko adierazpena egin edo bakea izenpetzen duten gobernukideei.

CAPÍTULO II

Delitos que comprometen la paz o la independencia del Estado

II. KAPITULUA

Estatuaren bakea edo independentzia arriskuan jartzen duten delituak

Artículo 589

El que publicare o ejecutare en España cualquier orden, disposición o documento de un Gobierno extranjero que atente contra la independencia o

589. artikulua

Norbaitek Espainian argitaratu edo betearazten badu atzerriko gobernu baten edozein agindu, xedapen edo agiri, eta hori estatuaren independentzia edo

seguridad del Estado, se oponga a la observancia de sus Leyes o provoque su incumplimiento, será castigado con la pena de prisión de uno a tres años.

segurtasunaren aurkako atentatua bada, estatuaren legeak betetzearen aurkakoa bada edo lege horiek ez betetzea eragiten badu, orduan, pertsona horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, urtebetetik hiru artekoa.

Artículo 590

1. El que, con actos ilegales o que no estén debidamente autorizados, provocare o diere motivo a una declaración de guerra contra España por parte de otra potencia, o expusiere a los españoles a experimentar vejaciones o represalias en sus personas o en sus bienes, será castigado con la pena de prisión de ocho a quince años si es autoridad o funcionario, y de cuatro a ocho si no lo es.

2. Si la guerra no llegara a declararse ni a tener efecto las vejaciones o represalias, se impondrá, respectivamente, la pena inmediata inferior.

590. artikulua

1. Norbaitek, legearen aurkakoak diren edo behar bezala baimendurik ez dauden egintzen bidez, beste herrialde batek Espainiaren kontra gerran sartzeko adierazpena egitea eragiten badu edo horretarako ziorik ematen badu, edota espainiarrak jartzen baditu euren aurkako edo euren ondasunen aurkako isekak nahiz errepresaliak bizi izateko moduan, orduan, pertsona horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabost artekoa, agintari edo funtzionarioa bada, eta lau urtetik zortzi artekoa, agintari edo funtzionarioa ez bada.

2. Gerran sartzeko adierazpenik egiten ez bada edo isekak nahiz errepresaliak gauzatzen ez badira, kasuan-kasuan, bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko da.

Artículo 591

Con las mismas penas señaladas en el artículo anterior será castigado, en sus respectivos casos, el que, durante una guerra en que no intervenga España, ejecutare cualquier acto que comprometa la neutralidad del Estado o infringiere las disposiciones publicadas por el Gobierno para mantenerla.

591. artikulua

Aurreko artikuluan adierazitako zigor berberak ezarriko zaizkio, kasuan-kasuan, Espainiak esku hartzen ez duen gerran, estatuaren neutraltasuna arriskuan jartzen duten egintzetatik edozein gauzatzen duenari edo neutraltasun hori zaintzeko Gobernuak argitaratzen dituen xedapenak hausten dituenari.

Artículo 592

1. Serán castigados con la pena de prisión de cuatro a ocho años los que, con el fin de perjudicar la autoridad del Estado o comprometer la dignidad o los intereses vitales de España, mantuvieran inteligencia o relación de cualquier género con Gobiernos extranjeros, con sus agentes o con grupos, Organismos o Asociaciones internacionales o extranjeras.

2. Quien realizara los actos referidos en el apartado anterior con la intención de provocar una guerra o rebelión será castigado con arreglo a los artículos 581, 473 ó 475 de este Código según los casos.

592. artikulua

1. Espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, lau urtetik zortzi artekoa, estatuaren agintaritzari kalte egiteko edo Espainiaren duintasuna nahiz beraren oinarrizko interesak arriskuan jartzeko asmoz, atzerriko gobernuekin, horien agenteekin edo nazioarteko zein atzerriko talde, erakunde edo elkarteekin ados jartzen direnei edota horiekin nolanahiko harremanak dituztenei.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako egintzak gerra edo asaldatzea eragiteko asmoz gauzatzen dituenari, kasuan-kasuan, zigorra ezarriko zaio kode honen 581, 473 edo 475. artikuluen arabera.

Artículo 593

Se impondrá la pena de prisión de ocho a quince años a quien violare tregua o armisticio acordado entre la Nación española y otra enemiga, o entre sus fuerzas beligerantes.

593. artikulua

Espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabost artekoa, Espainiako nazioaren eta beste nazio arerio baten artean edo haien indar gerragileen artean hitzartutako tregoa edo armistizioa urratzen duenari.

Artículo 594

1. El español que, en tiempo de guerra, comunicare o hiciere circular noticias o rumores falsos encaminados a perjudicar el crédito del Estado o los intereses de la Nación, será castigado con las penas de prisión de seis meses a dos años.

2. En las mismas penas incurrirá el extranjero que en el territorio español realizare cualquiera de los hechos comprendidos en el apartado anterior.

594. artikulua

1. Espainiarrak, gerratean, albiste edo zurrumurru faltsuen berri eman edo horiek zabaltzen baditu, estatuaren sinesgarritasunari edo Espainiaren interesei kalte egiteko, orduan, espainiar horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, sei hilabetetik bi urte artekoa.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio aurreko paragrafora bildutako egitateetatik edozein Espainiako lurraldean gauzatzen duen atzerritarrari.

Artículo 595

El que, sin autorización legalmente concedida, levantare tropas en España para el servicio de una potencia extranjera, cualquiera que sea el objeto que se proponga o la Nación a la que intente hostilizar, será castigado con la pena de prisión de cuatro a ocho años.

595. artikulua

Norbaitek, legearen arabera emandako baimenik izan gabe, Espainian guda-taldeak erreklutatzen baditu atzerriko herrialde baten zerbitzupean aritzeko, lortu nahi duen helburua edo eraso nahi duen nazioa edozein izanda ere, orduan, horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, lau urtetik zortzi artekoa.

Artículo 596

1. El que, en tiempo de guerra y con el fin de comprometer la paz, seguridad o independencia del Estado, tuviere correspondencia con un país enemigo u ocupado por sus tropas cuando el Gobierno lo hubiera prohibido, será castigado con la pena de prisión de uno a cinco años. Si en la correspondencia se dieran avisos o noticias de las que pudiera aprovecharse el enemigo se impondrá la pena de prisión de ocho a quince años.

2. En las mismas penas incurrirá el que ejecutare los delitos comprendidos en este artículo, aunque dirija la correspondencia por país amigo o neutral para eludir la Ley.

3. Si el reo se propusiera servir al enemigo con sus avisos o noticias, se estimará comprendido en el número 3.º o el número 4.º del artículo 583.

596. artikulua

1. Norbaitek, gerratean eta estatuaren bakea, segurtasuna edo independentzia arriskuan jartzeko asmoz, herrialde arerioarekin edo arerioaren guda-taldeek okupaturiko herrialdearekin posta badu, Gobernuak posta hori debekatu duenean, orduan, horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, urtebetetik bost artekoa. Espetxealdi-zigorra zortzi urtetik hamabost artekoa izango da, postan arerioarentzat baliagarri izan daitezkeen abisu edo albisteak ematen badira.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio artikulu honetara bildutako delituak egiten dituenari, nahiz eta, legeari itzuri egiteko, posta herrialde adiskide edo neutral baten bidez zuzendu.

3. Errudunaren helburua arerioari zerbitzua egitea bada, beraren abisu eta albisteekin, kasu hori 583. artikuluko 3 edo 4. zenbakietan barne hartuta dagoela ulertuko da.

Artículo 597

El español o extranjero que, estando en el territorio nacional, pasare o intentare pasar a país enemigo cuando lo haya prohibido el Gobierno, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses.

597. artikulua

Espainiarra edo atzerritarra, naziolurraldean dagoelarik, herrialde areriora pasatzen bada edo pasatzen ahalegintzen bada, Gobernuak hori egitea debekatuta duenean, orduan, horri isun-zigorra ezarriko zaio, sei hilabetetik hamabi artekoa.

CAPÍTULO III

De los delitos relativos a la defensa nacional

SECCIÓN I

Del descubrimiento y revelación de secretos e informaciones relativas a la defensa nacional

Artículo 598

El que, sin propósito de favorecer a una potencia extranjera, se procurare, revelare, falseare o inutilizare información legalmente calificada como reservada o secreta, relacionada con la seguridad nacional o la defensa nacional o relativa a los medios técnicos o sistemas empleados por las Fuerzas Armadas o las industrias de interés militar, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años.

Artículo 599

La pena establecida en el artículo anterior se aplicará en su mitad superior cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

1.º Que el sujeto activo sea depositario o conocedor del secreto o información por razón de su cargo o destino.

2.º Que la revelación consistiera en dar publicidad al secreto o información en algún medio de comunicación social o de forma que asegure su difusión.

Artículo 600

1. El que sin autorización expresa reprodujere planos o documentación

III. KAPITULUA

Nazio-defentsari buruzko delituak

I. ATALA

Nazio-defentsari buruzko sekretu eta informazioak ezagutarazi eta agertaraztea

598. artikulua

Norbaitek, atzerriko herrialde bati mesede egiteko asmorik izan gabe, legeak informazio bat isilpeko edo sekretu gisa sailkatuta duenean, informazio hori lortu, agertarazi, faltsutu edo deuseztatzen badu, betiere informazioak zerikusia duenean nazio-segurtasun edo defentsarekin, edota Indar Armatuek nahiz interes militarra duten industriek erabilitako bide tekniko edo sistemei buruzkoa denean, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

599. artikulua

Aurreko artikuluan ezarritako zigorra goiko erdian ezarriko da, inguruabar hauetatik bat gertatzen bada:

1.) Subjektu aktiboa bere kargu edo lanpostuarengatik izatea sekretu nahiz informazioaren jakitun edo gordailuzain.

2.) Sekretu edo informazioari publizitatea ematea gizarte-komunikabide batean edota haren hedapena ziurtatzeko moduan.

600. artikulua

1. Norbaitek, esanbidezko baimenik izan gabe, sarbide murriztua duten

referentes a zonas, instalaciones o materiales militares que sean de acceso restringido y cuyo conocimiento esté protegido y reservado por una información legalmente calificada como reservada o secreta, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años.

2. Con la misma pena será castigado el que tenga en su poder objetos o información legalmente calificada como reservada o secreta, relativos a la seguridad o a la defensa nacional, sin cumplir las disposiciones establecidas en la legislación vigente.

alde, instalazio edo gai militarrei buruzko plano edo agiriak kopiatzen baditu, eta horien berri izatea babestuta eta erreserbatuta dagoenean legeak isilpeko edo sekretu gisa sailkatzen duen informazio baten bitartez, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Zigor berbera ezarriko zaio, indarrean dagoen legeriak ezarritako xedapenak bete barik, nazio-segurtasun edo defentsari buruzko objektuak nahiz isilpeko edo sekretu gisa sailkatutako informazioa bere esku dituenari.

Artículo 601

El que, por razón de su cargo, comisión o servicio, tenga en su poder o conozca oficialmente objetos o información legalmente calificada como reservada o secreta o de interés militar, relativos a la seguridad nacional o la defensa nacional, y por imprudencia grave dé lugar a que sean conocidos por persona no autorizada o divulgados, publicados o inutilizados, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año.

601. artikulua

Norbaitek, bere kargu, betekizun edo zerbitzuarengatik, ofizialki bere esku baditu nazio-segurtasun edo nazio-defentsari buruzko objektuak nahiz isilpeko, sekretu zein interes militarreko gisa legez sailkatutako informazioa, edo horien berri era ofizialean badu, eta zuhurtziagabekeria astuna dela medio, baimenik gabeko pertsona batek objektu edo informazio horiek jakitea ekartzen badu, edo horiek zabaldu, argitaratu edota deuseztatzea ekartzen badu, orduan, pertsona horri sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Artículo 602

El que descubriere, violare, revelare, sustrajere o utilizare información legalmente calificada como reservada o secreta relacionada con la energía nuclear, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años, salvo que el hecho tenga señalada pena más grave en otra Ley.

602. artikulua

Norbaitek energia nuklearrarekin zerikusia duen informazioa ezagutarazi, urratu, agertarazi, ostu edo erabiltzen badu, betiere legean informazio hori isilpeko edo sekretu gisa sailkatu denean, orduan, horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bestelako lege batek egitateari zigor astunagoa ezartzen ez badio.

Artículo 603

El que destruyere, inutilizare, falseare o abriere sin autorización la correspondencia o documentación legalmente calificada como reservada o secreta, relacionadas con la defensa nacional y que tenga en su poder por razones de su cargo o destino, será castigado con la pena de prisión de dos a cinco años e inhabilitación especial de empleo o cargo público por tiempo de tres a seis años.

603. artikulua

Norbaitek, baimenik izan gabe, nazio-defentsarekin zerikusia duten posta edo agiriak suntsitu, deuseztatu, faltsutu edo irekitzen baditu, legean isilpeko edo sekretu gisa sailkatu direnean halakoak, eta pertsona horrek posta edo agiriak bere esku baditu kargu edo lanpostuaren zioz, orduan, berari bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, hiru urtetik sei artekoa.

SECCIÓN II

De los delitos contra el deber de prestación del servicio militar

II. ATALA

Soldadutza egin beharraren aurkako delituak

Artículo 604

El que, citado legalmente para el cumplimiento del Servicio Militar, no se presentare sin causa justificada, retrasando su incorporación al mismo por tiempo superior a un mes, o, no habiéndose incorporado aún a las Fuerzas Armadas, manifestare explícitamente en el expediente su negativa a cumplir el mencionado servicio sin causa legal alguna, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de cuatro a seis años.

La inhabilitación incluirá la incapacidad para desempeñar cualquier empleo o cargo al servicio de las Administraciones, entidades o empresas públicas o de sus Organismos autónomos y, además, la imposibilidad de obtener subvenciones, becas o ayudas públicas

604. artikulua

Norbait, soldadutza egiteko legearen arabera deia jaso ondoren eta bidezko arrazoirik gabe, aurkezten ez bada, eta soldadutzara agertzea hilabete baino gehiagoko denboran atzeratzen badu, edota, artean Indar Armatuetan sartu barik dagoela, espedientean, beren beregi eta legezko arrazoirik gabe, soldadutza egiteko ezezkoa adierazten badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, lau urtetik sei artekoa.

Desgaikuntzak barne hartuko ditu administrazio, erakunde edota enpresa publikoen nahiz horien guztien erakunde autonomiadunen zerbitzupeko nolanahiko enplegu edo karguan aritzeko ezgaitasuna, bai eta diru-laguntzak, bekak nahiz edozein motatako laguntza

de cualquier tipo durante el periodo de condena.

Una vez cumplida la condena impuesta, el penado quedará exento del cumplimiento del Servicio Militar, excepto en el supuesto de movilización por causa de guerra.

publikoak lortzeko ezintasuna ere, kondenak dirauen bitartean.

Ezarritako kondena bete ondoren, zigortua soldadutza egitetik salbuetsita geratuko da, gerraren ondorioz mobilizazioa egiten denean izan ezik.

TÍTULO XXIV
DELITOS CONTRA LA COMUNIDAD INTERNACIONAL

XXIV. TITULUA
NAZIOARTEKO ERKIDEGOAREN AURKAKO DELITUAK

CAPÍTULO I
Delitos contra el Derecho de gentes

I. KAPITULUA
Jendeen zuzenbidearen aurkako delituak

Artículo 605

1. El que matare al Jefe de un Estado extranjero, o a otra persona internacionalmente protegida por un Tratado, que se halle en España, será castigado con la pena de prisión de veinte a veinticinco años. Si concurrieran en el hecho dos o más circunstancias agravantes se impondrá la pena de prisión de veinticinco a treinta años.

2. El que causare lesiones de las previstas en el artículo 149 a las personas mencionadas en el apartado anterior, será castigado con la pena de prisión de quince a veinte años.

Si se tratara de alguna de las lesiones previstas en el artículo 150 se castigará con la pena de prisión de ocho a quince años, y de cuatro a ocho años si fuera cualquier otra lesión.

605. artikulua

1. Norbaitek hiltzen badu atzerriko estatuburu bat edo nazioartean itun batek babesten duen pertsona bat, pertsona hori Espainian dagoen bitartean, orduan, horri hogei urtetik hogeita bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Egitatean inguruabar astungarri bi edo gehiago gertatzen badira, hogeita bost urtetik hogeita hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

2. Norbaitek 149. artikuluko lesioak eragiten badizkie aurreko paragrafoan aipaturiko pertsonei, orduan, horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, hamabost urtetik hogei artekoa.

Eragindako lesioa 150. artikuluan ezarritarikoen artean badago, zortzi urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da; aitzitik, lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, lesio hori bestelakoa bada.

3. Cualquier otro delito cometido contra las personas mencionadas en los números precedentes, o contra los locales oficiales, la residencia particular o los medios de transporte de dichas personas, será castigado con las penas establecidas en este Código para los respectivos delitos, en su mitad superior.

3. Aurreko zenbakietan aipaturiko pertsonen aurka, edota haien lokal ofizial, bizileku partikular nahiz garraiobideen aurka beste edozein delitu egitea zigortu egingo da kode honetan delitu bakoitzari ezarritako zigorrekin, goiko erdian.

Artículo 606

1. El que violare la inmunidad personal del Jefe de otro Estado o de otra persona internacionalmente protegida por un Tratado, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años.

2. Cuando los delitos comprendidos en este artículo y en el anterior no tengan señalada una penalidad recíproca en las leyes del país a que correspondan las personas ofendidas, se impondrá al delincuente la pena que sería propia del delito, con arreglo a las disposiciones de este Código, si la persona ofendida no tuviese el carácter oficial mencionado en el apartado anterior.

606. artikulua

1. Norbaitek estatuburu baten edo nazioartean itun batek babesturiko pertsona baten ukiezintasun pertsonala urratzen badu, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Aurreko artikulura eta artikulu honetara bildutako delituek pareko zigorrik ez dutenean ofendituen jatorrizko herrialdearen legeetan, delitugileari ezarriko zaion zigorra kode honen xedapenen arabera delituari legokiokeena izango da, ofendituak aurreko paragrafoan aipatzen den izaera ofiziala ez badu.

CAPÍTULO II
Delitos de genocidio

Artículo 607

1. Los que, con propósito de destruir total o parcialmente a un grupo nacional, étnico, racial o religioso, perpetraren alguno de los actos siguientes, serán castigados:

1.º Con la pena de prisión de quince a veinte años, si mataran a alguno de sus miembros.

II. KAPITULUA
Genozidio-delituak

607. artikulua

1. Norbaitzuek, nazio, etnia, arraza edo erlijio-talde bat oso-osorik edo zati batean suntsitzeko asmoz, egintza hauetako bat gauzatzen badute, zigor hauek ezarriko zaizkie:

1.) Hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra, taldekide bat hiltzen badute.

Si concurrieran en el hecho dos o más circunstancias agravantes, se impondrá la pena superior en grado.

Egitatean inguruabar astungarri bi edo gehiago gertatzen badira, berari dagokion zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da.

2.º Con la prisión de quince a veinte años, si agredieran sexualmente a alguno de sus miembros o produjeran alguna de las lesiones previstas en el artículo 149.

2.) Hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra, taldekide baten aurkako sexu-erasorik egiten badute edo 149. artikuluan ezarritako lesioetatik bat eragiten badute.

3.º Con la prisión de ocho a quince años, si sometieran al grupo o a cualquiera de sus individuos a condiciones de existencia que pongan en peligro su vida o perturben gravemente su salud, o cuando les produjeran algunas de las lesiones previstas en el artículo 150.

3.) Zortzi urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra, bizia arriskuan jartzen duten edota osasuna modu larrian nahasten duten bizi-baldintzen menpe jartzen badute taldea bera edo taldeko edozein gizabanako, edota 150. artikuluan ezarritako lesioetatik batzuk eragiten badizkie.

4.º Con la misma pena, si llevaran a cabo desplazamientos forzosos del grupo o sus miembros, adoptaran cualquier medida que tienda a impedir su género de vida o reproducción, o bien trasladaran por la fuerza individuos de un grupo a otro.

4.) Zigor berbera, taldea edo taldekideak derrigorrez lekualdatzen badituzte, haien bizimodua nahiz ugalketa eragoztera jotzen duten neurrietatik edozein hartzen badute edota gizabanakoak talde batetik bestera indarrez eramaten badituzte.

5.º Con la de prisión de cuatro a ocho años, si produjeran cualquier otra lesión distinta de las señaladas en los números 2.º y 3.º de este apartado.

5.) Lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra, paragrafo honen 2 eta 3. zenbakietan adierazitakoez besteko lesioa eragiten badute.

2. La difusión por cualquier medio de ideas o doctrinas que nieguen o justifiquen los delitos tipificados en el apartado anterior de este artículo, o pretendan la rehabilitación de regímenes o instituciones que amparen prácticas generadoras de los mismos, se castigará con la pena de prisión de uno a dos años.

2. Ideiak eta doktrinak hedatzen badira, edozein dela ere erabilitako bidea, artikulu honen aurreko paragrafoan tipifikatutako delituak ukatu edo justifikatzen dituztenak, edota delitu horiek sortzeko eginerak babesten dituzten erregimen edo erakundeak berrindartu nahi dituztenak, orduan, urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

CAPÍTULO III

De los delitos contra las personas y bienes protegidos en caso de conflicto armado

Artículo 608

A los efectos de este capítulo, se entenderá por personas protegidas:

1.º Los heridos, enfermos o náufragos y el personal sanitario o religioso, protegidos por el I y II Convenios de Ginebra de 12 de agosto de 1949 o por el Protocolo I Adicional de 8 de junio de 1977.

2.º Los prisioneros de guerra protegidos por el III Convenio de Ginebra de 12 de agosto de 1949 o por el Protocolo I Adicional de 8 de junio de 1977.

3.º La población civil y las personas civiles protegidas por el IV Convenio de Ginebra de 12 de agosto de 1949 o por el Protocolo I Adicional de 8 de junio de 1977.

4.º Las personas fuera de combate y el personal de la Potencia Protectora y de su sustituto protegidos por los Convenios de Ginebra de 12 de agosto de 1949 o por el Protocolo I Adicional de 8 de junio de 1977.

5.º Los parlamentarios y las personas que los acompañen, protegidos por el Convenio II de La Haya de 29 de julio de 1899.

6.º Cualquier otra que tenga aquella condición en virtud del Protocolo II Adicional de 8 de junio de 1977 o de cualesquiera otros Tratados internacionales en los que España fuere parte.

III. KAPITULUA

Babesturiko ondasun eta pertsonen aurka egindako delituak, gatazka armatuaren kasuan

608. artikulua

Kapitulu honen ondoreetarako, pertsona babestutzat hartuko dira hurrengo hauek:

1.) Genevako 1949ko abuztuaren 12ko I eta II. Hitzarmenek edo 1977ko ekainaren 8ko I. Protokolo gehigarriak babesturiko zauritu, gaixo edo itsasoan galdutakoak eta osasun- zein erlijiolangileak.

2.) Genevako 1949ko abuztuaren 12ko III. Hitzarmenak edo 1977ko ekainaren 8ko I. Protokolo gehigarriak babesturiko gerrako gatibuak.

3.) Genevako 1949ko abuztuaren 12ko IV. Hitzarmenak edo 1977ko ekainaren 8ko I. Protokolo gehigarriak babesturiko biztanle zibilak eta pertsona zibilak.

4.) Genevako 1949ko abuztuaren 12ko Hitzarmenek edo 1977ko ekainaren 8ko I. Protokolo gehigarriak babesturiko borrokatik kanpoko pertsonak eta herrialde babeslearen eta beraren ordezkoaren langileak.

5.) Hagako 1899ko uztailaren 29ko II. Hitzarmenak babesturiko hizketakideak eta horiekin doazen pertsonak.

6.) 1977ko ekainaren 8ko II. Protokolo gehigarria edo Espainia kide den nazioarteko itunetatik beste edozein dela bide, pertsona babestuaren izaera duen beste edonor.

Artículo 609

El que, con ocasión de un conflicto armado, maltrate de obra o ponga en grave peligro la vida, la salud o la integridad de cualquier persona protegida, la haga objeto de tortura o tratos inhumanos, incluidos los experimentos biológicos, le cause grandes sufrimientos o la someta a cualquier acto médico que no esté indicado por su estado de salud ni de acuerdo con las normas médicas generalmente reconocidas que la Parte responsable de la actuación aplicaría, en análogas circunstancias médicas, a sus propios nacionales no privados de libertad, será castigado con la pena de prisión de cuatro a ocho años, sin perjuicio de la pena que pueda corresponder por los resultados lesivos producidos.

609. artikulua

Norbaitek, gatazka armatua dela eta, babespeko edozein pertsonari egitez tratu txarra ematen badio edo pertsona horren bizia, osasuna nahiz osotasuna arrisku larrian jartzen badu, pertsona hori torturatzen badu edo horri gizabidezkoa ez den tratua ematen badio, esperimentu biologikoak barne daudelarik, sufrimendu handiak eragiten badizkio, edota pertsona horren osasun-egoerari ez dagozkion eta medikuntzako arau orokorrekin bat ez datozen mediku--egintzen menpe jartzen badu pertsona hori, jardunaren gaineko erantzukizuna duen alderdiak, horien antzeko medikuntza-inguruabarretan, bere nazioko pertsona askeei halakorik aplikatuko ez liekeenean, orduan, pertsona horri lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, eragindako ondorio kaltegarriei egoki dakiekeen zigorrari kalterik egin gabe.

Artículo 610

El que, con ocasión de un conflicto armado, emplee u ordene emplear métodos o medios de combate prohibidos o destinados a causar sufrimientos innecesarios o males superfluos, así como aquellos concebidos para causar o de los que fundadamente quepa prever que causen daños extensos, duraderos y graves al medio ambiente natural, comprometiendo la salud o la supervivencia de la población, será castigado con la pena de prisión de diez a quince años, sin perjuicio de la pena que corresponda por los resultados producidos.

610. artikulua

Hamar eta hamabost urte bitarteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, eragindako kalteei dagokien zigorraz gain, gatazka armatua dela eta, borrokarako metodo nahiz bide hauetatik edozein erabiltzen duenari edo erabiltzeko agindua ematen duenari: debekatuta daudenak nahiz beharrezkoak ez diren sufrimenduak zein premiagabeko kalteak sortzera zuzenduta daudenak; izadiko ingurumenari, biztanleen osasuna edo biziraupena arriskuan jarriz, kalte zabal, iraunkor eta larriak eragiteko sortarazita daudenak; edota kalte horiek eragingo dituztela pentsarazten dutenak.

Artículo 611

Será castigado con la pena de prisión de diez a quince años, sin perjuicio de la pena que corresponda por los resultados producidos, el que, con ocasión de un conflicto armado:

1.º Realice u ordene realizar ataques indiscriminados o excesivos o haga objeto a la población civil de ataques, represalias o actos o amenazas de violencia cuya finalidad principal sea aterrorizarla.

2.º Destruya o dañe, violando las normas del Derecho Internacional aplicables en los conflictos armados, buque o aeronave no militares de una Parte adversa o neutral, innecesariamente y sin dar tiempo o sin adoptar las medidas necesarias para proveer a la seguridad de las personas y a la conservación de la documentación de a bordo.

3.º Obligue a un prisionero de guerra o persona civil a servir, en cualquier forma, en las Fuerzas Armadas de la Parte adversa, o les prive de su derecho a ser juzgados regular e imparcialmente.

4.º Deporte, traslade de modo forzoso, tome como rehén o detenga ilegalmente a cualquier persona protegida.

5.º Traslade y asiente en territorio ocupado a población de la Parte ocupante, para que resida en él de modo permanente.

6.º Realice, ordene realizar o mantenga, respecto de cualquier persona pro-

611. artikulua

Hamar urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, eragindako ondoreei dagokien zigorrari kalterik egin gabe, gatazka armatua dela eta, hurrengoa egiten duenari:

1.) Bereizi gabeko edo gehiegizko erasoaldiak egin edo egiteko agindua ematen duenari bai eta biztanle zibilei, batez ere ikaratzeko asmoz, eraso, errepresaliak egin edo indarkeriazko egintza nahiz mehatxuak egiten dizkienari ere.

2.) Gatazka armatuetan nazioarteko zuzenbidearen arauak aplikatu behar direnean, horiek urratuz, kontrako alderdiaren edo alderdi neutral baten ontzi edo aireontzi ez militarrak beharrik gabe suntsitzen edo horiei kalte egiten dienari, pertsonen segurtasuna zein ontzian dauden agiriak zaintzeko denborarik eman gabe edo beharrezko neurriak hartu gabe.

3.) Gerrako gatibu edo pertsona zibil bat aurkako alderdiaren indar armatuen menpe edozein moduz zerbitzu ematera behartzen duenari, bai eta haiei modu erregularrean eta alderdikeriarik gabe epaituak izateko eskubidea kentzen dienari ere.

4.) Babespeko edozein pertsona erbesteratu, derrigorrez lekualdatu, bahitu gisa hartu edo legearen aurka atxilotzen duenari.

5.) Alderdi okupatzailearen biztanleak lekualdatu eta, bizileku iraunkorra izateko, okupaturiko lurraldean kokatzen dituenari.

6.). Babespeko edozein pertsonari dagokionez, beraren aurkako arrazazko

tegida, prácticas de segregación racial y demás prácticas inhumanas y degradantes basadas en otras distinciones de carácter desfavorable, que entrañen un ultraje contra la dignidad personal.

7.º Impida o demore, injustificadamente, la liberación o la repatriación de prisioneros de guerra o de personas civiles.

Artículo 612

Será castigado con la pena de prisión de tres a siete años, sin perjuicio de la pena que corresponda por los resultados producidos, el que, con ocasión de un conflicto armado:

1.º Viole a sabiendas la protección debida a unidades sanitarias y medios de transporte sanitarios, campos de prisioneros, zonas y localidades sanitarias y de seguridad, zonas neutralizadas o lugares de internamiento de la población civil, localidades no defendidas y zonas desmilitarizadas, dadas a conocer por los signos o señales distintivos apropiados.

2.º Ejerza violencia sobre el personal sanitario o religioso o integrante de la misión médica o de las sociedades de socorro.

3.º Injurie gravemente, prive o no procure el alimento indispensable o la asistencia médica necesaria a cualquier persona protegida o la haga objeto de tratos humillantes o degradantes, prostitución inducida o forzada o cualquier forma de atentado a su pudor, omita informarle, sin demora justificada y de modo comprensible, de su situación, imponga castigos colectivos por actos

bereizketa edota, pertsonaren duintasunaren kontrako idoia dakarten beste bereizkeria batzuetan oinarritzen direla, gizabidezkoak ez diren gainerako jokaerak eta jokaera apalesgarriak egiten, egiteko agintzen edo horiei eusten dienari.

7.) Gerrako gatibu edo pertsona zibilak askatzea edo aberriratzea bidezko arrazoirik gabe eragotzi edo berandutzen duenari.

612. artikulua

Hiru urtetik zazpi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, eragindako ondoreei dagokien zigorrari kalterik egin gabe, gatazka armatua dela eta, hurrengoa egiten duenari:

1.) Osasun-unitate eta -garraiobideei, espe-eremuei, osasun- eta segurtasun-alde zein herriei, alde neutralizatu edo biztanle zibilak barneratzeko lekuei, defentsarik gabeko herriei eta alde desmilitarizatuei zor zaien babesa jakinaren gainean urratzen duenari, zeinu nahiz seinale bereizgarri egokiekin jakitera emandakoak badira.

2.) Osasun- edo erlijio-langileen aurka edo mediku-ordezkaritzetako edo sorospen-elkarteetako kideen aurka indarkeria erabiltzen duenari.

3.) Babespeko edozein pertsona modu larrian iraintzen duenari edo ezinbesteko jangaiak nahiz osasunlaguntza kendu edo ematen ez dizkionari; pertsona hura era umiliagarri edo apalesgarrian tratatzen, induzitutako edo behartutako prostituziora bultzatzen nahiz haren ahalkearen kontra atentatu egiten duenari, bai eta, bidezko berandutzarik izan gabe eta era

individuales, o viole las prescripciones sobre alojamiento de mujeres y familias o sobre protección especial de mujeres y niños establecidas en los Tratados internacionales en los que España fuere parte.

ulergarrian, bere egoerari buruzko informazioa ematen ez dionari ere, edo norbanakoen ekintzengatik zigor kolektiboak ezartzen dituenari, eta emakume eta familiei aterpe emateari buruz nahiz emakume eta haurren babes bereziari buruz Espainiak izenpetu dituen nazioarteko itunetako aginduak urratzen dituenari.

4.º Use indebidamente o de modo pérfido los signos protectores o distintivos, emblemas o señales establecidos y reconocidos en los Tratados internacionales en los que España fuere parte, especialmente los signos distintivos de la Cruz Roja y de la Media Luna Roja.

4.) Zeinu babesle nahiz bereizgarriak edota Espainia kide den nazioarteko itunetan ezarri eta aintzatetsitako ezaugarri edo seinaleak, bereziki Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdi Gorriaren zeinu bereizgarriak, bidegabe edo era zitalean erabiltzen dituenari.

5.º Utilice indebidamente o de modo pérfido bandera, uniforme, insignia o emblema distintivo de Estados neutrales, de las Naciones Unidas o de otros Estados que no sean partes en el conflicto o de Partes adversas, durante los ataques o para cubrir, favorecer, proteger u obstaculizar operaciones militares, salvo en los casos exceptuados expresamente previstos en los Tratados internacionales en los que España fuere parte.

5.) Estatu neutralen, Nazio Batuen, gatazkan alderdi ez diren estatuetatik beste edozeinen edo kontrako alderdien bandera, uniforme, ikur edo ezaugarri bereizgarriak bidegabe edo era zitalean erabiltzen dituenari, bai erasoaldian, bai eragiketa militarrak estali, ahalbideratu, babestu nahiz oztopatzeko, Espainia kide den nazioarteko itunetan beren beregi salbuetsita dauden kasuetan izan ezik.

6.º Utilice indebidamente o de modo pérfido bandera de parlamento o de rendición, atente contra la inviolabilidad o retenga indebidamente a parlamentario o a cualquiera de las personas que lo acompañen, a personal de la Potencia Protectora o su sustituto, o a miembro de la Comisión Internacional de Encuesta.

6.) Hizketaldiko edo errenditzeko bandera bidegabe edo era zitalean erabiltzen duenari eta hizketakidea, berarekin doazen pertsonetatik edozein, herrialde babeslearen edo horren ordezkoaren langileak edota Nazioarteko Ikerketa Batzordeko kidea bidegabe atxiki edo horren ukiezintasuna urratzen duenari.

7.º Despoje de sus efectos a un cadáver, herido, enfermo, náufrago, prisionero de guerra o persona civil internada.

7.) Gorpu, zauritu, gaixo, itsasoan galdutako, gerrako gatibu edo barneratutako pertsona zibil bati bere gauzak kentzen dizkionari.

Artículo 613

1. Será castigado con la pena de prisión de cuatro a seis años el que, con ocasión de un conflicto armado:

a) Ataque o haga objeto de represalias o de actos de hostilidad a bienes culturales o lugares de culto claramente reconocidos, que constituyen el patrimonio cultural o espiritual de los pueblos y a los que se haya conferido protección en virtud de acuerdos especiales, causando como consecuencia extensas destrucciones de los mismos y siempre que tales bienes no estén situados en la inmediata proximidad de objetivos militares o no sean utilizados en apoyo del esfuerzo militar del adversario.

b) Ataque o haga objeto de represalias o de actos de hostilidad a bienes de carácter civil de la Parte adversa, causando su destrucción, siempre que ello no ofrezca, en las circunstancias del caso, una ventaja militar definida o que tales bienes no contribuyan eficazmente a la acción militar del adversario.

c) Ataque, destruya, sustraiga o inutilice los bienes indispensables para la supervivencia de la población civil, salvo que la Parte adversa utilice tales bienes en apoyo directo de una acción militar o exclusivamente como medio de subsistencia para los miembros de sus Fuerzas Armadas.

d) Ataque o haga objeto de represalias a las obras o instalaciones que contengan fuerzas peligrosas, cuando tales ataques puedan producir la liberación de aquellas fuerzas y causar, en conse-

613. artikulua

1. Lau urtetik sei arteko espetxealdizigorra ezarriko zaio, gatazka armatua dela eta, hurrengoa egiten duenari:

a) Akordio bereziak direla bide, babesturik dauden kultura-ondasun edo kultu-lekuak, argiro aintzatetsitakoak eta herrien kultura- zein izpiritu-ondare direnak, eraso edo horien aurkako errepresaliak egin edo etsaigo-egintzak gauzatzen dituenari, horren ondorioz ondasun edo lekuok era zabalean suntsitzen dituenean, betiere ondasun horiek ez daudenean helburu militarretatik hur-hurrean, edota kontrakoaren ahalegin militarrari laguntzeko erabiltzen ez direnean.

b) Kontrako alderdiaren izaera zibileko ondasunak erasotzen edo horien aurkako errepresaliak egiten edo etsaigo egintzak gauzatzen dituenari, ondasun horiek suntsituz, salbu eta suntsipenak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuz, abantaila militar zehatza dakarrenean edo ondasun horiek kontrakoaren ekintza militarrari eragingarritasunez laguntzen badiote.

c) Biztanle zibilen biziraupenerako ezinbesteko ondasunak eraso, suntsitu, ostu edo deuseztatzen dituenari, salbu eta kontrako alderdiak ondasun horiek erabiltzen dituenean, ekintza militar bati zuzeneko laguntza emateko, edota soilki beraren indar armatuetako kideen bizibide bezala.

d) Indar arriskutsuak dituzten obrak edo instalazioak erasotzen edo horiei errepresaliak egiten dizkienari, baldin eta eraso horiek indarrok askatzea eragin badezakete eta, horren ondorioz,

cuencia, pérdidas importantes en la población civil, salvo que tales obras o instalaciones se utilicen en apoyo regular, importante y directo de operaciones militares y que tales ataques sean el único medio factible de poner fin a tal apoyo.

e) Destruya, dañe o se apodere, sin necesidad militar, de cosas que no le pertenezcan, obligue a otro a entregarlas o realice cualesquiera otros actos de pillaje.

2. En el caso de que se trate de bienes culturales bajo protección especial, o en los supuestos de extrema gravedad, se podrá imponer la pena superior en grado.

Artículo 614

El que, con ocasión de un conflicto armado, realizare u ordenare realizar cualesquiera otras infracciones o actos contrarios a las prescripciones de los Tratados internacionales en los que España fuere parte y relativos a la conducción de las hostilidades, protección de los heridos, enfermos y náufragos, trato a los prisioneros de guerra, protección de las personas civiles y protección de los bienes culturales en caso de conflicto armado, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

biztanle zibilen artean galera garrantzitsuak eragin baditzakete, salbu eta, obra eta instalazio horiek eragiketa militarrak egiteko zuzeneko laguntza erregular eta garrantzitsurako erabiltzen direlarik, laguntza horri azkena emateko bide ahalgarri bakarra erasoak egitea denean.

e) Norberaren gauzak ez direnak, beharrizan militarrik gabe, suntsitu, kalte egin edo harrapatzen dituenari, bai eta beste bati gauzok ematera behartzen edota harrapakeria-egintzetatik beste edozein gauzatzen duenari ere.

2. Babes berezipeko kultura-ondasunen kasuan edo muturreko larritasuneko kasuan, hari dagokion zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarri ahal izango da.

614. artikulua

Norbaitek, gatazka armatua dela bide, eta Espainia kide den nazioarteko itunetako aginduen aurka, beste edozein arau-hauste nahiz egintza gauzatzen badu edo halakoa gauzatzeko agindua ematen badu, betiere nazioarteko itun horiek etsaigoak bideratzeari, zauritu, gaixo eta itsasoan galdutakoen babesari, gerrako gatibuen tratuari, pertsona zibilen babesari eta gatazka armatuaren kasuan kultura-ondasunak babesteari buruzkoak direnean, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

CAPÍTULO IV
Disposiciones comunes

Artículo 615

La provocación, la conspiración y la proposición para la ejecución de los delitos previstos en este Título, se castigarán con la pena inferior en uno o dos grados a la que correspondería a los mismos.

Artículo 616

En el caso de cometerse cualquiera de los delitos comprendidos en este Título y en el anterior por una autoridad o funcionario público, se le impondrá, además de las penas señaladas en ellos, la de inhabilitación absoluta por tiempo de diez a veinte años; si fuese un particular, los Jueces o Tribunales podrán imponerle la de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a diez años.

IV. KAPITULUA
Guztietarako xedapenak

615. artikulua

Titulu honetan ezarritako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortu egingo dira, delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

616. artikulua

Titulu honetara eta aurreko titulura bildutako delituetatik edozein egiten duenean agintari edo funtzionario publiko batek, tituluok aipatzen dituzten zigorrez gain, agintari edo funtzionario publikoari erabateko desgaikuntza ezarriko zaio, hamar urtetik hogei arteko denboran; hori norbanakoa bada, epaile edo auzitegiek enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarri ahal izango diote, urtebetetik hamar arteko denboran.

LIBRO III
FALTAS Y SUS PENAS

TÍTULO I
FALTAS CONTRA LAS PERSONAS

Artículo 617

1. El que, por cualquier medio o procedimiento, causare a otro una lesión no definida como delito en este Código, será castigado con la Pena de arresto de tres a seis fines de semana o multa de uno a dos meses.

2. El que golpeare o maltratare de obra a otro sin causarle lesión será castigado con la pena de arresto de uno a tres fines de semana o multa de diez a treinta días.

Cuando el ofendido fuere alguna de las personas a las que se refiere el artículo 153, la pena será la de arresto de tres a seis fines de semana o multa de uno a dos meses, teniendo en cuenta la posible repercusión económica que la pena impuesta pudiera tener sobre la propia víctima o sobre el conjunto de los integrantes de la unidad familiar.

Artículo 618

Serán castigados con la pena de arresto de tres a seis fines de semana o multa de uno a dos meses los que, encontrando abandonado a un menor de edad o a un incapaz, no lo presenten a la autoridad o a su familia, o no le presten, en su caso, el auxilio que las circunstancias requieran.

III. LIBURUA
FALTAK ETA HORIEI DAGOZKIEN ZIGORRAK

I. TITULUA
PERTSONEN AURKAKO FALTAK

617. artikulua

1. Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabilita, kode honetan delitu gisa zehaztuta ez dagoen lesio bat eragiten badio inori, orduan, horri hiru asteburutik sei arteko atzipenaldi-zigorra edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaio.

2. Norbaitek beste bat jotzen badu edo egitez hari tratu txarra ematen badio, lesiorik eragin gabe, asteburu batetik hiru arteko atzipenaldi-zigorra edo hamar egunetik hogeita hamar arteko isuna ezarriko zaio.

Ofenditua 153. artikuluak aipatzen dituen pertsonetatik bat denean, hiru asteburutik sei arteko atzipenaldi-zigorra edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko da, kontuan hartuz ezarritako zigorrak izan dezakeen eragin ekonomikoa biktimarengan berarengan edo familia-batasuna osatzen dutenengan.

618. artikulua

Hiru asteburutik sei arteko atzipenaldi-zigorra edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaie, bertan behera utzitako adingabe edo ezgai bat aurkitu eta agintaritzaren edota adingabe zein ezgaiaren familiaren aurrean aurkezten ez dutenei edo, behar izanez gero, inguruabarren araberako laguntzarik ematen ez diotenei.

Artículo 619

Serán castigados con la pena de multa de diez a veinte días los que dejaren de prestar asistencia o, en su caso, el auxilio que las circunstancias requieran a una persona de edad avanzada o discapacitada que se encuentre desvalida y dependa de sus cuidados.

619. artikulua

Hamar egunetik hogei arteko isunzigorra ezarriko zaie, adineko bati edo elbarri bati laguntasuna edota, kasuan-kasuan, inguruabarren araberako laguntza emateari uzten diotenei, hura babesik gabe eta euren jagotzaren beharrean badago.

Artículo 620

Serán castigados con la pena de multa de diez a veinte días:

1.º Los que, de modo leve, amenacen a otro con armas u otros instrumentos peligrosos, o los saquen en riña, como no sea en justa defensa, y salvo que el hecho sea constitutivo de delito.

2.º Los que causen a otro una amenaza, coacción, injuria o vejación injusta de carácter leve.

Los hechos descritos en los dos números anteriores sólo serán perseguibles mediante denuncia de la persona agraviada o de su representate legal.

Cuando el ofendido fuere alguna de las personas a las que se refiere el artículo 153, la pena será la de arresto de dos a cuatro fines de semana o la de multa de diez a veinte días, teniendo en cuenta la posible repercusión económica que la pena impuesta pudiera tener sobre la propia víctima o sobre el conjunto de los integrantes de la unidad familiar. En estos casos no será exigible la denuncia a que se refiere el párrafo anterior de este artículo, excepto para la persecución de las injurias.

620. artikulua

Hamar egunetik hogei arteko isunzigorra ezarriko zaie hurrengo hauei:

1.) Era arinean, beste bati mehatxua egiten diotenei, armak edo bestelako tresna arriskutsuak erabiliz, edota horiek liskarrean ateratzen dituztenei, defentsa zuzena dagoenean izan ezik, salbu eta egitatea delitua denean.

2.) Beste bati mehatxua, derrigortzea, zuzena ez den iraina edo iseka egiten diotenei, horiek guztiak izaera arinekoak badira.

Aurreko zenbaki bietan adierazitako egitateak pertsegitzeko, beharrezkoa izango da laidotutako pertsonaren edo beraren lege-ordezkariaren salaketa.

Ofenditua 153. artikuluak aipatzen dituen pertsonetatik bat denean, bi asteburutik lau arteko atzipenaldia edo hamar egunetik hogei arteko isuna ezarriko da, kontuan hartuz ezarritako zigorrak izan dezakeen eragin ekonomikoa biktimarengan berarengan edo familia-batasuna osatzen dutenengan. Kasu horietan, ez da beharrezkoa izango artikulu honen aurreko lerrokadak aipatzen duen salaketa, irainak pertsegitzeko izan ezik.

Artículo 621

1. Los que por imprudencia grave causaren alguna de las lesiones previstas en el apartado 2 del artículo 147, serán castigados con la pena de multa de uno a dos meses.

2. Los que por imprudencia leve causaren la muerte de otra persona, serán castigados con la pena de multa de uno a dos meses.

3. Los que por imprudencia leve causaren lesión constitutiva de delito, serán castigados con pena de multa de quince a treinta días.

4. Si el hecho se cometiera con vehículo a motor o ciclomotor, podrá imponerse además, respectivamente, la privación del derecho a conducirlos por tiempo de tres meses a un año.

5. Si el hecho se cometiera con arma podrá imponerse, además, la privación del derecho a la tenencia y porte de armas por tiempo de tres meses a un año.

6. Las infracciones penadas en este artículo sólo serán perseguibles mediante denuncia de la persona agraviada o de su representante legal.

Artículo 622

Los padres, tutores o guardadores de un menor que, sin llegar a incurrir, en su caso, en el delito de desobediencia, quebrantaren la resolución adoptada por el Juez o Tribunal, apoderándose del menor, sacándolo de la guarda establecida en la resolución judicial o por decisión de la entidad pública que

621. artikulua

1. Norbaitzuek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, 147. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako lesioetatik bat eragiten badute, hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

2. Norbaitzuek, zuhurtziagabekeria arinaren ondorioz, beste baten heriotza eragiten badute, hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

3. Norbaitzuek, zuhurtziagabekeria arinaren ondorioz, delitu den lesioa eragiten badute, hamabost egunetik hogeita hamar arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

4. Horrezaz gain, egitatea ibilgailu motordun edo motor-bizikleta erabiliz gauzatzen bada, kasuan-kasuan, horiek gidatzeko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarri ahal izango da, hiru hilabetetik urtebete arteko denboran.

5. Horrezaz gain, egitatea arma erabiliz gauzatzen bada, armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarri ahal izango da, hiru hilabetetik urtebete arteko denboran.

6. Artikulu honek zigortzen dituen arau-hausteak pertsegitzeko beharrezkoa izango da laidotuaren edo beraren lege-ordezkariaren salaketa.

622. artikulua

Adingabe baten guraso, tutore edo zaintzaileek, hala denean, desobeditze-delitua egin barik, epaile edo auzitegiak emandako ebazpena urratzen badute, dela adingabea eurenganatuz, dela adingabea zaintzatik ateraz, betiere zaintza hori ezarri denean epaileak emandako ebazpenean edota tutoretza

tenga encomendada la tutela, retirándolo del establecimiento, familia, persona o institución tutelar a quien se le hubiese encomendado, o no restituyéndolo cuando estuvieren obligados, serán castigados con la pena de multa de uno a dos meses.

bere ardurapean duen erakunde publikoaren erabakian, dela adingabea bere ardurapean duen establezimendu, familia, pertsona edo tutoretza-erakundetik ateraz, edota horretarako behartuta egonik, adingabea ez itzuliz, orduan, halakoei hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

TÍTULO II
FALTAS CONTRA EL PATRIMONIO

Artículo 623

Serán castigados con arresto de dos a seis fines de semana o multa de uno a dos meses:

1. Los que cometan hurto, si el valor de lo hurtado no excediera de cincuenta mil pesetas.

2. Los que realicen la conducta descrita en el artículo 236, siempre que el valor de la cosa no exceda de cincuenta mil pesetas.

3. Los que sustraigan, sin ánimo de apropiárselo, un vehículo a motor o ciclomotor ajeno, si el valor del vehículo utilizado no excediera de cincuenta mil pesetas.

Si el hecho se ejecutase empleando fuerza en las cosas, se impondrá la pena en su mitad superior. Si se realizara con violencia o intimidación en las personas, se penará conforme a lo dispuesto en el artículo 244.

II. TITULUA
ONDAREAREN AURKAKO FALTAK

623. artikulua

Hurrengo hauei bi asteburutik sei arteko atzipenaldia edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaie:

1. Ebasketa egiten dutenei, baldin eta ebatsitakoaren balioa berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa ez bada.

2. Bestalde, 236. artikuluan azaldutako jokabidea egiten dutenei, betiere gauzaren balioa berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa ez denean.

3. Beste baten ibilgailu motorduna edo motor-bizikleta osten dutenei, horiez jabetzeko asmorik gabe, baldin eta erabilitako ibilgailuaren balioa berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa ez bada.

Egitatea gauzetan indarra erabiliz gauzatzen bada, zigorra goiko erdian ezarriko da. Egitatea pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz gauzatzen bada, 244. artikuluan ezarritakoaren arabera zigortuko da.

4. Los que cometan estafa, apropiación indebida, o defraudación de electricidad, gas, agua u otro elemento, energía o fluido, o en equipos terminales de telecomunicación, en cuantía no superior a cincuenta mil pesetas.

4. Maula edo bidegabeko jabetzea egiten dutenei edota elektrizitatean, gasean, uretan zein bestelako osagai, energia nahiz jariakinetan edo telekomunikazio-ekipo terminaletan iruzur egiten dutenei, horren zenbatekoa ez bada berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa.

Artículo 624

El que ejecutare los actos comprendidos en el artículo 246, será castigado con multa de diez a treinta días si la utilidad no excede de cincuenta mil pesetas o no sea estimable, siempre que medie denuncia del perjudicado.

624. artikulua

Norbaitek gauzatzen baditu 246. artikuluak barne hartzen dituen egintzak, hamar egunetik hogeita hamar arteko isuna ezarriko zaio, baldin eta onura berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa ez bada edota aintzat hartzeko modukoa ez bada, betiere kaltedunaren salaketa dagoenean.

Artículo 625

1. Serán castigados con la pena de arresto de uno a seis fines de semana o multa de uno a veinte días los que intencionadamente causaren daños cuyo importe no exceda de cincuenta mil pesetas.

2. Se impondrá la pena en su mitad superior si los daños se causaran en bienes de valor histórico, artístico, cultural o monumental.

625. artikulua

1. Asteburu batetik sei arteko atzipenaldi-zigorra edo egun batetik hogei arteko isuna ezarriko zaie kalteak nahita egiten dituztenei, kalteen zenbatekoa ez bada berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa.

2. Zigorra goiko erdian ezarriko da, historia-, erti-, kultura- edo monumentu-balioa duten ondasunetan eragiten badira kalteak.

Artículo 626

Los que deslucieren bienes inmuebles de dominio público o privado, sin la debida autorización de la Administración o de sus propietarios, serán castigados con la pena de arresto de uno a tres fines de semana.

626. artikulua

Norbaitzuek histen badituzte jabari publiko edo pribatuko ondasun higiezinak, Administrazioaren edo ondasunon jabeen behar bezalako baimenik izan gabe, orduan, halakoei asteburu batetik hiru arteko atzipenaldi-zigorra ezarriko zaie.

Artículo 627

El que defraudare a la Hacienda de las Comunidades más de cuatro mil ecus por cualquiera de los procedimientos descritos en el artículo 305, será castigado con multa de cinco días a dos meses.

627. artikulua

Norbaitek Europako Erkidegoen Ogasunari lau mila ecu baino gehiagoko iruzurra egiten badio, 305. artikuluan azaldutako prozeduretatik edozein erabiliz, orduan, horri bost egunetik bi hilabete arteko isuna ezarriko zaio.

Artículo 628

El que defraudare a los presupuestos generales de las Comunidades, u otros administrados por éstas, u obtuviere indebidamente fondos de las mismas, por alguno de los procedimientos descritos en los artículos 306 y 309, en cuantía superior a cuatro mil ecus, será castigado con la pena de multa de cinco días a dos meses.

628. artikulua

Norbaitek Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrei edo Erkidegoek administraturiko bestelako aurrekontuei iruzur egiten badie, edota horietatik, bidegabe, funtsak lortzen baditu, lau mila ecu baino zenbateko handiagoan eta 306 eta 309. artikuluetan azaldutako prozeduretatik bat erabilita, orduan, pertsona horri bost egunetik bi hilabete arteko isuna ezarriko zaio.

TÍTULO III
FALTAS CONTRA LOS INTERESES GENERALES

Artículo 629

Serán castigados con la pena de arresto de uno a cuatro fines de semana o multa de quince a sesenta días, los que, habiendo recibido de buena fe moneda, billetes, sellos de correos o efectos timbrados falsos, los expendieren en cantidad que no exceda de cincuenta mil pesetas, a sabiendas de su falsedad.

Artículo 630

Los que abandonaren jeringuillas, en todo caso, u otros instrumentos peli-

III. TITULUA
INTERES OROKORREN AURKAKO FALTAK

629. artikulua

Asteburu batetik lau arteko atzipenaldi-zigorra edo hamabost egunetik hirurogei arteko isuna ezarriko zaie txanpon, billete, posta-zigilu edo efektu tinbredun faltsuak onustez jaso ondoren, faltsuak direla jakinda, berrogeita hamar mila pezeta arteko zenbatekoan saltzen dituztenei.

630. artikulua

Norbaitzuek xiringak, edozein kasutan, edo bestelako tresna arrisku-

grosos, de modo o con circunstancias que pudieran causar daño a las personas o contagiar enfermedades, o en lugares frecuentados por menores, serán castigados con las penas de arresto de tres a cinco fines de semana o multa de uno a dos meses.

tsuak uzten badituzte, pertsonei kalte eragin ahal dieten edo pertsonak gaixotasunez kutsatu ahal dituzten modu eta inguruabarretan, edo adingabeak sarritan joaten diren tokietan, orduan, halakoei hiru asteburutik bost arteko atzipenaldi-zigorra edo hilabetetik bi arteko isuna ezarriko zaie.

Artículo 631

Los dueños o encargados de la custodia de animales feroces o dañinos que los dejaren sueltos o en condiciones de causar mal, serán castigados con la pena de multa de quince a treinta días.

631. artikulua

Basapiztien edo abere kaltegarrien ugazabek edo horien zaintzaren arduradunek aske edo kalte egiteko moduan uzten badituzte, orduan, halakoei hamabost egunetik hogeita hamar arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

Artículo 632

Los que maltrataren cruelmente a los animales domésticos o a cualesquiera otros en espectáculos no autorizados legalmente, serán castigados con la pena de multa de diez a sesenta días.

632. artikulua

Norbaitzuek etxeko aberei edo bestelakoei legeak baimendu gabeko ikuskizunetan tratu txarra ematen badiete, orduan, halakoei hamar egunetik hirurogei arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

TÍTULO IV
FALTAS CONTRA EL ORDEN PÚBLICO

IV. TITULUA
ORDENA PUBLIKOAREN AURKAKO FALTAK

Artículo 633

Los que perturbaren levemente el orden en la audiencia de un Tribunal o Juzgado, en los actos públicos, en espectáculos deportivos o culturales, solemnidades o reuniones numerosas, serán castigados con las penas de arresto de uno a seis fines de semana y multa de diez a treinta días.

633. artikulua

Norbaitzuek, era arinean, ordenaren nahasmendua eragiten badute auzitegi edo epaitegi baten entzunaldian, jendaurreko ekitaldietan, kirol- nahiz kultura-ikuskizun, ospakizun edo bilera jendetsuetan, orduan, halakoei asteburu batetik sei arteko atzipenaldi-zigorra eta hamar egunetik hogeita hamar arteko isuna ezarriko zaizkie.

Artículo 634

Los que faltaren al respeto y consideración debida a la autoridad o sus agentes, o los desobedecieren levemente, cuando ejerzan sus funciones, serán castigados con la pena de multa de diez a sesenta días.

634. artikulua

Norbaitzuek, agintaritza bera edo agintaritzaren agenteak euren funtzioetan ari direla, horiei zor zaien errespetu eta begirunea galtzen edo era arinean desobeditzen badiete, orduan, halakoei hamar egunetik hirurogei arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

Artículo 635

Serán castigados con las penas de arresto de uno a cinco fines de semana y multa de uno a dos meses el que se mantuviere contra la voluntad de su titular, fuera de las horas de apertura, en el domicilio de una persona jurídica pública o privada, despacho profesional u oficina, o establecimiento mercantil o local abierto al público.

635. artikulua

Asteburu batetik bost arteko atzipenaldi-zigorra ezarriko zaie, bai eta hilabetetik bi arteko isuna ere, pertsona juridiko publiko edo pribatuaren egoitzan, lanbide-idazgelan zein bulegoan edota jendaurrean zabalik dagoen merkataritzako establezimenduan zein lokalean, beraren titularraren borondatearen aurka, eta irekita dagoen orduetatik kanpo, bertan dirautenei.

Artículo 636

Los que realizaren actividades careciendo de los seguros obligatorios de responsabilidad civil que se exigieran legalmente para el ejercicio de aquéllas, serán castigados con la pena de multa de uno a dos meses.

636. artikulua

Norbaitzuek legearen arabera erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruak behar dituzten jarduerak aseguruok izan gabe egiten badituzte, orduan, halakoei hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

Artículo 637

El que usare pública e indebidamente uniforme, traje, insignia o condecoración oficiales, o se atribuyere públicamente la cualidad de profesional amparada por un título académico que no posea, será castigado con la pena de arresto de uno a cinco fines de semana o multa de diez a treinta días.

637. artikulua

Norbaitek, jendaurrean eta bidegabe, uniforme, jantzi, ikur edo domina ofizialak erabiltzen baditu, edo, berak ez duen titulu akademiko batek babesturiko profesionaltasuna jendaurrean bere buruarentzat hartzen badu, orduan, pertsona horri asteburu batetik bost arteko atzipenaldi-zigorra edo hamar egunetik hogeita hamar arteko isuna ezarriko zaio.

TÍTULO V
DISPOSICIONES COMUNES A LAS FALTAS

Artículo 638

En la aplicación de las penas de este Libro procederán los Jueces y Tribunales, según su prudente arbitrio, dentro de los límites de cada una, atendiendo a las circunstancias del caso y del culpable, sin ajustarse a las reglas de los artículos 61 a 72 de este Código.

Artículo 639

En las faltas perseguibles a instancias de la persona agraviada también podrá denunciar el Ministerio Fiscal si aquélla fuere menor de edad, incapaz o una persona desvalida.

La ausencia de denuncia no impedirá la práctica de diligencias a prevención.

En estas faltas, el perdón del ofendido o su representante legal extinguirá la acción penal o la pena impuesta, salvo lo dispuesto en el segundo párrafo del número 4.º del artículo 130.

V. TITULUA
FALTA GUZTIETARAKO XEDAPENAK

638. artikulua

Epaile eta auzitegiak, liburu honen zigorrak ezartzean, kode honen 61. artikulutik 72.erakoetan jasotako erregelen arabera jokatu barik arituko dira, euren sen onaren arabera, zigor bakoitzari ezarritako mugen barnean, eta kasuaren eta errudunaren inguruabarrak kontuan hartuz.

639. artikulua

Laidotuak hala eskatu barik pertsegitu ezin daitezkeen faltetan, Fiskaltzak ere salaketa egin ahal izango du, baldin eta laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean.

Salaketarik egin ez bada ere, ez da eragotziko aurreneurriak hartzeko eginbideak egitea.

Falta horietan, ofendituaren edo beraren lege-ordezkariaren barkamenak akzio penala edo ezarritako zigorra azkenduko du, 130. artikuluko 4. zenbakiaren bigarren lerrokadan xedatutakoa izan ezik.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

Cuando una persona sea declarada exenta de responsabilidad criminal por concurrir alguna de las causas previstas en los números 1.º y 3.º del artículo 20 de este Código, el Ministerio Fiscal instará, si fuera procedente, la declaración de incapacidad ante la Jurisdicción Civil, salvo que la misma hubiera sido ya

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Pertsona bat zigor-erantzukizunetik salbuetsita dagoela adierazten denean, kode honen 20. artikuluaren 1 eta 3. zenbakietan ezarritako arrazoietatik bat dela eta, Fiskaltzak, bidezko bada, ezgaitasun-adierazpena eragingo du jurisdikzio zibilean, salbu eta aldez aurretik ezgaitasun-adierazpena eraba-

anteriormente acordada y, en su caso, el internamiento conforme a las normas de la legislación civil.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

Cuando la autoridad gubernativa tenga conocimiento de la existencia de un menor de edad o de un incapaz que se halla en estado de prostitución, sea o no por su voluntad, pero con anuencia de las personas que sobre él ejerzan autoridad familiar o ético-social o de hecho, o que carece de ellas, o éstas lo tienen en abandono y no se encargan de su custodia, lo comunicará de inmediato a la entidad pública que en el respectivo territorio tenga encomendada la protección de menores y al Ministerio Fiscal, para que actúen de conformidad con sus respectivas competencias.

Asimismo, en los supuestos en que el Juez o Tribunal acuerde la inhabilitación especial para el ejercicio de la patria potestad, el acogimiento, la guarda, tutela o curatela, lo comunicará de inmediato a la entidad pública que en el respectivo territorio tenga encomendada la protección de los menores y al Ministerio Fiscal para que actúen de conformidad con sus respectivas competencias.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA

Cuando, mediando denuncia o reclamación del perjudicado, se incoe un procedimiento penal por hechos constitutivos de infracciones previstas y penadas en los artículos 267 y 621 del presente Código, podrán comparecer en las diligencias penales que se incoen y mos-

kita dagoenean. Halaber, Fiskaltzak, hala denean, barneratzea eragingo du, legeria zibileko arauen arabera.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Gobernu-agintaritzak adingabe edo ezgai bat, hala nahita zein nahi gabe, prostituzioan dagoela dakienean, lurralde bakoitzean adingabeen babesaz arduratzen den erakunde publikoari eta Fiskaltzari, berehala, horren berri emango die, bakoitzak bere eskumenen arabera jarduteko, baldin eta adingabearengan edo ezgaiarengan familia-agintea edota gizarte- eta etika-agintea edo egitezko agintea duten pertsonen adostasuna badu prostituzioan aritzeko, horrelako pertsonarik ez badu edota pertsona horiek bertan behera utzirik badute eta beraren zaintzaz arduratzen ez badira.

Halaber, epaile edo auzitegiak ezartzen badu guraso-ahala, harrera, zaintza, tutoretza edo kuradoretza egikaritzeko desgaikuntza berezia, horren berri emango die, berehala, lurralde bakoitzean adingabeen babesaz arduratzen den erakunde publikoari eta Fiskaltzari, bakoitzak bere eskumenen arabera jarduteko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Kaltedunaren salaketa edo erreklamazioa dagoelarik, 267 eta 621. artikuluetan ezarri eta zigortutako arau-hausteak direla eta, zigor-prozedura hasten denean, egitate berberetan nahasirik dauden beste guztiak, euren burua kaltedun gisa ikusten duten heinean,

trarse parte todos aquellos otros implicados en los mismos hechos que se consideren perjudicados, cualquiera que sea la cuantía de los daños que reclamen.

alderdi gisa agertu ahal izango dira hasitako zigor-eginbideetan, eurek eskatzen dituzten kalteen zenbatekoa edozein izanda ere.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA

Los delitos y faltas cometidos hasta el día de la entrada en vigor de este Código se juzgarán conforme al cuerpo legal y demás leyes penales especiales que se derogan. Una vez que entre en vigor el presente Código, si las disposiciones del mismo son más favorables para el reo, se aplicarán éstas.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Delitu eta faltak indargabeturiko Zigor Kodearen eta gainerako zigor-lege berezien arabera epaituko dira, baldin eta egiten badira kode hau indarrean jarri aurretik. Kode hau indarrean jarri ondoren, beraren xedapenak aplikatuko zaizkie aurreko horiei, errudunarentzat mesedegarriagoak badira.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEGUNDA

Para la determinación de cuál sea la ley más favorable se tendrá en cuenta la pena que correspondería al hecho enjuiciado con la aplicación de las normas completas de uno u otro Código. Las disposiciones sobre redención de penas por el trabajo sólo serán de aplicación a todos los condenados conforme al Código derogado y no podrán gozar de ellas aquellos a quienes se les apliquen las disposiciones del nuevo Código.

En todo caso, será oído el reo.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Legerik mesedegarriena zein den zehazteko, epaitutako egitateari kode baten edo bestearen arau guztiak aplikatuz legokiokeen zigorra zein izango litzatekeen hartuko da kontuan. Indargabetutako kodearen arabera kondenatutako guztiei bakarrik ezarri ahal izango zaizkie lanaren bidez zigorrak ordaintzeko xedapenak, eta ezin izango du inork xedapen horietatik onurarik atera, kode berriaren xedapenak ezartzen bazaizkio.

Errudunak esan beharrekoa beti entzun behar da.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA TERCERA

Los Directores de los establecimientos penitenciarios remitirán a la mayor urgencia, a partir de la publicación del nuevo Código Penal, a los Jueces o Tribunales que estén conociendo de la ejecutoria, relación de los penados internos

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Zigor Kode berria argitaratu eta gero, espetxeetako zuzendariek ahalik eta arinen bidaliko diete beteagindua-ren gaineko eskumena duten epaile edo auzitegiei, eurek zuzentzen duten espetxeko zigortuen zerrenda; zigortua be-

en el Centro que dirijan, y liquidación provisional de la pena en ejecución, señalando los días que el reo haya redimido por el trabajo y los que pueda redimir, en su caso, en el futuro conforme al artículo 100 del Código Penal que se deroga y disposiciones complementarias.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA CUARTA

Los Jueces o Tribunales mencionados en la disposición anterior procederán, una vez recibida la anterior liquidación de condena, a dar traslado al Ministerio Fiscal, para que informe sobre si procede revisar la sentencia y, en tal caso, los términos de la revisión. Una vez haya informado el Fiscal, procederán también a oír al reo, notificándole los términos de la revisión propuesta, así como a dar traslado al Letrado que asumió su defensa en el juicio oral, para que exponga lo que estime más favorable para el reo.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA QUINTA

El Consejo General del Poder Judicial, en el ámbito de las competencias que le atribuye el artículo 98 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, podrá asignar a uno o varios de los Juzgados de lo Penal o Secciones de las Audiencias Provinciales dedicados en régimen de exclusividad a la ejecución de sentencias penales, la revisión de las sentencias firmes dictadas antes de la vigencia de este Código.

Dichos Jueces o Tribunales procederán a revisar las sentencias firmes y en las que el penado esté cumpliendo

tetzen ari den zigorraren behin-behineko likidazioa, errudunak lan eginda ordaindutako egunak eta, hala denean, indargabetutako Zigor Kodearen 100. artikuluaren eta xedapen osagarrien arabera etorkizunean ordain ditzakeen egunak ere adieraziz.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Adierazitako kondenaren likidazioa jaso ondoren, aurreko xedapenean aipatutako epaile edo auzitegiek likidazio hori Fiskaltzari helaraziko diote. Fiskaltzak epaia berrikusi behar den ala ez esango du txosten batean eta, berrikustekotan, nola berrikusi behar den ere. Fiskaltzak txostena eman eta gero, errudunak esan beharrekoa entzun behar da eta proposatutako berrikuspenaren baldintzak jakinaraziko zaizkio. Orobat, ahozko epaiketan errudunaren defentsa bereganatu zuen legelariari berrikuspen proposamena helarazi behar zaio, horrek bere ustez errudunarentzat mesedegarriena dena azal dezan.

BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 98. artikuluak ematen dizkion eskumenen arabera, zigor-epaitegi bati edo batzuei nahiz probintziako audientziako atal bati edo batzuei agin diezaieke kode hau indarrean jarri aurretik emandako epai irmoen berrikuspena, epaitegi edo atalen helburu bakarra bada epai penalak betearaztea.

Epaile edo auzitegi horiek epai irmoak berrikusiko dituzte, zigortua zigorra betetzen ari denean, xedapenik

efectivamente la pena, aplicando la disposición más favorable considerada taxativamente y no por el ejercicio del arbitrio judicial. En las penas privativas de libertad no se considerará más favorable este Código cuando la duración de la pena anterior impuesta al hecho con sus circunstancias sea también imponible con arreglo al nuevo Código. Se exceptúa el supuesto en que este Código contenga para el mismo hecho la previsión alternativa de una pena no privativa de libertad; en tal caso deberá revisarse la sentencia.

No se revisarán las sentencias en que el cumplimiento de la pena esté suspendido, sin perjuicio de hacerlo en caso de que se revoque la suspensión y antes de proceder al cumplimiento efectivo de la pena suspendida. Igual regla se aplicará si el penado se encuentra en período de libertad condicional.

Tampoco se revisarán las sentencias en que, con arreglo al Código derogado y al nuevo, corresponda, exclusivamente, pena de multa.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEXTA

No serán revisadas las sentencias en que la pena esté ejecutada o suspendida, aunque se encuentren pendientes de ejecutar otros pronunciamientos del fallo, así como las ya totalmente ejecutadas, sin perjuicio de que el Juez o Tribunal que en el futuro pudiera tenerlas en cuenta a efectos de reincidencia deba examinar previamente si el hecho en ellas penado ha dejado de ser delito o pudiera corresponderle una pena menor de la impuesta conforme a este Código.

mesedegarriena aplikatuz, zehatz-mehatz hartuta eta epailearen erabakimena erabili barik. Zigor askatasungabetzaileetan kode hau ez da mesedegarriagotzat hartuko, egitateari aurretik ezarritako zigorraren iraupena, egitatearen inguruabarrak kontuan hartuz, kode berriaren arabera ere ezar daitekeenean. Aurrekoa ez da kontuan hartuko, kode honek egitate berbererako askatasunaz gabetzen ez duen zigor hautabidezkoa ezartzen badu; kasu horretan, epaia berrikusi beharko da.

Epaiak ez dira berrikusiko, beraiek ezartzen duten zigorraren betearazpena etenda badago; horrek ez dio kalterik egingo, etendura ezeztatzen bada, etendako zigorraren betearazpena hasi aurretik, epaia berrikusteari. Erregela berbera aplikatuko da, zigortua baldintzapeko askatasunean badago.

Era berean, indargabetutako kodearen arabera zein kode berriaren arabera, ezarri beharreko zigor bakarra isunzigorra bada, epaia ez da berrikusiko.

SEIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Epaiak ez dira berrikusiko, beraiek ezartzen duten zigorra bete edo eten bada, nahiz eta epaitzaren bestelako aldarrikapenak bete gabe egon, eta jadanik oso-osorik betearazi diren epaiak ere ez dira berrikusiko; horrek ez dio kalterik egingo berrerortze-ondoreetarako kasu horiek etorkizunean kontuan har ditzakeen epaile edo auzitegiak, aldez aurretik aztertu behar izateari epaietan zigortzen den egitatea jadanik ez ote den delitua, edo kode honen arabera ezarritako zigorra baino zigor arinagoa dagokion.

En los supuestos de indulto parcial, no se revisarán las sentencias cuando la pena resultante que se halle cumpliendo el condenado se encuentre comprendida en un marco imponible inferior respecto al nuevo Código.

Epaiak ez dira berrikusiko zatikako indultuaren kasuetan, kondenatua betetzen ari den zigorra badago, kode berriaren arabera ezarri behar denarekin erkaturik, beheragoko zigor-esparru baten barnean.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA SÉPTIMA

A efectos de la apreciación de la agravante de reincidencia, se entenderán comprendidos en el mismo Título de este Código, aquellos delitos previstos en el Cuerpo legal que se deroga y que tengan análoga denominación y ataquen del mismo modo a idéntico bien jurídico.

ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Berrerortze astungarria aintzat hartzeko, indargabetuko den Zigor Kodean ezarritako delituak kode honen titulu berberaren barruan daudela ulertuko da, baldin eta kode honetako delituen antzeko izendapena badute eta ondasun juridiko berberari modu berean eraso egiten badiote.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA OCTAVA

En los casos en que la pena que pudiera corresponder por la aplicación de este Código fuera la de arresto de fin de semana, se considerará, para valorar su gravedad comparativa, que la duración de la privación de libertad equivale a dos días por cada fin de semana que correspondiera imponer. Si la pena fuera la de multa, se considerará que cada día de arresto sustitutorio que se haya impuesto o pudiese imponer el Juez o Tribunal conforme al Código que se deroga, equivale a dos cuotas diarias de la multa del presente Cuerpo legal.

ZORTZIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Kode hau aplikatuz gero ezartzekoa izan litekeen zigorra asteburuko atzipenaldia den kasuetan, zigorraren konparaziozko larritasuna balioesteko, ezartzekoa izan litekeen asteburu bakoitza eta askatasunaz gabetzearen egun bi baliobestekoak direla ulertuko da. Zigorra isuna bada, indargabetutako Zigor Kodearen arabera epaile edo auzitegiak ezarri duen edo ezar dezakeen ordezko atzipenaldiko egun bakoitza eta zigor-kode honetako isunaren eguneko kuota bi baliobestekoak direla ulertuko da.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA NOVENA

En las sentencias dictadas conforme a la legislación que se deroga y que no sean firmes por estar pendientes de recurso, se observarán, una vez trans-

BEDERATZIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Legeria indargabetuaren arabera emandako epaiak irmoak ez direnean, horiei buruzko errekurtsoak erabakitzeko egoteagatik, vacatio-epealdia

currido el período de vacatio, las siguientes reglas:

a) Si se trata de un recurso de apelación, las partes podrán invocar y el Juez o Tribunal aplicará de oficio los preceptos del nuevo Código, cuando resulten más favorables al reo.

b) Si se trata de un recurso de casación, aún no formalizado, el recurrente podrá señalar las infracciones legales basándose en los preceptos del nuevo Código.

c) Si, interpuesto recurso de casación, estuviera sustanciándose, se pasará de nuevo al recurrente, de oficio o a instancia de parte, por el término de ocho días, para que adapte, si lo estima procedente, los motivos de casación alegados a los preceptos del nuevo Código, y del recurso así modificado se instruirán las partes interesadas, el Fiscal y el Magistrado ponente, continuando la tramitación conforme a Derecho.

amaitu ondoren, erregela hauek beteko dira:

a) Gora jotzeko errekurtsoa bada, kode berriaren manuak errudunarentzat mesedegarriagoak direnean, alderdiek manu horiek aplikatzea eska dezakete eta epaile edo auzitegiak ofizioz aplikatuko ditu.

b) Oraindik formalizatu gabeko kasazio-errekurtsoa bada, errekurtsogileak kode berriaren manuak oinarri hartuta adieraz ditzake lege-hausteak.

c) Kasazio-errekurtsoa jarri ondoren, errekurtsoa izapideetan badago, berriro ere errekurtsogileari emango zaio errekurtsoa, ofizioz edo alderdiak hala eskaturik, zortzi eguneko epe-mugarako, alderdiak, bere ustez bidezko bada, alegatutako kasazio-arrazoiak kode berriaren manuen arabera moldatzeko. Horrela aldatutako errekurtsoa alderdi interesdunei, fiskalari eta magistratu txostengileari jakinaraziko zaie, eta izapideak zuzenbidearen arabera jarraituko dira.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA DÉCIMA

Las medidas de seguridad que se hallen en ejecución o pendientes de ella, acordadas conforme a la Ley de Peligrosidad y Rehabilitación Social, o en aplicación de los números 1.º y 3.º del artículo 8 o del número 1.º del artículo 9 del Código Penal que se deroga, serán revisadas conforme a los preceptos del Título IV del Libro I de este Código y a las reglas anteriores.

En aquellos casos en que la duración máxima de la medida prevista en

HAMARGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Arriskutsutasunari eta Gizartean Birgaitzeari buruzko Legearekin bat etorriz, edota indargabetu den Zigor Kodearen 8. artikuluko 1 eta 3. zenbakiak edo 9. artikuluko 1. zenbakia aplikatuz, segurtasun-neurriak erabaki badira eta neurri horiek betetzen ari badira edo betetzeko zain badaude, orduan, neurriok berrikusi egingo dira kode honen I. liburuko IV. tituluaren manuen arabera, bai eta aurretik aipatutako erregelen arabera ere.

Epaile edo auzitegiak zigorraren betetzea azkendutzat emango du eta,

este Código sea inferior al tiempo que efectivamente hayan cumplido los sometidos a la misma, el Juez o Tribunal dará por extinguido dicho cumplimiento y, en el caso de tratarse de una medida de internamiento, ordenará su inmediata puesta en libertad.

barnealdiko neurriaren kasuan, zigortua berehala askatzeko aginduko du, kode honetan ezarritako neurriaren gehieneko iraupena laburragoa bada, neurri horren menpe daudenek bete duten denbora baino.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA UNDÉCIMA

1. Cuando se hayan de aplicar Leyes penales especiales o procesales por la jurisdicción ordinaria, se entenderán sustituidas:

a) La pena de reclusión mayor, por la de prisión de quince a veinte años, con la cláusula de elevación de la misma a la pena de prisión de veinte a veinticinco años cuando concurran en el hecho dos o más circunstancias agravantes.

b) La pena de reclusión menor, por la de prisión de ocho a quince años.

c) La pena de prisión mayor, por la de prisión de tres a ocho años.

d) La pena de prisión menor, por la de prisión de seis meses a tres años.

e) La pena de arresto mayor, por la de arresto de siete a quince fines de semana.

f) La pena de multa impuesta en cuantía superior a cien mil pesetas señalada para hechos castigados como delito, por la de multa de tres a diez meses.

g) La pena de multa impuesta en cuantía inferior a cien mil pesetas señalada para hechos castigados como delito, por la de multa de dos a tres meses.

HAMAIKAGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Jurisdikzio arruntak zigor-lege bereziak edo prozesukoak aplikatu behar dituenean, honako ordezpenak egingo dira:

a) Giltzapealdi handiko zigorraren ordez, hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra. Dena den, espetxealdi-zigor hori hogei urtetik hogeita bost arteko espetxealdi-zigorrera igoko da, baldin eta egitatean inguruabar astungarri bi edo gehiago pilatzen badira.

b) Giltzapealdi txikiko zigorraren ordez, zortzi urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra.

c) Espetxealdi handiko zigorraren ordez, hiru urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra.

d) Espetxealdi txikiko zigorraren ordez, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra.

e) Atzipenaldi handiko zigorraren ordez, zazpi asteburutik hamabost arteko atzipenaldia.

f) Delitu gisa zigortutako egitateei ehun mila pezeta baino gehiagoko zenbatekoan adierazitako isun-zigorraren ordez, hiru hilabetetik hamar arteko isuna.

g) Delitu gisa zigortutako egitateei ehun mila pezeta baino gutxiagoko zenbatekoan adierazitako isun-zigorraren ordez, bi hilabetetik hiru arteko isuna.

h) La pena de multa impuesta para hechos delictivos en cuantía proporcional al lucro obtenido o al perjuicio causado seguirá aplicándose proporcionalmente.

i) La pena de arresto menor, por la de arresto de uno a seis fines de semana.

j) La pena de multa establecida para hechos definidos como falta, por la multa de uno a sesenta días.

k) Las penas privativas de derechos se impondrán en los términos y por los plazos fijados en este Código.

l) Cualquier otra pena de las suprimidas en este Código, por la pena o medida de seguridad que el Juez o Tribunal estime más análoga y de igual o menor gravedad. De no existir o de ser todas más graves, dejará de imponerse.

2. En caso de duda, será oído el reo.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA DUODÉCIMA*

Hasta la aprobación de la ley que regule la responsabilidad penal del menor, en los procedimientos que se sus-

* De conformidad con la disposición final quinta de la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, reguladora de la responsabilidad penal de menores, la disposición transitoria duodécima del Código Penal ha quedado derogada. Sin embargo, todavía puede resultar de aplicación en los delitos y faltas cometidos antes del 13 de enero de 2001. Por ello, la citada disposición se mantiene en el presente texto. Véanse, asimismo, los artículos 8, 9, 20, 22 y 65 del Código Penal de 1973, recogidos en el anexo de esta publicación.

h) Delituei ezarritako isun-zigorra proportzioz ezartzeari eutsiko zaio, baldin eta isun-zigor horren zenbatekoa proportziozkoa bada, lortutako irabazien edo eragindako kalteen arabera.

i) Atzipenaldi txikiko zigorraren ordez, asteburu batetik sei arteko atzipenaldia.

j) Falta gisa definituriko egitateei ezarri isun-zigorraren ordez, egun batetik hirurogei arteko isuna.

k) Zigor eskubide-gabetzaileak kode honek finkatutako baldintza eta epeetan ezarriko dira.

l) Kode honetan ezabatutako zigorretatik beste edozeinen ordez, epaile edo auzitegiaren ustez horren antzekoena den zigorra edo segurtasun-neurria ezarriko da, astuntasun bera edo txikiagoa badu. Halakorik ez badago edo denak astunagoak badira, orduan, ez da zigorrik edo segurtasun-neurririk ezarriko.

2. Zalantzarik badago, errudunak esan beharrekoa entzun behar da.

HAMABIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA*

Adingabearen erantzukizun penala arautuko duen legea onetsi arte, hemezortzi urtekoa baino gazteago denak

* Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak adingabeen erantzukizun penala arautu du. Bada, lege horren azken xedapenetatik bosgarrenak agintzen duenez, Zigor Kodearen 12. xedapen iragankorra indarrik gabe geratu da. Dena den, oraindik aplikatzeko modukoa izan daiteke, 2001eko urtarrilaren 13a baino lehen egindako delitu eta falten kasuan. Horregatik, argitalpen honetara bildu da. Ikus, berebat, Zigor Kode honen bukaeran dagoen eranskina eta, zehatzago, 1973ko Zigor Kodearen 8, 9, 20, 22 eta 65. artikuluak.

tancien por razón de un delito o falta presuntamente cometido por un menor de dieciocho años, el Juez o Tribunal competente requerirá a los equipos técnicos que están al servicio de los Jueces de menores, la elaboración de un informe sobre la situación psicológica, educativa y familiar del menor, así como sobre su entorno social y, en general, sobre cualquier otra circunstancia que pueda haber influido en el hecho que se le imputa.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA*

1. Quedan derogados:

a) El Texto Refundido del Código Penal publicado por el Decreto 3.096/1973, de 14 de septiembre, conforme a la Ley 44/1971, de 15 de noviembre, con sus modificaciones posteriores, excepto los artículos 8.2, 9.3, la regla 1.ª del artículo 20 en lo que se refiere al número 2.º del artículo 8, el segundo párrafo del artículo 22, 65, 417 bis y las disposiciones adicionales primera y segunda de la Ley Orgánica 3/1989, de 21 de junio.

b) La Ley de 17 de marzo de 1908 de condena condicional, con sus modi-

* La Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, ha entrado en vigor, con carácter general, el 13 de enero de 2001. A partir de dicha fecha, han quedado derogados los artículos 8, 9, 20, 22 y 65 del Código Penal de 1973, artículos que se citan en el párrafo 1.a) de la presente disposición. Sin embargo, dichos artículos han sido recogidos en el anexo de la presente publicación, dado que pueden tener importancia práctica para juzgar los hechos cometidos antes de la citada fecha.

ustez delitu edo falta bat egin duelako ari badira prozedurak bideratzen, epaile edo auzitegi eskudunak txosten bat prestatzeko eskatuko die adingabeen epaileen zerbitzupeko ekipo teknikoei, adingabearen psikologia, heziketa eta familia-egoerari buruz, adingabearen gizarte inguruari buruz eta, oro har, adingabe horri egozten zaion egitatean eragina izan dezaketen bestelako inguruabarrei buruz.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA*

1. Indarrik gabe geratuko dira:

